



MINTZAIRA, AURPEGIA: GIZON!

Jean Hiriart Urruti

Iturria: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jean Hiriart Urruti. Jakin, 1971.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruMintza.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ZENBAIT AURPEGI



HIL DUTE RAVACHOL

Hil da beraz azkenean Ravachol, gizon-hiltzale izigarri hura. Hil dute: ez berehala, ez eta ere errexki. Lehenago erran dugu nola behin Parisen *anarxista* bezala, zer nahi txarkeria egin zuelakotz, betiko galere-tarat kondenatu zuten. Handik gero, Montbrison, Frantzia barneko hiri baterat ekarri zuten, zeren hiri hartan eginak baitzituen lehenago bere balentriarik handienak. Egun hamabortz jakin ginuen Montbrisoneko tribunalak lepoa mozterat kondenatu zuela.

Holako horier uzten diote berrogei bat egun edo gehiago, nahi badute *apel* egin; edo bederen errepublikako jaun presidentari, barkamenduskatzen direlarik, galdatu, ardietsiko badute eta ez, biziaren grazia.

Ravacholek ez du deus galdatu nahi izan. Jakinez geroz harenak egin zuela, nehor ezin hurbildua omen zen. Irri egiten zuen, ahotik blasfemia zariola, Jainkoaren izena bera aipatzen ziotenean. Presondegiko apez omoniera ere ez zezaken begien aintzinean ikusi. Zioten orok egundaino ez dela ikusi holako mustrorik. Hitz dautzut ongi eta ongi zaindua zela, eta hurbildanik begi atxikitzen ziotela; etzuen urharts handirik egiten ahal. Gau eta egun, bere zaintzalez bertzalde, bazituen ez dakit zonbat soldado, harmak eskuan, xutik, han zaudenak. Garbitzen zuten, igitu balitz!

Hamabortz egun huntan presondegia kanpotik ere soldadoz inguraturua zaukaten. Beldur ziren, *anarxista* direlako heiek asma zezaten zerbeit izigarrikeria, bere laguna justiziaren eskuetarik ateratu nahiz. Halako mehatxuak zituzten ere eginak, ziotelarik goraki: «*Ravachol hiltzen badakute*, erreko dugu burregoa, erreko dugu *gillotina*, eta beharbada Montbrisoneko hiri guzia!»

Ravachol hil dute: bainan anarxixten sudurrik nehorik ez du han ikusi. Iziturik ihes egin ote dute? ala gerokotzat ote zituzten solas lazgarri hek oro? Ageriko da.

Erran behar da gaitzeko prekozioeak hartuak zituztela, justiziarekin hitzarturik, hiriko buruzagiek. Hiri guzia soldadoz eta harmaz betea zen Bereziki azken gauean ez zen, ez *anarxistarik* ez bertzerik, harat urbiltzen ahal, bere izena emanik eta buruzagien baimenik gabe. Halere hanitz jende bazen harat hurbildurik. Egunaz bezen argi omen zen hiriko karriketan. Ikaran zauden alabainan oro, zer behar zuten ikusi.

Goizaldera buruz, burregoa tribunaleko buruzagiekin presondegian sartu eta han hatzeman dute Ravachol, harria bezala lo zagola. Bertze guziak izialdurekin harrituak, eta hura lo... egiazko mustroa!

«Jaiki, jaiki, Ravachol. —Jaikitzen da, jauzi egiten duelarik. —Zer nahi duzue? —Har ezazu kuraie. —Zertako? —Hiltzera joateko.»

Dohakabea! Irri karkailaz hasten zaiote, trufatzen da orotaz; eskarnio egiten diote balakatzeko ele on zenbeit erran nahi lioketen guzieri. Burregoa ari zaiolarik bizkar gibelean bi eskuen estekatzen, ahora jin guziak erraiten diozka, erdi irriz, erdi hortz karraskan, iduri josteta bezala. Apeza ikustearekin erranen zinuen zainetako lotzen zitzaioa; zalapartan eta oihuka: ez zuela nahi apezik; hurbiltzen bazen, *tu eginen zijo*la begitartera, hari eta haren kurutzefikari.

Halere apez gaizoa jarraiki zaio gillotinaren gaineradino, beti begiak haren begieri josiak zituelarik, beti kurutzefika saindua eskuan.

Deusek ez du hunkitu ahal izan haren biotza. Ikusteko emen zen, presondegitik hiriaren erdira zeramatelarik, orga handi batzuen gainean xutik, burua gora, begia zorrotz, alde orotarat oihuz, juramentu arrailka, gerrirainoko jauntziak xehakatuak, erdi buluzia; ezin erran ere ditazke haren ahotik ateratzen ziren urdekeriak.

Hiltzeko tresnaren gainera denean, nahi izan da jendeari azken aldikotz mintzatu. Berehala lotu zaizko burregoaren laguntzaileak. Nahi bazuen eta ez, etzan-arazi dute han, taularen gaienean. Oihu marraskaz eta zalapartan ari zen: nahi zela mintzatu; bazuela zerbaiteko. Lepoa moztearekin kordokan ari zelarik, entzun dituzten azken hitzak hauk dira: «*Biba errepublika*». Ordu berean ikusi dituzte haren burua alde baterat, gorputza bertze alderat erortzen. Eta haren arima, norat joan ote da? Nolako errepublika hatzeman ote du, orai den tokian? Orroitzekak berak izitzen gaitu. Ez dea bada ikaragarri zertaratzen den bere aztura gaixtoak nausitzerat uzten dituen gizona!

Jainkoak begira dezaukula dugun erlisioneal!

Eskualduna, 1892-07-15



CHRISTOPHE COLOMB

Hilabete hunen hamabian bete ditu, egunez egun, lau ehun-urte, lehen aldikotz hunkitu zuela Ameriketako lurra, Christophe Colomb deitu gizon handi jakintsun batek.

Gizon hori sortzez Italianoa zen, *Gènes* izena duen portu-hirian sortua, diotenaz, hamabortzgarren mendearen erditsutan.

Ordukotzat mundu hau zahartuxea zen. Hamalau ehun mende eta erdi bazituen gure erlisione saildua Europa guzian eta lurraren bertze asko bazterretarat hedatua zela. Eta bizkitartean nehork ez zuen oraino Amerikarik bazela aipatzen, ez eta amesten ere. Uste zuten orok uraz haindian ez zela jenderik, ez eta ere lurrik. *Itsaso beltza* deitzen zuten Ameriketarat deraman ur hori. Erraten zuten Angleterra zela lurraren azken hegia; ez zela handik harat urik baizik: beti ura, eta zoin beltza, zoin barna! Zioten unti guziak, han harat joanez geroz, ur handi harek iresten zituela.

Oro harritu ziren beraz, jakin zutenean bazela gizon bat, mariñel bat, herriz herri, gortez gorte zabilana, laguntza bila, itsaso horren bertze aldera joateko, urez. Deus ez zuen galdatzen baizik ere unti bat edo biga, bi edo hiru hilabeteren jatekoa, eta zenbeit gizon gazte azkar. Nehork ez zuen sinetsi, behin eta behin, ustez errotua zela. Zortzi urtez bere ahal guziak egin zituen, nahiz eta orduko jakintsunetarik eta erresuma guzietako buruzagietarik zenbeit ardietsi beren xede handiaren betetzeko. Guziek gaizki hartu, salbu Espainia *Castillako* erregina, *Izabela* deitorea zuenak.

Erregina harek eman ziozkan behar zituen unti eta mariñel lagunak. Atsegin hartu zuen, oro bildurik, han harat, urez ur joateko zoriona ukan zuenean. Zerbeitik barnetik erraten zion, han hatzemanen zituela, Europa guzia bezen zabal eta aberats, eremu batzu; haur-haurretik omen zuen amets hori egin, eta nehork ez zezoken burutik ken harat joateko xedea.

Joan zen beraz, bere ahaide eta adixkideak nigarretan utzirik, joan zen bere lagunekin, itsaso beltzean barna.

Nork erran hiru hilabetez harek ukan zituen bihotzminak? Bide erditara gabe lagun guziak lotsatuak zituen. Ez zioten bakerik usten: «Itzul zadin gibelerat; beldurti zirela; galduko zirela; goseteak eta egarriak hilen zituela...!»

Bainan hura beti ezti eta beti azkar bere bideari aintzina. Gutitarik huts egin zuen, ez baitzuten urerat artiki.

Azkenean, horra non mariñel batek masta-haga baten puntatik egin duen oihu: Lurra, hara lurra! eta bertze guziek, begiak zabaldurik, oihu bera: «Lurra!»

Barkamenduskatu ziren guziak Colomben aintzinean, beren sineste eskasaz, eta bidean egin ziozkaten laidoez. Lurra hunkituz geroz, han ahantzi ziren nahigabe guziak. Beren bozkalenzian, Jainkoari eskerrak bihurtzeko eman zioten lur hari izena: *San Salvador*, eta hara orduko itsas-hegian landatu zuten kurutzua.

Fede handiko gizona zen Colomb. Fedeak zion ere ematen hain lehia handia, lur eremu heitarat joateko. Aski garbiki erraten zuen haren xedea zela gure erlisione saildua munduan ahal bezen urrun hedatzea. Ez dezakegu hemen aipa, xede hortarat heltzeko zenbat traba garraitu, eta zenbat nahigabe jasan behar izan zituen egiazko gizon handi eta kartsu harek.

Ez ginuen nahi bederen aipatu gabe utzi haren izenean Europa guziak Amerikarekin batean, egin duen besta handia Badugu zerbeit arrazoin Eskualdunek eskualde hartaz orroitzeko.



LAVIGERIE KARDINALAREN HILTZEA

Berri handi bat heldu zitzaiku Afrikatik. Lavigerie jaun kardinala hil izan da iragan larunbat goizean. Hiruetan hogoi-ta zazpi urte zituen. Adin onean zen oraino; bainan aspaldian bere kargu eta karga handiek emaiten ziozkaten buru-haustek higatua zen.

Nahiz berenaz jite azkarrekoa zen, lanak izan ditu, hogoi-ta bortz urtez Afrikako iguzki dorpearen jasaiten. Bainan deus ez zitzaion hori, Frantziak eta gure erlijioeak Afrikan dituzten egiteko handiez orroitzen zenean.

Zorigaitzez bazuen bertze griñarik. Azken huntarat bereziki nahigabe handiak ukan ditu alde orotarik. Bi urte huntan anitzek begietan hartua zuten, zeren zen mintzatu apezpiku guzien *artean lehenik*, edo bederen *gorenik*, Frantziako katolikoeri adiarazteko: behar zuketela, gobernamentu-moldearen gaineko makur guziak bazterrerat utzirik, Errepublika onetsi, ez orai dugun Errepublika judu eta framazonez bete hau, bainan Errepublika zuzen eta zinezko giristino bat. Garbiki erraiten zuen, hori zitekela biderik laburrena; eta gauzak ikusiz, *bide bakarra* egun-ego egunean, deus onik egitekotz Frantzian.

Aitortzen dugu Lavigerie kardinala mintzatu zenean, gauzak orai diren baino gibelago zirela. Geroztik hunat asko gora-behera gertatu dire. Orotako handiena izan da Aita Sainduak berak hiru edo lau aldiz, gure onetan, erakutsi deraukun nahikundea: utz ditzagun elgarren arteko makurrak, eta jar gaiten oro Errepublikari, nahi badugu Frantzia erlijio-nearen etsaien eskuetarik atera, eta gizon zuhurragoen eskuetan ezarri.

Gauza ber-bera erraiten zuen kardinala hil denak. Zioten ere ordukotzat Aita Sainduarekin eta bere apezpiku lagun gehienekin hitz-hartua zela, nola mintza. Berak ere hori erraiten zuen. Bainan halere adixkide zaharretarik zenbaitek gaizki hartu zuten haren errana.

Egia osorik erran dezagun, apur bat moldegaizki agertu zuen orduan bere burua. Bainan orok bazakiketen haren xedearen herri. Guk behinik behin ez dugu behinere uste izan apezpiku argitu eta kartsu harek, Errepublikan sartuz, orai ditugun buruzagi framazon eta giristino arnegatuekin bat egiten zuela.

Hori erran dutenek, nor nahi izan dituen, gorri ala xuri, ez dute egia erran. Eta oraino ere norbeitek erraiten badautzuete, apezpiku horrek Errepublika onhetsiz, orai ditugun lege tzarrak onesten zituela, lege

horiek egin dituzten *gorrien* aldekoa zela, sinesten eta erraiten ahal duzue goraki: *Hori gezurra dela*.

Gezur hori gorriek nahi izan zuten sinets-arazi ordu berean; eta geroztik ere zenbat aldi ez diotegu entzun? Balute den gutieneko gizon-tasunik, behar lukete orai bederen, hilarentzat aski errespetu erakutsi, hala ez denaren ez erraiteko. Bertzela ez dute beren burua hanbat edertuko.

Ageriko da. Orai arteo ez dugu laudoriozko eta errespetuzko solasik baizik entzuten eta irakurtzen. Ez dugu bizkitartean igurikitzen orok orotan sentimendu berak erakutsiko dituztela. Alabainan ez du jaun horrek beti oroen gogora egin. Sobera eskualdetarat buru egin behar zuen, xuxen ibiliz oroekilakoaren egiteko.

Bertzalde bere itzalak ere bazituzken; ez da dudarik bazituela. Nor da gabe? Gero hau ere bada: arbola handien itzalak nahi eta ez, beti handixago agertzen dire.

Orotako handienik hatzemaiten ziotena zen, *oldarka* erraiten eta egiten zituela asko gauza, edo egin gabe uzten, hasi ondoan; gehienik aipatua izan den *oldar* handia egin zuen holetan, duela bi urte, enperadoretiar eta erregetiarrekilakoa hautsi zuenean Behinere ez diote barkatu egitate hori zenbaitek. Ez gire baitezpada hartaz estonatzten. Bainan haren xede onak bederen ez gintuzke nahi gehiago gezurrez beltztuak ikusi. Utz dezagun gezurra debruaren aldekoentzat.

Oroen buruan nork daki ez girenez, goiz edo berant, azkenean oro kardinalarean hitzera erori beharko? Guk, gure aldetik aspaldixkoan urrats hori egin dugu. Ez gire bakarrak. Bainan orok, orok behar ginuke hortara erori, orok bat eginez lasterrago garrantzeko Frantzia errekalat deramaten framazon tzar horien banda higuigarria!

Eskualduna, 1892-12-02



EDOUARD DRUMONT

Egun zortzi jalgi da gizon bat Pariseko presondegi batetarik, hiru hilabete han preso egon ondoan.

—Nor da gizon hura?

—Edouard Drumont.

—Eta nor da Edouard Drumont?

—Gizon bat; erran nahi baita: *gizon bat*.

—Bainan nor eta zer gizon ordean? Gizon hiltzale, ala ohoin handi, ala zer? Ala Panamako diru-ebasle horietarik edo bederen horien iduriko zenbeit ote da?

—Ez... ez da, ez gizon-hiltzale, ez kolpatzale, ez ohoin, ez *Panamista*, ez eta Panamisten aldekoa, are gutiago oraino heien idurikoa; ez alaxintxo!

—Nor da beraz? Eta zer egin du, horrela hiru hilabete preso iragaiteko? Alabainan *gaixtaginak* ezartzen dire preso. Eta Drumont delako hura ere ez ahal zuten balin ba preso ezarriko, ez balitz izan, zer edo zer, edo kolpe, edo gezur, edo ohointza... hots, zerbeitez hobendun? Mintza zazkit beraz xuxen; eta ele alferrak utzirik, erradazut garbiki, nor den gizon hura, eta zer egin duen.

—Adixkidea, goazin otoi emeki. Zuk oro betan nahi zintuzke entzun; eta nik ez dezaket neholere aldi solas bat baizik erran. Halere aldi aldikoa zure buruan sar arazten, lana frango.

—Esker mila! Hobekixago egin zinezake ene galdeari ihardestea, hoinbertze itzulika eta erasia ein gabe. Nahi dautazu erran, nor duzun Drumont edo Demon delako gizon hori, ala ez? Hemen nago begiak xuriturik, jakin nahia zerbeit...

—Holaxet, adixkidea. Higi zite behin bederen norapeit. Erdietan erdi lo bezala irakurtzen nauzu; begiak hor dilindan, harat-hunat, eta gogoia Jainkoak dakiela non! Nahi zindutan ikusi egun bederen pixka bat atzar eta erne.

Ez zazkidala bizkitartean sobera kexa. Orai erranen darotzut nor den Edouard Drumont. Irakur nezazu otoi ongi, eta ikusiko duzu, Drumont hura bezalako gizon guti dela Frantzian eta Espainian...

—Behinik behin baduzu espantu...

—Xo ixilik zu, ahal bazauzke. Eta ni hasten naiz... hastetik.

Duela sei edo zazpi urte agertu zen Parisen *liburu bat*, izigarriko haroa Frantzia guzian altxatu zuena. Liburu haren izena badakite engotik eskola pixka bat duten guziek. Agertu zen bezen laster, anitzek irakurtu zuten, eta geroztik oraino gehiago hedatu izan da, frantses liburuen irakurtzea laket zaioten jendakien artean.

La France Juive du liburu harek izena, erran nahi baita eskuaraz, *Frantzia Judu*.

Frantzia judu bilatzen ari dela nahi zuen adiarazi liburu haren egi-leak. Hura zen hemen aipu dugun gizona. Talendu handiko gizona zen, eta da oraino.

Liburu hartan eta geroztik bertze halako bortz edo seietan, ezen urte guzietan egin izan du, bere ahal guziak egin ditu, gure buruan sararazi nahiz. *Judu bilakatzen ari girela...*

Juduak ditugula Frantzia nausi: gu oro heien azpiko; beren eskuko dituztela kargu guziak, gako edo giltza eta gider guziak, eta oroz gainetik gako guzietan lehena: *dirua*. Frantziako diruaren erdia juduek ebatsia darokutela, eta bertze erdia ebasten ari. Dirua beretuz geroz, nahi dutena egiten dutela gutaz. Lege tzar guziak heien *mutil* direla; eta gu heien esklabo: hitz batez oro judu bilakatzen ari girela; Frantzia guzia judu: *La France Juive!* Hora zer dion Edouard Drumont deitu jaun harek. Haren solas guziak hortara doazi.

Hortakotz du ere adixkide batzuen laguntzarekin, egun guzietan agerazten kazeta bat *La Libre Parole* erraiten diotena, eta oraino sei hilabete baizik ez duelarik agertzen hasia dela, *berrehun mila irakurtzaletaraino* badituena.

Han ezartzen ditu egun guzietan judu tzar horien egitateak zabal-zabala. Zigorrada onik ematen diote, egun guzietan, bai judueri, bai eta heien aldekoeri: ministro, deputatu ala zenator, gorri tzar ohoin guzietan. Ba eta xurientzat ere badu asko errateko: itsu eta nagi direla, ez dutela kopetarik, etsaiari ihardokitzeko; ez dutela ez zainik, ez odollik; oilo-busti batzu iduri dutela.

Ahalge-gorritzeko egiak adiarazten diozkate, eskuin eta ezker, orori. Ez dezakegu erran beti izariz mintzo dela. Gorrieri eta gorrieri egiaren adi-arazteko gora behar zaiote oiuhu egin. Bego hortako Drumont nausi.

Hanbat gaixtoago beharriak minbera dituenarentzat!

Panamako kalapita hori guzia ere harek altxatua da. Nehor ez zen hortaz mintzo, harek oiuhu egin arteo. Anitzek bazakiten ordukotzat ohointza horien berri; bainan oro geldirik eta ixilik zauden. Oro uzkur,



oro lotsa, oro juduen beldur. Nihor ez nahi hasi ohoinekin, auzitan, berdin deus ez irabaziko eta...

—Zer mila sorgin: ez irabaziko? Nork daki hori? Drumontek hasi du berak pizten sua. Ba eta piztu; ba eta zenbeiti muturra ederki berotu. Atx!

Bizkitartean berari ere ongi gusta zaio sua piztu ondoan, haren buhatzea eta kitzikatzea.

—Nola hori?

—Zeren preso ezarri baitute, eta han atxiki hiru hilabetez, preso.

—Zer? Ohoinen salatzalea preso?

—Ba, gizona. Hura preso. Eta ohoinak libro. Zertako ez da egon ixilik? Erraten dautzut bitxi dela, juduak behin nausitzerat utziz geroz, gauza guziak nola azpikoz gora ifrantzikaturik jarriak diren. Ah Ez bagin giren bezen zozoak!

Eskualduna, 1893-02-10

BAT GUTIAGO

Iduri du egiazki Jainkoa dabilala. Egun hamabortz erraten ginuen, ez dagola behinere lo *Gaineko hura*; behinere ez dituela harek ahanzten bere aldekoak, ez eta bere etsaiak. Erraten ginuen etorriko zela guzientzat haren orena; menturaz guk uste baino lasterrago sar-araziko ziozkaitela *Harek* gaixtagin buruzagi, judu, framazon eta pagano diren bezalako horier beren irriak eta trufak.

Egun zortzi berriz aipatu izan dugu nola eta nola leher egin duen Panamako zauri izigarriak; nola erdiz erdi atzemanak izan diren ohoinak eta heien aldekoak *gezur eta nabaskeriarik itsusien erdian*.

Xehetasun guziak orduan ezin emanez, egungo utzi gintuen zenbeit emaiteko. Eta huna non heldu zarokun Parisetik berri bat oro baino handiagoa.

Ba, egiazki Jainkoa dabila!

Ferry, zenatorren president berria, hil izan da bet-betan, iragan ortziralean duela xuxen zortzi egun.

Bihotzeko min izigarri batek ereman du, zenbeit orenik barnean. Oro harritu dire, berri hori entzutearekin.

Uste zuten alabainan orok, behingo gizon bazela Ferry. Barne azkarraren zuen... iduriz. Gizon gordina zen oraino. Hiruetan hogoi-ta bat urte omen zituen. Eta horra non den hila!

Erran dugu hemen berean berrikitan zer gizon zen bertzenaz Ferry hori.

Egun ere badugu xedea xehekiago aipatzeko harek egin lan tzarretarik zenbeit. Alta ez da, ez eder, ez laket, gizon bat etsai izanik ere, hil orduko, berehala hartaz gaizki mintzatzea. Baina zer egin dezakegu, baizik ere Frantzia guzia egun hautan, eskualde bat edo bertze, mintz-arazten duen gizon hortaz guk ere dakiguna egia den bezala erran? Hanbat gaixtoago harentzat, baldin ez badugu deus onik hartaz aipatzeko!

Kalte handiak egin darozkigu; baina beretzat du engoitik zorigaitz handiena, honbertze tzarkeriaz hobendun Jainkoaren aitzinean agertu denaz geroz.

Hila hil, guk ez diogu egia baizik zor. Eta egia erratekotz, behar dugu erran hura bizi zelarik behinere gorde ez duguna. Huna bi hitzez egia.



Azken hamabortz urte hautan Frantzian eginak izan diren lege tzar guzien, eta bereziki eskoletarik erlijioea kendu duen lege higuigarri horren egile nausia izan da Ferry.

Duela sei, zazpi urte, eskoletako lege hori ezarri zutenean, bere burua gahienik, itsuskienik agertu zuena zen Ferry.

Ferry zen orduan ministroen buruzagi. Hura zuten framazon edo *barginbeltz* direlako gizon tzar horiek orok beren aitzineko.

Egia da berek ere ez zutela bizkitartean hanbat maite, zeren eta oroz entzat idorra baitzen, bere buruaz itsutuki hartua, eta oroz gainetik, ohore gose errabiatua, orotan bera nausi beharra.

Tonkineko gerla denbora hartan galdu zuen bere burua. Itsuskeria batzu egin zituen orduan, eta gezurto batzu ere erran, gure soldado gai-zoeri han egin-arazi huts batzu ezeztatu nahiz.

Bi hitzetan hatzemana izan zen; eta orok begietan hartu zuten, gorri ala xuri, guziek, salbu bere iduriko sorraio bakar zenbeitek. Arbuiatu zuten, iduriz betikotz, guziek.

Kendu ziozkaten esku guziak; eta gorri gorrienak hain ziren orduan asaldatuak, non erranen baitzinuen puskatu behar zutela.

Geroztik hunat erdi itzalean egon da, bainan maltzurkeriaz zagon, bere tenorearen begira. Tenore hura bere ustez etorri zaionean, ikusi dituenen bere adixkide ohiak Panamako saltsa beltz hortan igeri, berriz altxatu du burua.

Zer egin dute bertzek? Ikusirik oro galduak direla edo bederen higatuxeak, orroitu dire beren buruzagi ohiaz. Elgarrekin hitz-hartu dute, nehork ateratzekotz Panamako ohoin zilo hartarik Ferryk dituela aterako.

Ahantzi dituzte lehengo makur eta herra guziak.

Hor ezarri dute Ferry zenatorren buruzagi, geroxeago ezarriko zutela ministro eta nork daki? beharrez oraino zerbeit gehiago. Ferry eta Ferry, ez zen hartaz baizik aipu jadanik hiru aste huntan Frantzian.

Hari zauden gorri guziak begiak eta ahoak zabaldurik.

Krask! Horra non ximixta bezala hedatzen den berria: «*Ferry bil da!* —*Ferry bil?* —*Ba, Ferry bil.* Hil da Ferry. Ferryk ez du gehiago nehoi bidegaberik eginen».

Berri hori entzutearekin, gizontto batek erraten zuen egun hautan. «Egin bezate nahi dutena. Bil bedite Jainkoaren kontra nahi badute mila edo ehun mila. Horiek oro baino azkarrago izanen da azkenean Jainkoa bera».

—Egia handia.

Trufa bedite, trufa Jainkoaz. Nor nahi eta zenbat nahi izan ditenean, ez dire aski izanen. Behinik, horra bat gutiago...

Eskualduna, 1893-03-24



DUCELLIER APEZPIKUA HIL

Duela sei urte izan zen Ducellier gure jaun apezpiku ohia, Frantziaren bertze buruan den hiri batetako artxapezpiku izendatua.

Bederatzi urte bazituen Baionako apezpiku zela, Aita Sainduak Frantziako buruzagiekin hitz-harturik deitu zuenean *Bezauoneko* diosesa handirat.

Handia erraten dugu, eta hala da egiazki diosesa hura. Behinik behin eremuz eremu badauzka bi departamendu osorik eta bertze lur puska bat: Belfort erraten dioten hiria eta haren inguruetakoa herriak, Alemaniako lurra hunkitu arte. Bazuen ere, diotenez, eremu arau hemen baino han biziki lan gehiago asko burutarik.

Ez da beraz harritzeko laster higatu balin bada ere.

Hemendik joan zenean, oraino gazte zen adinez; eta zen baino ere gazteago emaiten zuen itxuraz. Iduri zuen behingo apezpiku bazela; hainbertzetaraino azkar eta erne ikusi ginuen gure Eskual-herrian azken aldikotz egin zuen itzulian.

Eta horra non den jadanik hila, hiruetan hogoi-ta bat urtetan, eri zela ere kasik nehor ohartu gabe.

Bet-betan aldi-xartu omen da, eta hartarik hil bi egunen buruan.

Aproplexie erraten dioten gaitz izigarriak ohetik jaikitzen zolarik jo duen goiz berean piaia luze bati lotzera zotan. Eguardi iriko treina harturik joaitekoa zen, bere ustez, Besançonetik Normandialat, bere sorherriaren ikustera eta han bere ahaidekin zenbeit egun iragaitera. Zer bihotz-mina ahaide heientzat haren begira egoki eta, hil berria ukan dutenean!

Horra zer den gure izaitea: egun ba, bihar ez!

Hilabete bat baino gehiago ez du oraino aipu zela bazter guzietan Ducellier jaun artxapezpikuaz. Orok zioten Baionatik Besançonerat deitua izan zen bezala, Besançonetik Lyonerat igorri nahi zuketela, hango artxapezpiqua hil izanik, haren ordain.

Bazuen ere eiki zerbeit eskaintza, kargu berri hortarat igaiteko. Bainan baditeke ordukotz bere baitan ahulezia zerbeit ezagutzen zuen. Lotsatu ote da bigarren tokiz aldatze hori aipatu diotenean? Ala bertzeak ote dire beren baitarik ohartu, ez ziotela eman behar jasan ahala baino lan gehiago? Guk dakiguna da solas hori erabili ondoan, hura utzirik bertze bat igorri dutela Lyonerat.

Egia errateko, nahiz ez zen baitezpada eri, anitz zahartua iduri omen zuen; eta berrikitan Lourden ikusi zuen eskualdun jaun batek erran ere badauku kasik ezin ezagutzeko heineraino hautsia kausitu zuela. Ageri zuen segun, zen toki hartan asko nahigabe jasaiteko bazuela. Berak ere lañoki erraten zuen; ez zuela nehon ere eskualde hautan bezalako bihotzdun jenderik hatzeman.

Hunat etorri zenean, egia den bezala erran dezadan, ez zuen berehala hartu hemengo ara; bainan azkenean jarria zen osoki gurekilakoaren ahalik hobekiena egiteari; guk ere hura hartua ginuen, elgarren xede onak ikusiz beti elgar hartzen den bezala.

Ezin ahantz dezakegu nola hemen azken egunetarik batez gure aitzinean erran zituen hitz hunkigarri hauk: «Eskual-herria nekez uzten dut. Berantxe ezagutu duket hemengo jendea; bainan hartu dudan baino nekezago dut galduko gogotik. Orotan orok bezala, badituzte Eskualdunek zuen itzalak, bainan *zola ona duzue*. Hori da nik hemendik deramatzadan oroitzapenetarik hoberena».

Zola ona eta azkarra: berak ere hala zuen. Orok aitortzen dute hedadura handia zuela. Bazaukan beti artoski bere nahitasuna; eta nahiz ahal guziak egiten zituen gobernamentuko buruzagiekin bakean bizitzeko, bazakien batzuetan, bere buruaren agertzen, etsaieri ihardokitze.

Halere mintzatu den baino ardurago egon da ixilik. Ixiltasunean iretsi ditu ardurenik egungo egunean gure erlijioneari buruz egiten dituzten jazarkunde izengabeak! Alta bazuken zertaz mintza! Egunduz oihuka artzeko balitake aski, oraiko gizonen tzarkeriak ikusiz. Azkenean oro hortarako gira, framazon madarikatu horiekin burutzerik ezin eginez, gerla gorria piztu arte.

Hil den jaun apezpiku horrek egiten ditu, batek egitekotz, bai hemen bai han, bere ahal guziak, nahiz eta, ezintasunez, zuhurtziaz, onez-onean gobernamentuko gizonekin bakean bizi. Alferretan ordean, ikusi ahal duken bezala.

Nork daki zenbat gogoeta samin egiten zuen bere baitan, ikustearikin Elizako buruzagiak eztiago eta bertzeak beti eta beti tzarrago zoazila?

Ez, ez da harritzeko, jaun hura eta bertze zenbeit gazterik zahartzen eta hiltzen badire ere. Holakoetan gutienik agertzen direneri zaiote ezik asko aldiz gehienik odola berotzen eta galtzen.

Jainkoak dezotela eman berekin bertze munduan hemen Elizarentzat ezin ardietsi duten bakea.



Detzotela eman halaber heien ondokoeri, bakerik ez dutenaz geroz,
gerlaren jasaiteko behar dituzten argiak eta laguntzak!

Behinere ez dute, ez dugu orok ere izan laguntza eta argi behar
gehiago!

Eskualduna, 1893-07-07

MIRIBEL JENERALA

Aste huntan hil izan da Frantziako jeneralik handiena eta jakintsue-
na, Miribel deitua.

Hura baitan sineste handi bazuten soldado aitzindari guziek. Orok
zioten hura zela soldadoen xuxen ibilarazteko eta gerla bat heldu zitake-
nean, etsaiari ihardokitzeko bururik eta indarrik gehienekoa.

Hiruetan hogoi-ta-bi edo hiru urte baizik etzituen oraino, eta zaha-
rragoek aitortzen zuten hura nausi zutela orok.

Ez zen gorriekilakoa; eta bizkitartean orok errespetatzen zuten eta
ohoratzen. Bazakiten bazuketela, baginukela orok, gutien ustean, haren
beharra.

Hartakotz uzten zion gobernamenduak bere aitzindaritasuna, sol-
dado aintzindari guziez goragokoa. Bertze guziak haren azpiko ziren.
Oro hari zauden; zer gerta ere, hura zuten ezarria, gerlako minixtroaren
lagun bezala, eta kasik minixtroa baino gorago, Frantziako armada
guzien buruzagi.

Minixterio berritzearekin, gerlako minixtroa kanbiaturik ere, hura
etzuten kanbiatzen; beti han uzten zuten bere kargu hartan.

Horra non bet-betan hil izan den; batzuek diotenaz, zaldiz zozalarik
apoplekzia kolpe batek hatzeman du; bertzen arabera, uste gabeen zaldi-
tik erori da eta burua arraildu zaio.

Ez dugu oraino garbitasun osorik, baizik ere, zorigaitzez egia dena,
hil dela jeneral gaizoa, aldixartu-eta zenbeit orenik barnean.

Azken berria: pentze batean gaindi omen zoan bere seme batekin;
biak zaldiz.

Seme haren arabera, jeneralak bere zaldiaren gainetik zerbeit ikusi
duke lurrean. Zer ote zen hobeki ikusteko, buruz beheiti etzan da edo
bederen makurtu.

Hainbertzenarekin zaldiak burua oldarrean altxatu; kaska bat eman
dio zaldiak gainekoari belarrean.

Durduzatua erori da, trunko bat bezala, zalditik. Bainan zangoak
estriberetan loturik gelditu zazko, eta herrestan ereman du zaldiak bide
puska bat urrunago.

Semeak, ahal bezala, geldi-arazi du zaldia, eta bere aita haren zan-
gopetik ateratu. Bainan berantegi zen. Auzoak, seme dohakabearen
oihuak aditurik, hara bildu orduko, hil hurrana zen jenerala.



Medikuek, ikusi bezen laster etsitu dute. Eman-arazi diozkate bali-kunbalde erlijionearen azken laguntzak. Jainkoak daki ezagutzarik aski bazuen ala ez!

Fededuna baitzen, eta diotenaz, fedezko eginbideari jarraikia, behartu zaiokie zen bezalakoa izaitea, Jainkoaren aitzinean agertzeko.

Eskualduna, 1893-09-15

PASTEUR: HIL HANDI BAT

Pasteur deitu jaun jakintsun handia, gizonen artean behinere agertu diren gizon argituenetarik bat hil izan da iragan larunbatean.

Nork ez du gutartean aspaldi bere izenaz ezagutu *zakur errabiatuaren auskitik* sendatzen zuen jaun aipamen handikoa?

Munduaren lau bazterretarat hedatua zen haren omena. Hoinbertzetaraino gizontzat eta gizon handitzat zaukaten orok, non edo zoin erregeri eta enperadoreri, ala bertze buruzagi handiri eder baitzizaioten harekin solas egitea eta hari esku tinkatzea bera.

Bereziki azken urte hautan orok alde orotarik artaz eta ohorez iduri zuten ez zakitela nola aski ingura. Laguntza eta sari aberatsenak zagizkoten, bai Frantziako, bai arrotz herri aldeetako buruzagiek.

Zerbeit irabazirik ere bazuen engoitik *hiruetan hogoi-ta hamahirur urtez* bere bizia eta osasuna gau eta egun lanean higaturik atxiki duen gizonak! Bai egiazki, bazuen zerbeit irabazirik! Zer lan luzeak eta dorpeak ez ditu egin, bere xedera heltzeko. Buruzko lanak zein gaixto diren eta asko aldiz gorputzaren berarentzat zein diren nekegarri ez dakienak ez du asmatzen ahal: Pasteur jaun zenak zenbat lo galdu duken eta zenbat urtez zenbat odol gaixto egin, errabiaren sendagailu hura hatzeman arte!

Haren idurikoei ardura gertatu zaiotena, hastapenak zituen ukan orotako idorrenik. Bere barnetik zerbeitek zerrakion, ongi bilatuz, hatzemanen zuela, gogoan zuen sendagailua. Bainan nehork ez nahi sinetsi; are gutiago lagundu...

Berak bere burutarik eta bere ahale arabera egin zituen asko eta asko ikus-lan eta ikas-lan... ez dakit bertzela nola erran eskuaraz.

Zakur eta otso, idi eta behi, lapin eta erbi eta bertze azinda eta abere, eta ihizi errabi-arazi zituen, batzu bertzei ausiki-araziz, edo batzuei bertzeen odol galdua zainetarat sartuz... ikusteko gero zein nola senda-araz zitzaizken.

Azkenean noizpeit nolazpeit ohartu zen *lapin* errabiatuaren odol-galduak senda zitzaizkela bertze azinda eta abere... eta *jende* errabiatzera zoazinak.

Xartatzean pikotarik beiratzeko *pikota-hazja* emaiten den bezala, bota errabiari *errabia-hazja*, ez nola nahi, bainan hemen aipatzea luzegi liteken xehetasun batzuen arabera. Hara non den hatzemanen errabiaren sendagailua. Zer hatzemakoa!



Eta nolako beldurra, nolako ikara ez zuen bere baitan ukan jaun gizagaixoak, bere sendagailu lotsagarria, iduriz pozoin egiazkoa lehen aldikotz *jende* bati lurra zilaturik, han sartu zuenean! Hil edo bizi... mutiko artzain gazte bati eman zion lehen aldikotz, ordu arte azindetan baikirik ezagutu ez zuen *pozoina* edo sendagailua.

Zer atsegina, ikusi zuenean mutikoa zenbeit egunen buruan sendo, behin betikotz sendo.

Lehenbiziko sendatze horren orroitzapentzat altxatu zuten, handik ondoan harrizko orroitgailu eder bat. Han berean orroitgailu harenpean hautatu du berak bere azken egoitza; eta han behar omen dute ehortzi hil handi hori... hiltzetik beiratu duen lehen artzain Jullipe-n izenaren itzalean. Non hauta zezaken hobeki bere hil-hobia?

Ez ukan dudarik, egun hautan, bederen aste oso batez, espantuz beterik agertu direla kazeta guziak. Jadanik mintzo dire: gizon handi, ongi-egille handi bat galdu dugula. Egia da hori.

Diote gizon hori apaldanik altxatu zela: larru-apaintzale baten semea, bere lanetik zenbeit sos bakar irabaziz bizi izana eta argitua Emeki-emeki, haro gutiz eta lan anitzez, bere burua ezagutarazi du azkenean.

Bizkitartean jakintsun handi zelarik, *ez zen medikua*. Behinere ez zituen medikuntzako tituluak hartu. Eta zahartu ondoan, berak irriz erraiten zuen: «Zer deraste, nik eriak sendatzen ditudala? Ez naiz eta mediku ere. Norbeit senda baneza nik nere eskuz, berehala jaun mediku horiek *prozoberbal* bat egin lezakedate.»

Bainan ez balin bazen ere bera mediku, argitzen zituen medikuak; eta bere irakaspenak utzi diozkate Pariseko mediku handi batzuei. Heien eskuz artatzen zituen ere aspaldi huntan eriak, bera zahartua zelakotz eta ezindua.

Ez dugu beraz zeren beldur izan bere sendagailua berekin ereman duela. Esku onetan utzi du. Badoazke beraz, orai arte bezala, zakur errabiatuek ausikiak direnak Pariserat. Han aurkituko dute Pasteur zenaren izena dakarren eritegi eder bat, errabiatik sendatzeko behar diren laguntza guziekin.

Horiek oro egiak dire. Bainan orobat egia dena, eta kazeta gutik aipatuko dutena da: Pateur jaun hori girixtinoa zela, zinezko girixtinoa. Bere lan guzien artetik erlijioneko eginbideak oro agerian betetzen zituen. Beti jarraikia zen elizako urrats guziei.

Hiltzerakoan ere, bere burua gaizki ezagutu duenean, berak bere baitarik galdatu du bere kofesorra, aspaldi adixkide zuen fraide zahar bat.

Berak deit-arazi du ere herriko jaun erretora, eta harenganik hartu ditu elizaren azken laguntzak.

Dohatsu horrelako bizitze on eta eder baten ondotik, heriotze girixtino bat egiten duena! Gizonen laudoriak laster ahantziko dire. Jainkoak diola hura baitan sineste ukan duenari ongi-eginen saria eta betiereko zoriona!

Guk ez dezagula behinere ahantz mende huntako gizonik argituena, ororen gogora, hedadura handiko gizona, mende nahasi huntan izan diren gizon zuhur, jainkotiarrenetik bat zela; Pasteur, errabiaren senda-tzailea.

Eskualduna, 1895-10-04



NAHI EZ DUTENENTZAT: BARTHOU

Gizon handiek ere batzutan erraten dituzte ele tipiak; eta hanbate-naz tipiago direla iduri dute, ba eta ere hala dire, zenbatenez baita gorago altxatua heien errailea:

Ezagutzen duzue Barthou, jaun minixtroa, Oloroneko deputatu gaztea. Ikustez ezagutzen ez duzuenek badakikezue bederen engoitik haren izena; ba eta zerbait gehiago ere haren aipamenaz.

Ezen Eskual-herriko gure deputatuek badute hartaz eta beren buruez espantu Harekilako adixkidantza bazaiote gure gizonei zerbait! «Nik Barthou adixkide dut; behar-orduan aski duket Barthouri hitz bat erratea. Asko eta asko laguntza ardiets detzazket Barthouenganik. Barthou eta ni; ni eta Barthou... nor ez gira gu? Barthou harat, Barthou hunat. Barthou alde duenak, Barthou lagun duenak, Barthou bere esku-ko duenak, zer indar ez du?»

Beraz iragan astean jaun hori Parisetik etorri da Oloronera; eta han bere herritar boz-emaile biarnesen aitzinean egin du mintzaldi bat. Mintzatu da bere buruaz eta bertzeez. Ele on eta tzar, xuxen eta makur, orotarik erran du.

Bere etsai guziak ezarri ditu lurpean ehortzirik. Eta nor uste duzue direla jaun horren etsaiak? Hek dire oroz gainetik dioenaz gorri beltzak, *socialistes, radicaux*, eta holako herradun bazter-nahasle guziak. Hek oro nahi lituzke... dioenaz, errautsi, gure deputatu hauk bezalako zenbaiten laguntzarekin.

Gorri-beltzak etsai dituenaz geroz, bera xuria ote da beraz? —Ez; ez eta xuriaren aldekoa ere. Gehiago dena, gaitzi zaio aditzea, xuriek badaukala den gutienik ere. Debruak hartzen du, holakorik aipatzen diotenean.

Behin baino gehiagotan errana zuen ja lehen ere, zer xedetako gizon zen xuriei buruz; baginakien gorri zela eta dela beti. Halere oraino berriz izan du erran gorri dagola beti, eta gorrien xede berak dauzkala.

Galdatu diote, zer dion iragan urte hautan gorriek egin lege hoitaz ihardetsi du hoik guziak onak zaskola; hoiende alde izan dela beti; eta minixtro deno, deputatu deno, hoik hola atxikiren dituela. Horra zer duen erran.

Gaizki mintzatu bada ere, nehork ez dezoke erran, ez dela bederen *garbiki* mintzatu. Bertze zenbaitek itzulika eta gorde-joko gehiago dute.

Hanbat gaixtoago beren bozak xede hortako gizonari emanen diozkaten boz-emaileentzat; jakinean eginen dute gaizki.

Bainan bertzerik oraino erran du Barthou minixtroak. Nola hau. Galdatu diotenean: zertako eta zergatik bada ez duen nahi eskoletan haurrek ikas dezaten erlisionea, *katixima*, ihardetsi du: hori egina da *katiximari* nahi ez dutenentzat.

Orok nahi balute katixima eskolan ikas dezaten haurrek, orduan araz legean eman lezakete Barthou minixtroak eta harekilakoek: eskolan ikasiko dutela haurrek katixima!

Bainan holetan ez dute nahi orok. *Nahi ez duten heien-gatik* da legea den bezala emana. Zer ateraldia.

Eta nahi dutenak? Hek naski gabe egon behar bertzeengatik? Ederra dugu! Horra gauza bat, berenaz ona, ezin hobea. Batzuek nahi, bertzeek ez: Zer egin? —Bego bazterrerat. —Bainan guzientzat on balin bada, eta ez gutienik nahi ez luketenentzat. —Nahi badu bada; fuera bazterrerat, ez dutenaz geroz orok nahi.

Ote da, ote ditake hori baino solas makurragorik? Bakar batzuen-gatik, orok jasan, orok sofri.

Ez da, bana bertze, ehunetarik bat, ez eta berrehunetarik bat, bere haurrei eskolan otoitzak eta katixima erakatsi nahi ez lioketenik. Emagun bat.

Halere balitazke, ez bakarrik hemen Eskual-herrian, bainan bana-bertze Frantzia guzian berrehunetarik ehun eta laur hogoi-ta hemeretzi aita boz-emaile, katiximaren alde.

Bozatarik baloa, horrela loake gauza. Eta zertako, zerentzat dire bozak, ez bada *majoritatearen* nahia behar nausi gelditu?

Bertzenaz, ez da bozik ez bertzerik, ez litake behar zuzenez nehon neholako *majoritate*rik zuzenaren kontra. Herri bateko gizon guziek nahi ukanikan ere Jainko-legea bazterrerat eman, zuzen kontrako legea litake; indar gabeko legea. Bainan emagun boz-emaileak direla nausi; emagun *majoritatearen* nahia dela lege. Iduki, jauna; eta nahiago baduzue, bardin hordago.

Ez baita ordean holetan lege-hori, eskoletako legea majoritateak behar egin. *Batzuk* ez dutenaz geroz nahi, heien gogora behar baita joan.

Eta noiz aditzen ditugu holako ahopaldiak? Errepublikan girelarik. —Eta noren ahotik? Errepublikako minixtro baten ahotik; ez denetz bitxi.



Majoritateak egiten futxo gobernamentua; lege guziak oro majoritatearen nahitik joaki; eta lege hori bakarrik hola, *minoritate* txar ez-deus batengatik?

Bainan arau hortan lege guti litake iraunkor; ote da ere orok nahiz, ororen gogora eginga den legerik? hala nola, zergen pagatzeko legea, kontrabandarik ez egiteko legea, bertzen ontasunik ez hartzeko legea bera... ororen gogorakoa? *Nahi ez dutenengatik*. Atx, jaun minixtroa.

Ikusten duzue noraino deramaken solas ahul, makur batek. Ez du, ez hortan jaun harek gogoan zuena erran. Zinez mintzatu nahi balire, erran lezakete; «Nahi dugu erlisionea kendu. Gal-arazi nahi dugu emeki-emeki haurren gogotik erlisionea.»

Beldur dire ordean, hola mintzatuz, jendea kexa dakioten eta asalda.

Horra zertako dabilzan batzu aitzakia edo estakuru bila, eta bertze batzu ixilik daude, golkoan dutena kanporat agertu gabe.

Xede onik duenak zertako ez ager?

ALBERT GOIENETXE

Gizon bat galdu du Eskual-herriak. Atzo zortzi, ortzegun goizalde-
ra buruz supituki ohean hila kausitu dute Albert Goinetxe, Donibane-
Lohitzuneko jaun medikua; Eskual-herri guziak Donibaneko auzapez
bezala ezagutzen zuen gizon kartsua.

Ez da ondikotz egun hautan bakarra, heriotze supitu hori; bainan
orotako handiena da, eta gehienik oro jo dituen, eta izitu. Hain zen jaun
hori bere herrian eta bertze asko ingurutan oraino behin eta behingo
gizontzat ginakana.

Berrogoi-ta-hamabi urte baizik ez zituen; eta itxurala, zen baino ere
gazteago emaiten zuen. Hurbilenetik ikusten zutenek zakiten bakarrik,
artaren beharra bazuela; baina berak bere buruaz baino gehiago baitzuen
ordean bertzeen osasunaz. Eta, erran dena, azkarraren itxura zuen.

Hortakotz ere, oro harritu ditu jaun horren hil-berriak. Bezperan
oraino Baionan izana zen, herritar laborari hanbat maite zituenen zuze-
nak begiratu nahiz; ez baituzen eperik, zerbeit ongi norbeiti egiteko
behin gogoan hartuz geroz, hura egin arte.

Adixkide batek, kara hitsa zuela oharturik, erran zion: ohart zadila
gero, zenbeit aldi, bere buruaz ere. Eta jaun medikuak irriz ihardesten dio
adixkideari: «Deus ez da hau; buruko min izpi bat; biharko sendo naiz
huntarik.»

Bihar gabe hila zen! Bizkitartean Baionatik etxerat itzuli zen; afaldu
eta berant solasean egonik oherat joan, gogo arin... azken aldikotz!

Goizean argitu gabe, hatzeman dute ohean hila; ez bertzeak ez eta,
menturaz, bera ere ohartu gabe hila; ordu berean hila izan balitz bezen
bero. Zer izialdura etxean, auzoetan, hiri eta herri guzian!

Baginakien aspaldi nor eta zer zen bere herrian jaun hori. Nor eta
zer zen Donibaneko hiriarentzat, ongi egile handi zela baginakien, gure
ustez. Bainan hil denean da ongi agertu, zenbatetaraino barna sartua zen,
ororen bihotzetan.

Ikustekoa zen egun hartan Donibaneko hiria; etxe guziak dolumi-
netan ziren. Ez batzu bakarrik, bainan oro bardin Adixkideak bezen ongi
hunkitauk ziren... etsaiak; hobeki erran dezagun, *ohiko* etsaiak. Ezen
hamabi urte huntan egin dituen ongi handiez bilduak zituen emeki-emeki
lehengo etsaiak eta oro; gizontasunik zuten guziak beretuak zituen, gaiz-



kiaren orde orori beti ongi eginez. Ez baita halakorik azkenean, bihotzen hausteko nola gaizkia ongiz garaitzea.

Ba egiazki garaituak zituen Goienetxe zenak, harentzat bertze orduz herraz beterik zagozin guziak; eta erdi garaituak zituen, erran nahi baita; *gizonki*, giristinoki; jazarkunde orde, laguntza eginez beharretan ziren guziei; eta den gutieneko mendekiorik nehoi egin gabe, beti ororekin ahalaz bakea bilatuz, eta batasuna.

Eta hain ziren oro bakeari jarriak non erranen baitzinuen, ez zuela hirian ez herrian Donibaneko jaun auzapezak adixkiderik baizik.

Hau ez dute orok errexki sinetsiko; bereziki urrungoek, lehengo gudu, gerla eta kalapita izigarrien aipamena oraino beharrietan eta gogotan dakartenek, nahi eta ez, uste dukete Goienetxe horrek bere aldekoak lagunduz, bertzeak larderiarenpean zauzkala. Ez, ez...

Eta behar dugu aitortu; zer diot? Goraki erran behar dugu: bera gizonki agertu balin bada lehengo etsaiei buruz, hauiek ere gizonki ohoratu dute, hil denean. Holetan gehienak aspaldixkoan eskuratuak zituen, ongi eginaren bortxaz. Baina bazuten halere zenbaitek halako ahalge bat, beren ezagutzaren erakusteko. Hil berria hedatu da ba? Ez da gizon bat izatu, ez xuri ez gorri, Donibane guzian, erran ez duenik edo erakutsi: zorigaitz eta bihotzmin zela herri guziarentzat, holako gizon, mediku eta auzapez baten gaitzea.

Ehortzi den egunean, are hobeki agertu da batasun hori. Mundua han zen, ahokian. Herri guzia, eta zenbat gizon auzo herrietarik! Baionatik beretik, gobernamentuko aitzindari gorri hoitarik asko; zenbait *judu* ere... alta Goienetxe zenak behinere guti perekatu zituenak. Hek ere han, gizon zuzen, beldurrik gabeko eta gogo azkardun bati ororen-ganik ohore zor zaiola erakusterat etorriak.

Eta zer ahokia ederra! Zer ixiltasun orok, hilaren etxetik elizaraino, elizatik hil-harrietaraino! Jaun erretorak elizan, eta bere lagun eta adixkide zaharrek hil-hobiaren aitzinean egin diozkate adioak.

Eder eta atsegin baitzen entzutea, herriko artzaina, predikalkitik goraki erraten: beti bere burua behar-orduetan erakutsi duela erlisionearen alde; bere obra on guzietan beti herriko lehen ezagutu duela, buruz, bihotzez eta eskuz ongiaren laguntzaile. Biek elgarrekin bat eginez, asko makur xuxendu dutela, ongi asko egin; eta batasun oso horri esker, gehiagorik eginen zutela, ez balu Jainkoak auzapeza bereganat deitu.

Gauza izigarria berenaz heriotze supitua! Baina jaun erretorak erran duena, Jainkoak ez ditu galtzerat utziko haren alde beren bizia, beren izaite guzia gudukan iragan dutenak.

Ez, ez da dudarik, Jainko on hura urrikaldu zaiola, herri handi batean, erlisionearentzat, ongiarentzat, hainbertze neke eta nahigabe luzaz jasanik, hil den gizonari; herri guzia bakean eta batasunean azkar utzi duenari.

Nork daki haren osasuna bera ez dutenez bihotzminek eta karrak higatu? Nehor ez gira mundu huntan burdinazkorik. Den azkarrenari buru hauste soberak azkenean kalte egiten dio.

Ez baita errex, egungo egunean, herri handi baten buruzagigoaren jasaitea! Berezi, haizea zure kontra duzunean? *Haiže alde*, nor nahik egin dezake auzapez baten lana. Zuk lan hura gaizki eginik ere, begiak hetsiko dituzte goragokoek. Makurra xuxenduren dautzute berek, edo kuku-turen... baldin heien eskualdeak balin badauzkazu. Nahaskeria pullitik baita bazterretan, holaxet kukutzen denik!

Baina *haiže kontra* doanak mila sare, arteka, pezoin eta ateka badi-tu iragaiteko. Den hutsik ttipienak, altxatzen diozkate. Nahi bezen zuher eta zuzen eta jakintsun izanikan ere auzapez bat, beti kitzikan ariko zaizko, burutik joan arazi arte... ahal badute.

Bakarretarik zen Goienetxe zena, egungo buruzagi diren bezalakoek burua ezin galarazi diotena. Etsitua zuten, harenganik ahuleziarik ardiestea. Gehiago dena, ja zenbait urte huntan, zena zenarentzat, onhartua bezala zuten. Azkenekotz etsi bat hartua, hobe zutela bakean uztea; behar ziren zer guziak egiten ziozkaten; harek bertzei, bertzeek hari. Nehor bezen entrada ona zuen aspaldixkoan kargudun xingoladun horien etxean ere. Hil denean askok erakutsi baitute, gorago erran duguna, ez zutela hastiro, etsai izanagatik. Bera zen jitez halakoa: buru azkarrak, eta bere hartan gogorra, baina ez hertsia Den etsaienari behatuko zion bi begietara erdiz-erdi, eta ele eginen lañoki.

Bazituen eiki bere itzalak, orok ditugun bezala; baina bere herria, hainbertze nahaskerienpean lehertua, etendua zagon herria, duela hama-bi urte bide onean eman, eta geroztik hunat, orok dakiten bezala erabili duenak, bazuen bere baitan zerbait onik ere, ez dea hala?

Lagun onak bazituela, erran gabe doa. Beharrik hor baitire oraino bizi, eta bipil, elgarrekilan hanbat ongi bidatu duten herriko etxearen zaintzeko. Baina berak dire gorenik erraile, bakea eta batasuna balin badiutze herrian, hari esker dituztela. Dirautela luzaz Donibaneko hiria-arentzat orroitzapen bihotz altxagarri hunen ondorioek!

Eskualduna, 1900-01-26



ORGATARA BAT LUR: DÉROULÈDE

Ez da batzuei gogoratzen ez zeienik. Badakizue zera... Déroulède, Charente departamenduko jaun deputatu kartsua? Nola izan den hamar urterentzat desterratua, badakizue? Panamako dakizuen ohointza, nahas-keriak apur bat agertu zirenean, jaun horrek ohoinen kontra bere burua erakutsi zuen azkarki. Lehenago ere ba, betidanik, tzarkeriaren etsaia izan da beti. Etzaio behinere laket izan azpijokoa, ez maltzurkeria, ez gezurra, ez eta deus-ere zuzen kontrakorik. Debruak hartzen du, gaixtaginak beren itsuskerien gordetzen ari direla ikustearekin Ez dauke orduan bere larruaren barnean. Ahora jina erranen deie muturrera, erdiz erdi; gero berari zer nahi gerta dakion, ez du axolarik. Behartzen baitzaio!

Ezen tzar guziek jaun hori begietan hartua dute aspaldian. Gogotik hil-araz lezakete, balute lotkiarik. Poxolu dutelakotz, eta den bezala erran dezagun, haren beldur direlakotz, gal-arazi diote Frantziako lurra, holtan hamar urterentzat. Hamar urtez behar da bizi Frantziako lurretarik kanpo, nahi duen tokian. Español edo italiano ala bertze arrotz gaixtagin batzu nola dituzte bi jandarmek hartu-eta, han harat eremaiten Frantziako zedarrietarik kanpo? Halaber da eremana izan, Déroulède gizon zuzena, gaixtaginen etsaia. Ohoinen etsaia bere sor-lurretik kanpo botatua. Eta nork? Ohoinek berek, eta heien kidekoek. Ez denetz bitxi, bertzeak bertze!

Hor dugu auzo, Espainia lur-hegi hortan, Donostiako hirian kokatua. Etsaiek jakin zutenean, berak erranik, Frantziako lurra hustu behar bazuen, horrateko xedea zuela, igorri zuten, gaixtakeriaz, hanxe harat, Frantziaren bertze bururat eta han gaindi Belgikarat.

Handik itzulian, ahal zuen bidez, etorria da horrat, berak hautatu egoitza hortarat.

Goraki dio, ez dela luzaz egonen geldirik; handik edo hemendik, nolazpeit oraino harrotuko dituela ohoin-kafiak.

Anartean, ez zezoketen eman holako gizonari etsaiek nahigabe minagorik, nola bere sor-lurraren gal-araztea Ezen itsutuki maite du Frantzia. Maite du bereziki bere herria. Laborari-nausi semea, laborarien artean sortua, hazia, handitua; heiekin bizi zen, ahal zuen guziez.

Haren pestarik handiena zen, oraino berri-berritan, ogi-joiteko egunetan bere herritar gaizokin aurkitzea. Bazituen eta baditu etxetiar batzu, bere hurrak balitu bezen maite dituenak. Ba eta heiek ere hura.

Ez da zeren heien artean sar nehor... ez orai ere. Nausiak nahiko duena beharko da han, haren ordain deputatu jarri. Gure «Paul» baizik ez dute aditzen hango laborariak, Paul baitu izena.

Alta ez dire bertzenen nehon ez direnak Charenteko boz-emaileak. Bainan bego beti laboraria. Makur doanean, ez doa hura, denik ere, bertzeak *bezen* makur; eta oneko eskualdeari emanez geroz, ez du parerik.

Bera ere Déroulède, nahiz gizon barne onekoa den, ez da itzalgabea. Behinik behin erlisionea uste dut *axal* duen; bainan duen hein hura ez du gordetzen, nehoen ahalgez edo beldurrez, bertze anitzek bezala. Eta gero, ez da erlisionearen etsaia. Ez framazon, ez holakorik deus. Urrun da! Ez detzazke jasan holakoak. Hartakotz dute bada tzarrek duten bezen higuin.

Bainan badituadixkideak ere; adixkide beroak, bera den bezala. Egun hautarik batez, adixkide on hoitarik batek igorri dio... Zer ote, zuen ustez? *Orgatara bat lur*.

Frantziako lurretik, burdin-bidez, bagon baten bete lur iragan da omen Hendaiaiko garan Derouledí buruz.

Aski duke lur hura, dagon etxearen ondoan hedatzea; nahi duenean holaxet Frantziako lurreen izanen da. Gehiago da gogoratzea!...

Ez bide du, lur-keta guzia Frantziatik heldu zaiola ikustearekin, gaizki irri egin; ez eta guti atsegin hartu!

Koplaria baita Déroulède eta koplari ederra, horra non duen koplari berri andana baten emaiteko geia. Gizon tzarren gaixtakeriaren ahanzteko, kanta dezala hanbat maite duen Frantziako, lurra. Lurrak bederen ez dio nehoi bidegaberik egiten.

Eskualduna, 1900-02-09



DABID JAUN APEZA

Gizon handiak ez dire beti mundu huntan haro eta harrabots gehien egiten dutenak.

Balin bazen gizon ixilik, bere buruaz guti hartua zenik, eta bizkitartean hedadura eta jakitate handiko gizonik, hura izan da Armand Dabid, jaun apez misionest zena. Iragan astean Pariseko kazetek ekarri daukute haren hil-berria.

Egun zortzi hemen *Eskualdunean* ere agertu da berri hori frantsesez, emaileak ziolarik: ondoko egunetan xeheki nahi lituzkela hemen aipatu jaun horrek bere bizian egin dituen lan ederrak Baduke zer aipa, orotaz mintzatu gogo balin bada.

Guk eskuaraz, guhauri eta gure eskualdun irakurtzalei doakigun heinean erran dezakegu, Eskual-herritik behinere jalgi diren jakintsun handienetarik bat zela Dabid misionesta.

Ezpeletan sortua 1826-ean, bazituen beraz 74 urte. Gazterik sartu zen *Lazaristak* deitzen diren misionestetan. Buruzagiek 1860-ean igorri zuten Chinako misionetarat. Eta han laster ohartuzitzazkon, ez bakarrik bere misionest lagunak, baina bazterretikako jaun argituak, bai hemengoak eta bai hango berekoak, asmu zorrotzeko gizona zela. Frantziako gobernanduak misionest horren aintzindarietarik ardietsi zuen: utz zezatela jaun apez hori, Chinako lur eta zuhain, eta belar, eta ihizi mota guzieren begiratzeri; gero guziak ikus arau hel-araz zitzan edo bederen ezagut-araz Pariseko jakintsunei.

Holaxet, Chinako bazterraren aldean-bertze, harat-hunataren egiteko behar zituen laguntzak eman zazkon Frantziako gobernanduak. Eta hainbertze argi ekarri zuen handik hunat lehen aldian, non bertze bi aldiz oraino geroztik igorri baitzuten toki beren hobeki ikertzerat eta betze batzuetarat ere sar bazitakeen, zoala, ahal bezen urrun.

Nork daki, hiru aldi hoitan zenbat neke, izerdi, gose eta egarri, zenbat barneko goihendura jasan duken han, jendaki arrotz eta askotan etsai heien artean? Entzun dugu ere bertze orduz, hangoek gaixtakeriaz pozoindaturik hil-hurran etorri zela behin gibelerat Berak holako guti aipatzen zuen, ez nahiz eiki bere buruaz mintzatu.

Dena dela, ooren buruan aspaldixe huntan osasuna higatua zuen eta Parisen bizi zen, bere misionest fraide lagunekilan. On zeno ez da lanetik gelditu. Kaperaño batean meza eman, zenbeit konfesio entzun;

bere fraide lagun gazte zaskienetarik apur bat erakuts; eta gero arte zuen guziez hirirat jalgi; ez aire hartzerat ez eta bazter ikusterat, baina bere ezagun gizon jakintsun zenbeitekin solas egiterat. Halakoez orok laket zuten harekin mintzatzea, anitz bazakielakotz. Erran duguna, lurraren axaleko ala barnagoko izaite zer guziez: harri, burdina, lur, ikatz, ur eta bertze... eta gero lurreko ala aireko ihiziez, xehe ala larri, basaihizi nongo nahikoez; azkenik erran dezagun lehenik erran beharra, ezen hautan zen omen argituena, belar eta lore, on eta gaixto diren guziez mintzo, aditze-koa zen!

Badire Parisen loretegi etxe batean anitz lore eder, Dabid izena dutenak, harek hatzeman arte ez baitzuten bertze izenik, ez zirelaket bazirela ere ezagutuak.

Gure jakinean badauka Baionan soldado aitzindari zahar batek... halako mahats ondo bat, Dabid apezak emanik, haren orroitzapen daukana —anbat artarekin! Lore bat badakar mahats horrek xoragarria, baina arno egiteko ez zinezoke eman bi ardit! Oro ezin batek ukan araz: lore ederra eta mulko gizona.

Xinako mahatsaz bertzerik ekarri baitu ordean handik Dabid apezak, Frantziako jakintsunen artean aipamen handia irabazi dionik. Jakintsunek berek hala diotenaz geroz, sinisteko ahal dire Berritan emanarazi zioten, ez segurki berak galdaturik, gobernanduak emaiten duen ohorezko sari handienetarik bat: *La croix de chevalier de la Légion d'honneur*.

Ez zinuen holakorik erranen hura ikusi-eta. Hain zen berenaz hola... furfuria guti zuena eta xehea, nor nahirekin zertaz nahi goxoki solas egitera zagona.

Urteak ditu behin Hazparnetik Baionara joan-jin egin zuela eskualdun etxeko-jau batekin. Bi-biak ziren buruz-buru karrosan. Bertzea harritu: zoin burutarik zeri lot ez jakin «sabantas» handi harekin bidean solas egiteko. Arratsean etxera eta, irriz zagolarik zion: xoratua atxiki zuela bide guzian jakintsunak jakin-gosea, ele ahul bat gabe; anitz gauza bazakiela ageri ba, baina oro aditzelearen heinera ekartzen jakin.

Alta karrosan baino bideko lagun maitagarriagoa zen... oinez. non nahi bazterretarat so gelditua. «Zer da hau? Behazu belar huni; hau hula eta hula da; hementxeko hau aldiz pozoin errabiatua da. To, hauxe da marmutxa pulita! Hau holako da; badire hautan onak badire gaixtoak».

Non nahi, zuk eta nik lur hutsa edo lapar sasipe bat baizik ikusiko ez ginuen tokian agertuko zaizkitzun, bat bertzearen aldean, bi, hiru, lau ikusgarri. Ez, ez zoazin galduak, harekin iragan orenak.



Atsegin zuen berak ere zure atseginaz ba eta ere zenbeit aldiz zure izialduraz. Egun batez adixkide batekin, zoan Mondarraingo mendiarri gora Harat hunat solas eta so doazilarik, bertzeak, suge baten gainean zangoa eman balu bezala, jauzi egiten du hemendik hanxetara, oihu batekin: «Zer duzu?» dio galdatzen Dabidek; eta hainbertzenarekin ohartzten da *musker* batek duela bertzea izitu. Irriz badoa muskerraren ondotik, sasipez harripe; eta emekiño eskuratu duenean, ongi perekaturik ingurartzten du bere mokanesaz, eta ezartzen bizirik sakelan, etxerat eramaiteko. Gero hasten zaio lagunari, erdi trufaz, erdi zinez, erraiten: «Zeren beldur zinen, ala muskerrak ausik; sugandola ferde bat da muskerra; ez du gehi-ago egiten ahal, ur-hileko aratxe-buruek baino. —Eta *harrobiak*, hura ere ferdea baita? —Ferde eta ez ferde; gorri-ta hori, asko marra eta tita badu harrobiak ferdeaz bertzerik. Hetan ere baditezke pozoin gabeak, nahiz badiren pozoinduak; bainan gure tokietan halako guti... balin bada ere».

Hau har bezate gogoan uste dutenek musker guziak harrobi direla, eta harrobi guziak pozoindu.

Bainan nola jalgi-araz zenbeiten burutik, hurrean zaharretarik entzun eta han kokatua dutena: baizik eta harrobiak jauzi egiten diola gizonari lepo gibelera; eta *garkotzetik* sartzen zaiola gain-behera?

Ez da erraiteko baizik, gauzak diren bezala dazkienak ez duela muskerren ez eta bertze edo zoin mamu hortz gaben beldurrik; eta aldiz deus ez dakienak har dezakela sugea aingiratzat eta aingira sugetzat. Muskerrak ekarri gaitu, huntara. Hitz bat oraino Dabid jaun zenaz. Erran dugu zoin zen ixila eta xehea. Bainan bera bere buruaz hartua ez bazen, haren herritar adixkideak eta guziz ahaideak hartuak ziren hartaz, zuzen den bezala haren izena bera hin handi zaukaten non egun batez, badu hogoi-ta zenbeit urte, haren ahaide hurbil batek pario bat egin baitzuen Eskual-herritik Parisera letra bat hel-arazten ziola, hitz hau bakarrik gainean emanik: «*Monsieur Armand David, Paris*». Labur-laburra, karrikaren izenik, ez etxearen lumerorik gabe. Bertzek irri, bainan harek parioa irabazi. Letra heldu, xuxen, bere xedera.

Erran behar da bertzei eder bazitzaioten harekilako ahaidetasuna, bera ere jaun hori, bihotzez atxikia zela bere odolekoei. Haren atsegin handienetarik bat zen, noizetik noizera zenbeit egunttoren iragitea hemen sor-herrian bere heiekin.

Egun ortzegun goizean, azken hitz hauk hemen emaiten ari girelarik, hil poroquak eman-arazten diozka, Ezpeletako elizan, Dabid jaun mediku, herriko auzapez, hanbat maite zuen anaiak.

Eskualduna, 1900-11-23

DIHARASSARRY APEZA

Zer den gutaz! Eta zeri gauden gutien ustean! Badakigu, erraten ere dugu, deus ez girela; egun sendo eta azkar, biharko hilak. Kaska handi bat buruaren gainera Jinkoak igortzen daukunean, orroitzen deus ez girela; amets labur bat dela gure bizia. Eta gero, ahanzten.

Heriotzeaz bertzerik ere ikusten dugu mundu huntan gertatzen, uste ez ginuenik. Nork erranen zaukun, duela zortzi urte! Orzaizeko jaun ertorarekin ginabiltzalarik herriz herri, etxez etxe, harentzat boz galdez... egun batez ikusiko zela hemen *Eskualdunean* orduko gure etsaia, edo bederen etsaien gizona, itxura guziez heiekilakoa; gure aldeko gizontzat ezagutua; bere deputatu lagun andana batekin itzulia ikusiko ginuela oneko alderat, agian zinez eta betikotz den bezala Morroxko Harriague?

Eta aldiz gure adixkide handi deputatu gei apeza, hainbertze harat-hunat ibili odoan, oraino gazte eta azkar, osasun betean zelarik, bere jin-kozko lan handiei buruz oraino behingo gizon eta erretor iduriz, ikusi behar ginuela nehork sekulan amestuko ez zuen tokian, mando itsu batek lehertua, buruan jorik nork erranen zaukun?

Jainkoak bakarrik daki zer ari den eta zer daukan guretzat. Oro haren eskuetan gira.

Ez ginuen ontsala, behar-bada, solas huntarik hasi behar, Diharassarry apez on, argitu eta kartsu zenaz hemen mintzatzean? Zertako ez ordean, ohiko bozen urteburua dugunaz geroz? Egun hauiek ja, orduko ez orroitz-arazten ginintuzten. Are gehiago, apez gaizoaren hiltze izigarri hori gertatzearekin.

Bertzalde, zenbeit aldiz, geroztik gogoan erabili duguna, hemen erran dezakegu. Egun bero nekegarri hetan ikusi dugula hurbildanik apez hori, bere bizi guzian izan dena: Jinkoarentzat haren etsaienganik zer nahiren jasaitera beti zagola; bere buruaz orroitu ere gabe; aditzen zituen oihuek, trufek, mehatxuek, deusek den gutiena ez zuelarik gibelatzen, bere eginbide zaukanaren egitetik. Eta zer gogo! Ari ba zinez, eta ibilki bere ahal guziaren egiten, bainan gero gertatzen zena gerta, ziolarik: Jainkoak ez dauku bertzerik galdatzen, baizik ere harentzat gure ahalaren egitea Ez dire ez, egun hautan gure etsaiak ere ezteietan! nausitzen bazauzku ere, hoik beren eta bertzen kaltetan dabilta. Guk aldiz oraiko alfer idurizko urrats hauk oro hatzemanen ditugu egun batez gaineko



harentzat eginak, ba eta saristatuak. Uste baino lehen behar zituen hatzeman!

Ez dukete orok ahantzia, nola zerk emana zion gogora, deputatugei agertzea. Kasik azken egunak ziren eta nehor ez nahi, haize kontra, lanetan ditaken idorrenari lotu.

Adixkidek berotu zuten. Eta erran behar da: ez zuen hanbat berozearen beharrik, edo zoin eskualde, Jainkoarentzat indar baten egiteko. Egundaino ez bide zuen amestu ere, deputatu izaiterik. Bainan bizpahiru adixkide (eta ez nor nahi) besotik lotu bezala zitzaizkion; baginakike xuxen errateko non eta nola ere. Hots, Diharassarry, nehor ez denaz geroz aitzinatatu nahi, zuri doakizu hor zankako baten emaita. Nahuzu izan gure gizon? Huna non garen gu zure. Berehala bildu zuten. Apez bezala holako lan bati lotzeko behar zuen baimena ere ardietsi; eta bero-beroa berehala hedatu berria.

Erran behar da, nehor ez zela bertze aldetik ere oraino agerturik. Baia ba? apezaren itzala ikusi orduko tarrapatan hor Baionara bildu ziren gorriak, eta berezi zuten beren gizontzat Harriague, Hasparneko jaun mera, jadanik aitzineko boz-aldian *Labaten* kontra nausitzea gutitarik huts egina. Oraikotik gainez gain irabaztea seguru zautaten.

Handik haratekoak orok badazkitzate, nahiz ez oro. Ez behar ere; bizkitartean edo zoin zeretean baino gehiago, holakoetan bakotxari berea badoako; eta solasean garenaz geroz, baditugu hemen bi hitz errateko.

Apezaren sustatzaiterik bat izan zen Donibaneko auzapeza, Goienetxe zena. Hura ere bat, bere erratekekoekin, hau bezala; egungo egunean nehor guti baita haren eta hunen kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilo bat ederra utzi baitute, nekez-nekez betetzekoa.

Ez ziren bertzenaz batere elgar iduriak; guzizki, ez elgarrekin uztartzekoak. Xede berak, osoki berak izanik ere, beldurtzeko zitaken, elgarri hurbil, ez zirela, berek nahirikan ere, hiru hilabete makurtu gabe joan ahalko. Bederen ardura ukanen zuten bitarte norbeiten beharra. Hain ziren biziak eta bakotxa bere hartan, osoak.

Ez dut erranen orotaz hein berekoak zirela ere. Batek gaizkiaren herra bertzeak gaixtaginena. Buruz, amarruz eta askoz, biga ziren; eta bizkitartean...

Bizkitartean bazuten biek hauxet, egungo egunean bakan ikusten dena: bata ez bartzea ez ziren buru apaltzaiterik.

On edo gaixto, omen dugu hori Eskualdunek. Hala diote bederen gutaz mintzo diren urrunago arrotzek. Egia? Noiz nola. Ez ote dugu, aipamen horren begiratzeko, holako zenbeiten beharra?

Dena dela, behinik behin orduan hitz gutiz egin zuten apez kartsuak eta auzapez azkar, beroak elgarrekilakoa. Hitz har, hitz-eman, berehala lehen urratsei lotu ziren, ginen, batzu bertzen ondotik, laguntzaiterik.

Ez ginelarik zer zitzaukun erraterat aitzinetik deituak izan, berehala eman ginioten, bihotz onez, ondotikako baia, eta gure ahal guziz egiten ahal ginuena egin. Aitortu behar dugu: neholere ez zitzaukun iduri nausituko zela. Berari ba. Uste gaizoak, bera dena kar eta leialtasun zelakotz, bere iduriko leherra gizon hatzemanen zituela, multzoka, herri guzietan.

Hatzeman ere zituen eta ziozkaten adixkidek frango, non egun hetan, haren ahotik ardurena entzuten ginuen eletarik bat baitzen hauxe: Zer nahi gerta, jende onik ere ikusten dugu han hemenka zokoetan. Girixtino fededun azkarrak badire oraino, nahutena erranik eta eginik ere gure erlisionearen etsaiek. Egia, ez balitu *on bat zen* tokian bi eta hiru ikusi. Bere bihotz onak eta gizontasun zabalak egiten zion hori.

Hastapenaren araberrako izan ziren ondorioak. Heldu ahal izan zen tokietan hazi ona erainik, bildu zituen 3.779 boz, 5.351 bozen kontra. Donibaneko kantonamenduak eman zion esku-gain handia. Bertze kantonamentuetan gibeletik zen; bertzeari hurbilenik Bastidan, eta urrunenik Bidachunen.

Canbok eman ziozkan 173 boz; bertzeari 175. Bi boz gutiago beraz erretor ohia. Bere sor-herri Saran galtzeak baino anitzez min gehiago egin zion haren bihotzari, bere Canbo maitean ez nausitzeak.

Arimetan baitziren haren erroak, lurrean baino azkarkiago sartuak Izaitze hala, eta ustez are gehiago, bera zelakotz arima osoki onekoa.

Bertzalde anitzek hitzeman zioten Kanboarrek boza. Aditzekoa zen gaizoa: «Holakoak hitzeman, halakoak hitzeman». Eta harek zabal-zabala oro sinetsi.

Ororen buruan, hura ezagutu dutenek erreki sinetsiko dute, nehorrentzat ez duela herrarik den gutiena egundaino izan.

Orzaizetik abiatu, bere populuari erranik otoitz egin zezaten harentzat; bazoala «Jainkoarentzat indar baten egiter»; zangoa non emaiten zuen, ez zeri zagon gogo eman gabe; bere eginbidea bete zuena ba? Itzuli zen, bihotza deskantsu, bere Orzaizeko xoko maiteat.

Zenbeit aldi geroztik erran baitu: ez ziola Jainkoari bertzerik galdatzen, baizik ere Orzaizen bizitzea eta hiltzea.

Hil da: hetsi dire haren begiak. Digula Jainkoak, haren ohiko etsaien begiak, ja apur bat idekiak, idek ditezen Frantziaren eta Eskual-herriaren behar baitzepadakoek gainerat, gero-ta gehiago.



Nehorentzat egiten ez duguna, hil hunen bizia, hemen aldi batez emaita orde, zatika deramagu. Gutartean zelarik ere bazaukan, asko giseta, eremu puska bat. Ez bizkitartean *Eskualdun* huntan.

Bizirik eskas egin badauku, goza dezagun bederen hilik! Bertze aldian mintzatuko gira bakarrik apezaz. (*Eskualduna*, 1902-04-25)

Boz eguna zelakotz, azken aldian, mintzatu gira ohiko deputatu geiaz luzekixago, bertzenaz eginen ginuen baino. Solasak ekarri gitu, zenbeit xehetasunetan sartzeraz, ez omen baititugu oro ororen gogorako erran. Ba, hori sinesten dugu! Ez ginuen ere, zinez egia errateko, bertzerik igurikitzen. Lan huntan horri ez dagonak ez dirauke luzaz.

Bizkitartean ez daukagu, hala ez denik erran dugula; ez eta erran behar ez ginuenik. Kartsua zela erran dugu ezin gehiago. Egia. Deusen, ez nehoren beldurak ez zuela hura gibelatuko, Jainkoarentzat bere ahal guziaren egitetik, erran dugu. Egia. Bera osoki zuzena zelakotz, bertzeak ere hala zauzkala erran dugu. Egia. Goazin huntarik has egungo mintzaldia.

Ez bakarrik deputatu-gei batek, bainan egungo egunean non nahi eta zertan nahi, behar du gizonak amarru, itzuli, hots, maltzurkeria eta iziltasuna. Bereziki jende asko bihurrirekin egitekorik duenari behartzen zaio hori... bertze zerbaiten eskasean. Harek aldiz gure arabera deusik ez zuen eskas, hori baizik. Buru ona, bihotz ona, jakitate, gizonari eta apezari doazkon on guziak nasaiki emanak ziozkan Jainkoak; bereziki kar bat ongiarentzat, eta bere harat-hunat guzietan, solas ala urrats, gibel-gogorik ez eta gibel-xederik gabeko *leialtasun* bat halakoa, non deus ez baitzuen gordetzekorik, eta ez baitzitzaion neholere iduri bertzek ere behar zuketela harekin.

Hortarik dator, oro erraten baitzituen zabal-zabala, eta oro sinesten.

Oro erraten: ez nehoi bidegabe egitekorik; ez da nehor behinere haren ahotik galdu. Bainan zenbat zer ez da, hobeki dagonik, arno ona bezala, behar baino lehen *ideki* gabe? Harek, zakien hura eta uste zuen hura erranen zauntzun beti, han berean, buruz buru, hitzez hitz, berehala.

Itzal bat hori, nahi baduzue, bainan itzal ederra, biziki bakan ikusten dena egungo egunean... kasik nehork nehon nehoren gogoaren berri badakiela xuxen eta segurki ez baitu erraiten ahal!

Oro *erratea* baino ederrago zauku oraino oro *sineste*a. Guziz gizon argitu batentzat; hura zen bezala, hedadura handiko gizonarentzat, hai-

nitz ikasi eta ikusi duenarentzat; zer duzu ederragorik, nola baita nor nahik hau edo hura erran, eta berehala sineste?

Bere kaltetan sinestsiko badu ere, holakoak erakusten du, zoin den egia, bakarrik eta beti egia atxikia, oro hala direla iduri zaionaz geroz.

Itzal ederra, diogu berri ere!

Hau ere bazuen, solas huni darraikiona: egon den tokietan, itsutuki estekatzen baitzen hango jendeari, bereziki jende apalari; ez baitugu nehor ezagutu, bere artaldearen gainean begia beti harek bezen erne zaukanik, eta bizkitartean ardiak zoin beren tokietan banazka ikusten zituelarik, iduri baitzitzaion kasik oro Jainkoaren eta bere gogorakoak zituela Multzoan hala hulakoak izanik ere, banazka, *hobeak* oro. Elizan bere populu guziari mintzo zelarik, behar zen larderia bazaukan; erranen baitzinuen garratza zela, eta iziturik zauzkala oro.

Eta bizkitartean urrikalmenduz betea zen makurrentzat. Gehiago dena, banazka mintzo zelarik batzuek eta bertzez (laket baitzitzaion biziki, bere heietaz mintzatzea) aditzekoa zen, holako etxeko nausiaz edo etxeko andreaz mintzo; edo etxeko semeaz edo etxeko alabaz —oro banazka ezagutzen baitzituen ere—; diot, aditzekoa zela gaizoa, solasak noiz nahi zeramalarik, aita on bat iduri, bere haurrez, herriko haur maitez, hango gazte batzuek eta heien burrasoz laudorio egiten: «Ah! etxe hortan badire haur batzu, xutxko altxatuak! Bada hor emazte bat, kanpo eta barne, etxe inguruak hein bat artarekin dauzkanak! Holako etxean bada gizon bat, bere eginbide guziei nola jarraikia! Bereziki elizako urratsei, goiz ala arratsalde. Bada hanxet gizon gazte bat, elepide gutixko emaiten duena». Eta holako zenbat! Orori zerbeit eskualde onik hatzemaiten zeien. Eta zinez mintzo baitzen gero: ez batere aho-berokeriaz. Arimak maite zituelakotz, eta berak arima ona, osoki ona zuelakotz, eder ikusten zituen banazka oro. Itzal gaixto zerbeit zuketeten hetaz bakanago mintzo zen, eta beti halako bihotz-min batekin, higuin baino urrikariago zituela erakutsiz. Ardurago eta gogotikago aipatzen zituen herriko jende onak.

Bazuen ere, erran behar da, nor eta zer aipa Bertze kazeta batean irakurtu dugu, urteak eta urteak joan ondoan, oraino mintzo zela bertze orduz katedraleko bikari zelarik Baionako inguruetan eta hirian berean ezagutu nekatzaile girixtino on, laborari, sehi eta holako batzuek. Gure orroitzapenak geroztikakoak dire; bainan zenbat aldiz ez dugu entzun Canboko familia batzuen laudatzen; berek uste baitzuketeten, ahal zuela heien erretorak hetaz orori mintzatzeaz bertzerik gogoan! Zenbeit aldi kezaturik ere, beti bihotzetik mihira nor edo noren laudoriak zoazkon.



Ez zen harentzat halako jende onik (banazka), nola Kanboarrak... ez izaitekotz, geroxago, Orzaiztarrak. Han oro kasik laborari, gogokoa-goak baizik ez zituen, baitzakien erlisionea ez dela nehon azkarrago, laborari familia zaharretan baino. Orok dakiten nahigaben ondotik herriz aldatua, laster ahantzi zituen orroitzapen kirets guziak; lotu zen lanari, deus izan ez balitz bezala, edo kartsukiago. Berehala elgar hartu zuten herriak eta erretorak. Haren arta eta grina, bere artaldearen goiti-behiti guziez! Erran dute asko eskualdetarat asko izkribu eta urrats egin duela, herrian sal gei zitezken arno eta bertze mozkinen sal-bide onak hatzeman nahiz. Ez zelarik bera laborari semea; eta den bezala errateko, haren gogoetarik handienak lur-lanaz goragokoak zirelarik, bazakien, behar zenean, bertzen heinera jausten. Badago askotan auzo batzu beren alo-rrerako hazi edo zerbeiten eskasean ikustearekin, erraiten etxeko buruzagier: «Emazue lanean, hor bidez-bide diru xahutzen eta denbora galtzen ibili gabe. Ni bainoa egun hautarik batez zuek eskas duzuen hori den tokira, ekarriko dautzue».

Erran bezala egiten zuen.

Hauk bertze batentzat deus ez litazke; harentzat ba, ez zelakotz berenez hortakoa.

Oro baauzkan gero, arau berean. Herritik sehi joanak eta joaiteko xedetan zirenez arta zuen, orroitzu oro bereak zituela. Baitezpada behar ziruen jakin heien berriak, burrasoetarik, ba eta zauden tokiko ezagun on zenbeitetarik.

Halaber zaukan begi, bihotz eta esku, lotkiarik balin bazuten, herri-rik soldado joan mutiko gazte. Ez baitzeien zenbeiti itsusi, jaun erreto-raren letra ukan zutela etxerat gaztiatzea!

Erran gabe doa, bere kontseilu onekin bertze zerbeit ere igortzen zuela.

Emailea zen biziki; eta hartakotz jende behar askok uste zuketen biziki aberatsa zela, zeren eta oro emaiten dituena beti aberats baita... bertzentzat, beretzat doidoi... heltzekoa baizik izanen ez badu ere. Bizkitartean haren etxea beti orori zabal-zabala idekirik zagon.

Adixkidei beti bigitarte on eta ongi etorri. Zertako ez dugu hemen erranen, haren atsegin handietarik bat zela igande arratsaldetan, bezperak ondoan zenbait gizon biltzea bere mahinera, eta han heiekin zenbait mus-partidaren egitea? Lagunak aldizkatzen ahal bazituen, atseginago baizik ez, orori bardin atxikia zela erakusteko; hala baitzen ere egiazki. Bihotzez atxikia; eta guzier, handi ala ttipi, gazte ala zahar, beren behar-ordu guzietan arimako ala gorputzekoetan, jarraikia.

Eta beti edo maiz apezak azken hitza... ez beretzat, bainan Jainkoarentzat, eta arimen onarentzat. Edo zoin solasetarik Jainkozkoetara zoan azkenean beti. Zoin gogozki eta ederki! Apur bat luzaz hurbildanik ezagutu dutenek balakiteke erraiten. Aho ederra baitzuen beti konpainian, buruaren eta bihotzaren araberkoa.

Uste ginuen hemenxet egun burura hel huntazko solasa; bainan ez dezakegu. Laburtuz behar ginuke ari, *hoberenean*; eta ja hein hunen kokatzeak ere lanak emanen diozkate gure langilei, hoinbertze berri or dituztelarik aste huntan emaiteko!

Egun zortzi beraz, Jainkoak nahi duelarik, hunen ondarra. (*Eskualduna*, 1902-05-02)

* * *

Berak orori, egun zortzi erran duguna, hain begi onez behatzen, eta nola zen bada, nola zitaken hura bertzez gaizki ikusia, eta zenbaiten mihietan gaizki erabilia?

Dugun ihardets berehala: egundaino nehork ez duela harentzat onik baizik erran ahal izan. Bizian ondolik zituen kazetari eta erlisionearen etsai makurrenek berek laudatu dute, hil ondoan; eta handizki laudatu, kazeta frantsesak irakurtzen dituztenek dakiten bezala.

Erlisionearen etsaiak. Hemengo gure ele guziek baino argi gehiago daukate, solas huni buruz, bi hitz horiek. Ezen egundaino ez du harek, bere nahiz bederen, bertze etsairik ukan, baizik ere erlisionearen etsaiak. Oh! hek ba; hek beti, hek oro etsai zituen, eta orotan.

Bizkitartean hek ere ez baitezpada berak, bainan bai heien egintzak eta solasak. Arimei kalte egin zezoketen irakaspenak eta urratsak ez zitzaizken ixilik jasan.

Higuin zuen gaizkia; higuin are gehiago gezurra; gure sineste sainduari edo giirixtino eginbideri aiherriz zirenek haren eremuetan, segura zuten, eta zalu gero... berenen aditza!

Zenbeit aldi entzun diogu: gaizkiari behar zaiola bihurtu ongia; eta gezurrari egia. —Beti, beti? —«Bai beti», zion burua altxatuz eta boza behar-orduetan finkatzen zakien bezala finkatuz; beti emogun, emozue gezurrari egia sudurrera. Ez bietan, ez hamarretan; ixil-arazi arte; tapatu arte».



Hobeki eginen ote zuen zenbeit aldiz gaizki mintzo zirenak ixilik uztea? Batzuen arabera ba. Guk aldiz uste: gezurak eta gezur hedatzalek egungo egunean duten baino kreit gutiago luketela mundu huntan, harek bezala, bi eskuz beti gora baginauka orok orotan, eta nor nahiren aitzinean, egiaren bandera.

Hara beraz *nor*, edo hobeki errateko, *zer* izan diren betidanik haren egiazko etsaiak.

Bertze etsairik ez du harek ezagutu. Ez Baionan, ez Kanbon, ez Orzaizen, ez nehon, ez da *bat*, heren *etsai* zirelakoetan, gizon agertzeko on denik Hoztasun zerbeit harekin usan duketenek berek aitor lezakete: berak zirela, guti edo aski, hutsean; zeren eta beti harek gaitzets zuen hura, zer nahi izan zadin. Hurbildanik edo urrundinik arimentzat galbide baitzen. Hori segur. Gaineratikoan, bertze edo zoin zeretako, ba eta bere hartan ere, makur bila berak ez zabiltzanendako, hura bezen bihotz onekorik guti.

Guti, hari bezen eder eta laket zitzaionik bakea, batasuna, elgarreki-lako bizi ona: etxean eta auzoan, familietan, herrian, zahar gazten artean eta oroz gainetik herriko buruzagien artean. Ahuleziarik ez zuen nahi; bainan ez behar gabeko gerlarik ere. Hau hemen erraten dugu bertze askorentzat bardin egia litzakena, zertako? Zeren ez baitute orok beti harentzat hola erran.

Zioten bertze orduz, harek egin ongi handiak eta bereziki harek erraten zituen egiak jasan ez zitzaizketenek, zioten: harrabotsa laket zitzaiola. Deus ez ele.

Eta naski arima pozoindatzen izilka esku azpiz ari direnek harrabotsik ez nahi?

Zioten ere zenbeitek: bere buruaz hartua zela. Eta gero? izpi bat hala izan balitz ere, ongi gutiago egin ote du? Eta nor da deus itzalik gabe?

Bainan ez zen eta ere hala. Bertzeak ba: ahaideak eta adixkideak handizki hartuak ziren hartaz. Gutia goz dire hartuak zenbeit!

Bazakielarik nor eta zerentzat zaukaten, bera bere buruaz baino hartuagoa zen bere estatu sainduaz, *apeztasunaz*.

Eder zitzaion eta handi, oh, guziz handi, lur hunen gainean Jesu-Kristo Gure Jaunaren ordain izaita; arimen buruzagi, argitzaile; arimen aita.

Halere *ohoreaz* baino orroitago zen apeztasunari darraizkon *eginbide* handiez, bai beretzat eta bai bertzentzat. Erlisonea nahi zuen ikusi, ez bakarrik itxurazkoa, bainan zinezkoa; girixtinoaren buruan eta bihotzean

erroak azkar eta barna eginik, haren bizi guzia daukala bide xuxenari erdiz erdi, arimen etsaiarekin hautsi-mautsikan ari gabe.

Nork erranen du xede makurra zuela? Ez eta ere xede horri buruz harek betidanik eta gero-ta gehiago zuen karrarekin, ele gutia goz edo bertzela mintzatuz ongi gehiago eginen zuela errateko on denik nor da?

Behar ote dugu aipatu haren etsaiak —oro bat erran: *erlisonearen etsaiak*— noiz nahi hartaz mintzo zirelarik mihian zutena: hura hain gizon argitua, hain talendu handiko apezza, ororen buruan Orzaizeko zokoan zela erretor? Behinik behin ez da hain zokoa, Orzaize; eta hortarik beretik ageri da etsaiak berek ez zaukatela halere hari zoakon tokian.

Berari zer zitzaion hortaz erran dezakegu, baitakigu beraren eta adixkiden ahotik. Fedezko begiz gauzak ikusiz erraten zuen: nongo nahi-ko arimak arima balio duela. Zemoten hari eliza bat, arima jinkotiarrez inguratua, barnez eta kanpoz eder zagona; igandetean, gain-behere, nasai-ki bete, Jainkoaren laudorioen kantatzeko... ez zuen bertzerik galdatzen Eta Jainkoari esker, hori bazuen Orzaizen. Badakite bertzalde Orzaiztarrek berek, heien artean osoki lakekua zela.

Bertzalde, haren gogo maizenik eta goxokienik gutarteko jendearekin zen. Hedadura handiko zelakotz zenbeit jende handirekin ere bazaukan, bainan ez haren jakitateari eman zitzaion bezenbat. Tuntik ez zen handikaria jitez. Betidanikakoa zuen hori; nahiago laneko jendearekin atxiki, haurta, goragokoekin baino. Nondik ez zitzaion beraz Orzaizen hari laketuko?

Uste zuketenek hura bere tokiaz despitean zagola, ongi zakiten haren berri! Ez bide du horrengatik oren laurden baten odol gaixtorik egin! Askiz zen haren ikustea, noiz nahi, astelegun ala igande, bere artalde maitearen erdian.

Nor nahirekin ele; bakotxari beretik, bainan beti ele ona, buruak eta bihotzak emaiten zion bezala. Etxeko zaharretarik haur ttipienetaraino, bazuen ororentzat hitz bat. Ez zuen nahi nehor izan zadin herabe, haren aitzinean. Eta zena zenarentzat ezagutuz geroz, ez ziren ere hala, non ez zuten hari gaitzi zakion zerbeit huts eginik. Orduan?... Orduan ere bazakiten haren larderiak ez zukela nehorrentzat xede, ez ondorio gaixtorik.

Hain zuzen, bi hitzez errateko, *naturala* eta *surnaturala* eta oraino laburkiago hitz batez: *apeza*.

Apeza zela, osoki apeza erraitea ginuen hastetik gogoan. Hortarik behar ginuen ere ontsala hasi gure solasa. Dugun bederen ez ahantz, aipatu ditugun on guziak, edo hoberenak, huni esker zituela Sortzetikako dohain eta geroztik ikasiak oro Jainkoari eta jainkozko gauzetar itzuli-



rik zauzkan. Haren gogoa eta bihotza goiti zagozin idekiak, zabal-zabala. Fede bizia zuen eta osoa.

Egun zortzi erran baitugu, gizonak askotan diren baino hobeak zauzkala; non nahi jende zuhurrak, zuzenak, onak ikusten zituela, erran baitugu... zenbat handiago ez zen, azkarrago eta barnago Jainko guziz ona eta *Egia* bera denaren baitan harek zuen sinestea? Horrek emaiten zion, biziskoa izanagatik eta gaizkia higuin zuelarik, kofesor hoberenetarik baitzen; arimen gidari behar orduan garratz bezen ezta beti; urrikal-mendutsua.

Eta beti ari; zen toki hartan beti jarraikia, ahal zuen ongi guziaren egiteari. Elizan zen bereziki ikustekoa, oro zauzkala: prediku eta katixima, kantu eta musika. Zenbeit kontseiu zuhur eta sarkor emanik joan da gaizoa, oraiko gaztek zahartu-ta ere ez ahanztekoak! Pesta bat zitzaion bere apez lagunek deitzen zutenean, jubilau edo adorazione; ala kongregazionea ere! halaber seroren eskola, geroko ongiaren hazia han zuela zakielakotz.

Mutiko gaztek ere bazakiten, herrian ala herriz kanpo izan ziten, hurbilik ala urrundarik, norbeiten begi-beharriak eta bihotza, heien urratsi zagozila.

Ez zuen oraikoa! Baionatik Kanborat igorri zutenean, boza kasik galdua zuen, sobera beharturik, bertze lan guzien gainera, hiriko gizon gazte batzu elgarretara bildurik, heieri kantuz erakusten, pestaburu handietan katedralako ofizioen kantu ederrez apaintzeko.

Hirietako gazteria deus onik ez dela errana baita, harek nolazpeit zerbeit onik hatzemaiten bide zion, edo *emaiten*.

Oroz gaintetik laket zitzaiona zen; haurrei katiximaren egitea, bereziki burrasoen aitzinean igande arratsaldetan. Haurrak oro begiak harmaturik hari so zaudelarik, bati galde, bertzeari galde, jostatuz bezala argitzen zituen.

Buru ahulak eta ikasle hurriak eztitasun berezi batekin, kexatu gabe.

Aitortzen zuen katiximako denbora beti laburregi zitzaiola, eta ahal zuenean, gogotik luzatzen zuela izpi bat, haurrak ohartu gabe (?). Harek egin zezakena zen hori, zeren ez baitzuten harekin bazterretarat beha egoiteko arterik; ahurrean bezala baitzauzkan, txut eta erne.

Xehetasun hunkigarria! Kartier urrun batetako bozpasei haur, edo bizpahiru (zirenak) igande goizetan, bi mezen artean, biltzen zituen bere etxera, eta han ezkaratzean egiten zeien, berex, heieri katixima; ziolarik, haur gaixoez asteen behin ere bide luze haren egitea bazutela aski.

Horrela bazauzken haur hek astelegunetan etxean; ez bide baitzitzeien guti burrasoeci. Lan horren egiteko behar da izan *on* ere. Ba *ona* ere.

Ona baitzen hura bere artalde guzientzat; orotako beharrenentzat gehienik ona, erran nahi dut erientzat; ez baita erretor onaren marka hoberik, erier jarraitzea baino. Alta hala zen hura.

Luze bada luze, gogoak emaiten zaunkun bezala eta gure ahalaren arabera erran dugu: zer apeza izan den Diharrassarri zena 30 urtez: hamabortz urte Baionan; Kanbon, bortz; eta Orzaizen hamar Berrogei ta hamalau urtetan hil izan da; oraino gazte, bainan asko zahar baino merezimenduz aberatsago.

Asko etsenplu eder utzi diozkate bere apez lagunei. Eskual-herriari orroitzapen bat ezin ahantzizkoa.

Apeztasuna ohoratu duelakotz, izan da bera hil ondoan, handizki ohoratua, harentzat Donibanen, Orzaizen, Kanbon eta Saran eman diren hil ofizioetarat jendea osteka bildu baita; eta kasik nehon ikusten ez dena, haren azken herri maitean, Orzaizen, etxe guziek meza bedera eman nahi ukan baitiote, ederki erakutsiz hura, herriari bezala, atxikia zela herria hari.

Eskualduna, 1902-05-09



JAUFFRET JAUN APEZPIKUA

Jaun apezpikua eri ginuen ja zenbeit hilabete huntan. Hil da, iragan igandetik astelehenerako gauean, gau-ereditan. Hiruetan hogoi-ta bederatzitzi urte zituen. Baionako apezpiku zela, hamabi eta erdi.

Marseillen zen, hiri berean lehenago eskola-etxe handi bateko buruzagi egonik, bi rute hartan kalonje bezala bizi, hunat igorri zutenean. Urrundanik eta toki arrotzerat heldu zen osoki.

Eta bertzalde boz-egunak baitziren, egun hitsak eta nahasiak ezin gehiago, —ez baitire ondikotz geroztikakoak hanbat hobeak izan Frantzian!— gure etsaiek huna zeneko, ba eta huna gabe ere, zen tokira zer nahi erasia, lausengu eta mehatxu aldizka hel-araziz, inguratu zuten alde orotarik Zer ez zioten orduan erran eta egin, diosesako apezak eta bereziki apez eskualdunak, eta berezikiago orotarik kartsuenak, hobere-nak, gaiki erabil arazi nahiz? Bildu ere zuten, bakearengatik, zenbeiten herriz aldatzera.

Hitzeman ba, bakea! Geroak eman du erakusterat, nolako bakea eta zer xedeak zituzten gogoan. Ez dituguia ikusten hor joaki, bero ta urrunago eta barnago, gure erlisioneari, buru guzietarik, egin dezaketen kalte guziaren egiten? Eta beti joaki aitzina!

Ohiko hemengo ez-bai eta makur iraganen ahantz araztekaok izan ahal dire geroztik Frantzian. Eta naski orainokoak deus ez, hemendik harat egitera doazilakoan aldean...

Ikuspen hori zen gure apezpikuaren bihotz-min handienetarik bat. Aspaldi ohartua zen: non eta nor ziren egiazko bakezko gizonak eta egiazko bazter-nahasleak. Nor behar zuen sinetsi, eta nor ez, bazakien aspaldi; eta gerota hobeki.

Hortakotz, hastapenean lausengu bezenbat larderria eta beltzuri zuen, bereziki azken huntarat, egungo eguneko gizonetarik.

Ikusiz hoi en egitateak, komentuen kontra eginikako eta bertze lege tzarrak ez zituela onesten; fraidei eta serorei, eta eskola girixtinoei atxikia zela biziki, ezagutuz geroz, gutarik edozoin bezenbat edo gehiago begietan hartua zuen etsaiek.

Hastean egin, eta geroztik ere, beti bakearengatik egitera zagon hautsi-mautsiek, ez adinak, ez eritasunak, ez apezpikutasunari doakon errespetuak, deusek ez du gibelatu etsaia, haren azken egunak nahigabez eta kirestasunez pozoindatzetik.

Gehiagoko xehetasunetan hemen sartu gabe, azken eritasuna ere hanxet bildua zuen Pauen zelarik zenbeit egun hartan; eta han, orotan bezala, katolikoei buruz, eskugainik aski ezin hartuz ari baitire protestant, ala judu, ala erlisionerik batere gabeko batzu; orok elgarrekin bat egiten dutelarik gure bizkarraren gainean; jaun Apezpikuak nahiz arrazoinekin katolikoek beren eskuak atxik ditzaten, bederen erlisionekeo urratsetan, hala nola karitatezko obra onetan, orotaz jabetzerat utzi gabe bertzeak; kontseilu zuhur zenbeit emanik beraz jaun Apezpikuak, gaitzitu bertze-ri... edo alegia gaitzituarena egin.

Haro bat altxatu zioten; eta zernahi ateraldi tzar, bai buruz-buru, bai beren kideko kazetetan eman.

Ez bazituen ere holako solasak eta egitateak beti barna hartzen, badakigu ez diotela onik egin. Bihotzeko min bat jauzirik, jo zuen Pautetik Betharramera; eta han, arta guziengatik egun guziet beti ahulago, jautsi da, mailka-mailka, bere kargu handitik tonbaraino.

Uste izaiteko da, diosesa guzian harentzat egin diren otoiizeri esker, egin diola Jinkoak eritasun luze eta hein bat eztiaren grazia.

Grazia handietarik bat hori, geroari buruz, nornahirentzat ere. Are gehiago Apezpiku batentzat; hainbertze eta halako eginbide hertsiez Jinkoari kondu eman behar dionarentzat.

Fedezko begiz gauzak ikusten dituenarentzat, ezin aski goretsizko grazia, bizi luze baten ondotik, hainbertze harat-hunat erabili ondoan, heriotzea heldu ikustea; hurbiltzen ikustea; bere gogoa eta bihotza egun guziet gero ta gehiago itzultzea zeruko alderat, lureko lokarriak oro banazka haustearekin. Egun guziet erran behar eta *ahal* izaitea, gerota zinezago; «Jinko ona egin bedi zure nahia. Ene arimaren onetan, ere artaldearentzat eskaintzen dautzut ene bizia».

Holaxet joan da, emeki-emeki, gure jaun Apezpikua. Heriotzea hurbiltzen ikustea baino dorpeago, saminago, jasan gaitzago izan bide da harentzat lana eskutik utzi behar ukaitea. Ezen, ez zelarik azkarra — ageri zuen ez zela hala— lan handiak zerabiltzan. Asko lan handi, ba eta ttipi, bertzei egin araz zitzaizkenak eta oro berak zeramatzan, gauak egun eginez.

Goiztiarra zen biziki. Goiz guziet, ahal zueno, lau orenetako jaikia; bere otoiiz, mezak eta oro emanik, lan puska bat egin zuen, ardurenetik letra multzo bat, hamar hamabortzetaraino eginik lerroan, metatuak, askaldu gabe.

Gero berriz aitzina lanari lot.



Konfirmazionetako itzulietan zabilalarik, orobat edo bardintsu. Higatu du bere burua, non hein hoi irautea ere zerbeit baita. Hau aipatzen dugu bakarrik hemen erraiteko zein nekez, eta zein ezin-bertzez utzi duen lana!

Halere azken eguneraino, guti edo aski, zerbeit egin du. Ohetik bederen begi zaukan eta gogo, ahalaz esku ere ba, diosesako goiti-behiti guzietan Orzaizeko erretor Diharassarry zenaren min-hartze izigarria entzun zuenean, berehala, nahiz bera ordukotz aski eri zen, depexa joarazi zuen, berari buruz eta familiari, otoitzean zagola harentzat.

Eta orai biak hilak, han Jainkoaren aitzinean! Deus ez da mundu hau; deus ez dire hemengo itzulika guziak. Zer diot? hauk oro gure onetan ditazke eta dire, Jainkoaren nahitara doazilarik, harentzat egiten edo jasaiten balin baditugu.

Dugun otoitz hilarentzat; otoitz bizientzat, Jinkoak eman dezogun gure diosesa handiari lehenbailehen artzain on bat!

Eskualduna, 1902-06-20

ETSENPLU: TISSIER

Egun zortziko Eskualdunean irakurtzearekin, Tissier deitu Arrotako auzapez orroitzgarria burutik joan zela, herri hortan auzapez bezala elepide onik eman ondoan —ez ahal du balinba nehork uste izan atsegin ginuela hemen aspaldiko etsai batez gaizki mintzatzea. Hori uste lukeena hutsean litake.

Are gutiago du zeren nehork erran, edo norbeitek hala ez dena erranik, sinets, herraz, jazarri gitzazkola gizon eri bati. Ez da hola. Lehenago ere, behin baino gehiagotan, bere buruaren jabe zelarik eta nehor bezen on, bere makilaren xuritzeko, bereak aditurik dago hementxet Arrotako auzapez ohia Gaizki diot; *ohia*; ezen ez da oraino haren ordaina izendatua. Izaitez ez bada, bederen izenez erro izigarri bat du oraino meratzat Arrotako herriari, on bazaio eta ez bazaio.

Du... eta merezi du.

Ikusten dut solasa gaizkirat hartu nahiko dutenek, zer erranen duten: gizon dohakabe bat, eroria, herrestan erabiltzea ez askiz, haren hobenetan ikustekorik ez duen herria, herri guzia nahi ginukela berriz orai lurra baino behegaro ezarri. Ez da egia hori ere.

Bainan gaizki hartuak izan behar bagine ere gogoan duguna erranen dugu, zabal-zabala.

Zer ere baitzauku iduri, *gizonaz* bezala, gizonaz. Egia.

Eta ez batere, nehoren apaltzeko gutiziaz, bainan holako gertakari bat ororentzat etsenplu delakotz.

Orok engoitik dakiketena da bertzenaz, ez dugula *Eskualdunean* holako solasik nehortaz hanbat erabilki. Non da ere holakorik? Bainan hots, ez zauku laket, beharrik gabe, nehortaz gaizki mintzatzea. Eta hemen artetik erran dezadan egia, solasak dakarrenaz geroz, gure arta berezienetarik bat da, egiazko *lan bat*, bertzeak bertze, eta ez beti errexe-na, ate leihoen zaintzea; ez dakigun, uste gabeen, artekatik sar, behar ez denik. Halere lizafinek badakite xiloen hatzemaiten. Ahal duguna egiten dugu.

Beltzuri bat baino gehiago ukanik gaude segurki, eta gure adixkide ustez hoberenentarik zenbeitekilan makurturik; edo guti edo aski hoztasunetan jarririk zeren ez ditugun igorri zauzkutenak oro hemen ezarri beti. Bertze zenbeitek hala egiten omen baitute. Nahi badute ba. Guk ez.



Garbiki bertzenaz, iduri zeie batzuei, oro on direla erraiteko, zeren eta errana den bezala, paperak ukanak oro hartzen dituen.

Paperak ba. Guk ez. Orroit hortaz.

Bainan ez du horrek erran nahi oilo busti batzu girela, zenbeit antzara karrankaritarik entzuten dugun bezala; edo ahate mutu batzutarik. Baitire halakoak ere; bertzen buztanaz uli haizataile batzu onak. Xo; bego hortan.

Zeri hartu zauku solasa. Non ginen? Huna... ahanzter baitut gehienik gogoan nakarrena hemen erraitea.

Arrotako auzapez dohakabearen adixkide edo ahaide hubiletan balitz nor edo nor, *bera hobendun ez delarik*, hartaz erran behar izan ditugun egia latzek bihotzean zimiko egin diotenik, barka dezagula. Barkatzen ez balaukute ere, guk gure eginbidea betea dukegu, erakutsiz, ez gabiltzala nehoi penarik eman beharrez, merezi ez badu. Ez eta merezi luketenei ere, non ez den holako zerbeit etsenplu izigarri, ingurune guzian orok dakitena, eta etsenpluzat orroitzeko dena.

Halaber nor ere baititake Arrotako herrian, herriko mera dohakabearen hutsetan ikustekorik ez duena; hura nolazpeit lagundu ez duena, bozez edo bertzela, gaizkiaren egiten, ez dakiola otoi gaitzi hemen erraitea deramaguna.

Bertzez ez dugu axolarik; edo hobeki erran dezadan, orok egia onhar dezaten nahiago ginuke ba, bainan egiaz hunkituak ditazkenei min egin beldurrez, ez gira egonen ixilik.

* * *

Egun erran nahi ginuena, hau da: Arrotako herriak hainbertze urte huntan zuen bezalako mera balin bazuen, merezi zuena baizik ez zuela. Ez ote? Ez, eta *oterik* gabe oraino. Zu hunen irakurtzen ari ziren bezen segur.

Alabainan, ez ahal zen bera jarria gizon hori herrian auzapez? Norbeitek izendatua zen arai; eta nork? Herriak, herriko gizonak; boz emailek. Lehen aldian edo bi aldiz tronpaturik ere, azkenean, zena zena-rentzat ezagutua zuketena. Zertako ez utz, ezagutuz geroz, bazterrerat? Zertako ez ken? Bakearengatik baizik izan ez balitz ere, zertako ez ezar bertze norbeit haren ordain auzapez? Ala nehor ez izakiz ordain-gei? Ez da egia. Hasteko, nor nahi bazitaken hura bezenbat. Zer zuen, ororen buruan, halako zer berezirik, bertzek baino gehiago? Onik deus ez; baka-rik gaixtakeria.

Bartzalde nehon guti den bezalako buruzagi geiak bazitazken Arrotan. Hetarik bat, diotenaz, haren axuanta; bertze itzalik gabeko gizona, baizik ere, haren gibeletik baitzagon, hura utziz askotan bere gogoazapatzen zuelarik, nahi zituen kixkilkerien egitera.

Itzalik aski, herriaren kaltetan. Ezen ahuleziaz, bere aldean gaizkia egiterat uzten duen gizona, izan bedi nahi duen bezen gizon ona... *ez da gizona*. Holako zain eta odolik gabeko batzuek dute jauts-arazi Frantzia, ikusten dugun erreka zolaraino.

Eta gero? Hura zen bezalako mera gaixto baten izenarekin bere izena lerroan ezartzen duen gizona, edo bakarrik *uzten* ezartzerat, nahi eta ez, beti hari indar emaiten ari zaio.

Bera utzi balute, listako lagunik gabe geldituko zen.

Ondoan bederen, ikusiz haren egitateak, batzuek egin zutena egin balute orok, *demisionia eman*, ber-bera gelditzen zela ikusiz, beharko zuen berak ere demisionia eman, edo gelditu zangorik, ez besorik, ez bularririk gabeko buru; ororen irri-egingarri.

Gehiago dena, ditaken gizon, —*gizon*, ongi-egile, prestu, bihotzdun, jakintsun, herriko etxeko-jaun hoberenetarik bat, laguntza asko berak egin zezakena herrian, eta beharrez ardiets ere ba gorago danik, Dagueuet Baionako Jaun notari on, zuhurra, nahi izan baitute behin edo bietan, haren ordain ezarri zenbeitek herriko buruzagi, Irigoien hagin jaltzale bipila eta herriko semerik zerenak oro alde zituelarik notari horrek... halere-halere oraino mahain-petik edo nolazpeit nausitu baitzen Tissier! Hura bezalako gizon hits batek behar zuela garhaitu Dagueuet notaria? Biak ezagutzen dituenarentzat ahalegarri da.

Ba, egiazki, gero, ahalegarri herriarentzat.

—Noren falta? Zerarena... Chinako enperadorearena naski? Ba bainan zera da: *gider* handiak omen zituen. Zer derasate: gider eta gider? Orizue, alafede, burutik joan denean, oro errautsi nahi omen baitzituen, hartu balu aizkora bat, hatzeman guziei burua arraildu behar zeuela, utziko ote zuten libro, erranez: «*Bego*, giderra eskuan du!»

Ken, ken giderra; ken fite, zuen onetan. Lau urtetarik behin bazuketena Arrotarrek gizon lanjeros hari gider guzien kentzeko parada ona. Zertako ez ken?

Kendu baliozkate, ez baitzen behar bada burutik joanen ere.

Hori zauku, hori, bi gogoetaren egiteko doia buru dutenentzat bizi-ki handi. Etsenplu ditaken gogoetagarrienetarik bat.

Hortako dugu hemen aipu, nahiz barneak halako bat egiten daukun, erro dohakabe batez hain luzaz mintzatzeak.



Ez daukagu ere, Arrotako herri ttipiari doakola Eskual herri guziaren begietan horrela emana izaita. Bainan etsenplua heldu den lekutik hartzen dugu; on edo txar.

Oxala, Eskual-herriarentzat, ba eta Frantzia guziarentzat, bakarrik Arrotako ixtoria balitz hau!... Bainan zenbat herritakoa ez da?

Bertzeak bertze, diote ikusi dutenek, ez dela Conbes ministro buruzagi tzar hura baino gizon itxura hitsagokorik (hitsago baititu oraino egitateak.

Buru apal, kokat herdoil, zango mehar, higatu bat omen da.

Nehork ez omen du ere ikusi nahi. Ez nahi ikusi, ezin ikus begien aitzinean. Hola-hola erraten zuten Arrotako merarentzat; halere hura Arrotarrek meratzat atxiki; zenbat urtez? Errotu arte.

Conbes delakoa ere arront erro baladi, ez litakela nehor estona, diote. Ja errotuxea ez balitz, ez litzazke dazkigun lan tzarrak egin.

Anartean gure nausi, Conbes Frantziako auzapez guzien «xef» ohiko apez gei arnegatua. *Giderrak* eiki eskuan dituzke hark ere. Nork emanak?

Ba, haurrak, ba; berriz ere diot: Nork emanak?

Eskualduna, 1903-06-12

LEON XIII AITA SAINDUAREN HILTZEA

Argi bat hil da munduan, Giristino katoliko guzien Aita, Leon Hamahirugarrenak iragan astelehen arratsaldeko lauak irian eman du azken hatsa.

Zenbeit egun huntan ja piru batek zaukala erran ditake haren bizia. Betidanik ere ahul aire izana zen; xuhail eta mehe; nehork ez omen baitzuen usteko bertze orduz, hura ikustearekin, hoinbertze zaharturen zela: 94 garren urtean zen; hogoita seigarrena zuen, Aita Saindu zela. Gutu hel-tzen dire adin hortara, bereziki kargu horri darraizkon lan, buru hauste, griña handiekin.

Gutiago dire oraino, Aita Saindu izendatuz geroz, hoin luzaz ihardoki dutenak. Bakar batzu, bizpahiru, hogoita bortz urteko hori jo dutenak.

Hetarik biga, hau eta hunen aitzinekoa, Pio Bederatzigarrena saindu baten orroitzapena utzirik hil zena, duela hogoi-ta sei urte.

Hau izendatu zelarik, 67 urtetan, ja ordukotz lanak, bere karrak eta irudiz adinak ere higatuxea, zioten anitzek, ez ginuela behingo Aita Saindu. Eta horra zer erran ditaken! Noiz eta ere baitzuen Elizak buruzagi on baten beharrena, orduan dio Jinkoak eman, itxura guzien kontra, egundaino izan diren iraunkorrenetarik bat.

Aspaldian ikusten zuten guziek, gizon jakintsun handi ala gutarteko edozoin, oro xoraturik zauden haren ateraldi on, zuhur, biotz altxagarriei.

Nausitasuna eta ezitasuna biak bazauzkan. Behatze bat omen zuen guziz, ezin ahantzizkoa, iduri arimen zolaraino ikusten zuela.

Bizkitartean bihotzez baino are gehiagokoa zen buruz.

Harekin egitekorik zuten guziek ba eta gure erlisionearen etsairik handienek (sorraio piltzar batzuz bertze orok) zioten eta diote goraki Elizaren buruzagi eta edozoin gizon bilkuraren nausi handi izan diren handienetarik bat zela.

Ez baita erraiteko baizik, itxurarik ahulenarekin badoakela bardin adimendurik azkarrena; eta gutartean berean ere ikusten duguna, iduriz beti erikor diren batzu burdinaz eginikako batzu bezen bizikor direla, edo bizikorrago.

Dena den, beti Aita Saindu hori hala bizi izan da eta hil, nola ezkozko argi bat; osasunez beti herbait, buruz beti oso; bere begi ernea, urrun



eta goradanik gauzak ikusten zituena, eta bere gogo zaila, egun eta gau, mundu katoliko guziaren goiti-beheitiei zeratxizkotela.

Hoinbertze eta hoin ondorio minezko egitekoei buru eginez, irautea bera zerbeit duzu. Bainan irauteaz bertzerik egin baitu hunek!

Ezen egiazko argi izan da Eliza guziarentzat. Zer eta zenbat irakaspen ez du eman eta hedatu bazter guziatarat, batzutan Eliza guziari mintzo zelarik, bertzetan erresuma edo herrialde bakotxari, banazka, behar arau.

Gizonak gizonki, giristinoak giristinoki bizitzeko jakin eta egin, eta beti gogoan atxiki behar lituzken egiarik eta eginbiderik handienak; egungo egunean gehienik ahanzterat gure kaltetan ekarriak diren guziak, hunkitu ditu, eta batzu ezin gehiago kartsuki, sarkorki aipatu, osoki gor eta gogor ez direnek aditzeko heinean.

Hala nola ezkontza, haurren altxatzea, nausi-langilen arteko batasuna, orok elgar jasanez eta lagunduz bizitzeko eginbidea. Buruzagien beren, eta heieri buruz bertzen zuzenak eta obligazioneak; gobernamentuekilako bakea; etsaiari ihardokitzeko, gizon zuhur guziek elgarri esku emaita; familiar, bakartasunean, herrian, munduan baitezpadako den erlisionearen beharra... hoik eta holako zer ez du eta zenbat aldiz, parada zuen guziez, erakutsi, bai ahoz buruz-buru ikusten zituenei, bai eta izkribuz, haren hitza hel zitzakioketen guziei.

Bereziki azken huntarat, hiltzeaz orroitzearekin, bihotz ilundura batek hartzen zuen, Ebanjelioko hitz hunkigarriak bere egiten bezala zituelarik: «Zenbat aldiz, mundu esker-gabea, ez ditut nere ahalak egin, hire haur guziak bakean elgarretara bildu nahiz, eta ez nuzue sinetsi!»

Bihotzmin berezi batekin erraiten zuen hori Frantziari eta Frantziako gizon buruzagiei mintzo zitzaielarik. Azkenerat boza histen zitzaion eta begiak bustitzen, Frantziak mintzatzearekin.

Zer ez du izan iresteko ja aspaldiko urtetan; eta geroago-ta gehiago.

Hura beti eztitik, bertzeak idorretik, eta beti ahal bezen tzarretik.

Azkenekotz, gure gobernamentu nahasi tzarreakilakoa osoki hautsia ez zuen... bainan hartarainokoak oro.

Hala nola urtea baino gehiago badu, gure diosesan apezpikurik ez dukegula, minixtroen gaixakeriaz. Noiz arte? Jinkoak daki!

Holako gizonen eskuko gireno, ez dukegu neholere deus onik.

Anartean, ez dago lan ttipiei lotzeari Aita Saindu hilaren ordain izendaturen dena, nor nahi izan dadin.

Jinkoak urrikari duela Eliza, eta digula lehenbailehen Aita Saindu ahaldun kartsu bat!

Eskualduma, 1903-07-24

HILTZEAZ ORROIT: FRANCIÈRE

Gizon bat hil da; jaun bat, gure departamenduan bizpahiru urte huntan lan onik egin duena, eta zalaparta ederrik erabili, ba eta erabil-arazi.

Francière, aspaldiskoan, ja, eta guziz azken denbora hautan, hainbertze elepide katixima eskuararen eta Eskual-herriko zuzen zahar egundainoko guzien kontra eman duena, eta iduriz are gehiago emaiteko xedetan zena, hil da supituki, joan den astearte arratsaldean.

Baionan omen zen, suprefetaren baitan, itxuraz eta naski berak ustez ere, osasunik hoberenean Pentsa nola! Goizean eiki jina zen Pautetik Baionara inguruetakorri erriet guziak bildurik, mintzatu gogo zitzeien. — Zertaz ote? — Zertaz nahuzue, mintza zitzakioten? Ez araz beren eginbiden ahalik hobekiena betetzeaz; haurren behar bezala eskolatzeaz, ongi altxatzeaz. Ez eta zoin beren herrietan zuzurtzia, bakea, batasuna, gizontasuna ororekin atxikiz, Frantziaren onaren bilatzeaz.

Ez herriko jendearekin eta bereziki buruzagiekin, elgar adituz, lagunduz, heiekin bat herriaren onetan, gazteriaren altxatzale bati loakoken bezala bizitzeaz, mintzatzeaz, ibiltzeaz beren urrats guzietan. — Zertaz beraz? — Ahal dakizue zertaz. Ez du egungo eguneko gobernamentuak holakorik galdatzen errietetarik.

Bainan, ba, Errepublikaren azkartzeko estakuruan, izen horren itzalean, horren etsaiak alegia garraitu beharrez bezala, ororen orotan nahasteaz; orori jazartzeaz. Beren lan hura bardin bazterrerat utzirik, erriet batek deus egitekori ez ikustekorik ez luken ehun mila zeretan sudurra ren sartzeaz.

Bertze orduz jaun errietak bere *inspetorraren* azpiko ziren, jaun erretor bikariak apezpikuaren azpiko bezala. Bakotxak bere buruzagiak ukaita, zuzen zen ere.

Orai ez; orai prefeta guzien nausi, guzien larderiartzale.

Beraz errietak zituen Baionara deituak, harroaldi baten emaiteko, higi ditzen hortik norapeit; ala lo dauden?

Sustatzale beharretan gure gizonak, makurreko alderat, egiazki! Ez aski beren buruaz hartuak «nor gira gu?» diotelarik; bi hitzetarik bat deus onik ez dena derasatzutelarik.

Behar oraino berotu, buhatu, kitzikatu gibeletik, makurrago joan ditzen; gaizki gehiago egin dezaten; erlisioneari gerla gehiago; eskuarari ere ba oroz batean.



Sala ditzaten eskuarari atxikiak diren apezak. Ezinbertzez, haurrek eskuara baizik ez dakitelakotz, edo frantsesik ez aski, ahal dutena egiten duten apezak oro aitzina beti sala. Sala beren haurrentzat erlisionea zinez nahi duten burrasoak, jazarkunde gaixto zerbeit gero egin bada-kiokete, egiteko, edo seme soldadoaren, edo auzi, bide lan, zerga, zer-beiten karia.

Ez badire salatari nahi, Jinkoak beira, ez diton izan berak salatuak; eta gero gaizki ikusiak. Jaun prefetak begietan duen erriente bat... debruak ereman baitu, izanik ere nehon den haur-altxatzale, argitzalerik hoberena.

«*En avant-marche*», nahi badute eta ez. Horra zer edo zertsuren errai-tera jina zitzeien errientei jaun prefeta Baionako hirira.

Berenak entzun behar ahal baitzituzten zenbeitek! Eta bertze batzuek aldiz, eskolak eta oro utzirik, politika tzar hortan leporaino sar-tuak, hortako eta hortarik baizik bizi ez diren batzuek, zer lausenguak! Doazin beti aitzina; sari guziak heientzat izanen direla. Eta holako.

Batzu beldurrez ikaran, berzeak hantu-hanpaturik, iduri Frantzia guziaren jabe, prefetaren gogoa, egiaz edo gezurrez, nolazpeit hatzema-na zuketelakotz, hor ja inguru guzietarik biltzen ari dire Baionara Bilduxeak ere omen, hor, noiz eta ere bet-betan berria jalitzen baita, hiri guzia berehala joiten duena: jaun prefeta hil-hurran dela, hil dela. Suprefetaren baitarik ez dakit zoin oteletara tarrapatan ereman dutela, doi-doia hats bizi.

Eta hanxet, berehala, deus egin, ez erran gabe naski, ez eta bere bai-taratu ere gabe azken hatsa eman duela.

—Zerk hatzeman du, gizon dohakabea? Zuek eta ni bihar eta egun hatzeman gitzazkenak: heriotze supituak.

Ah! orroitzen bagine hortaz, oro ere! Bereziki gaixtaginak; hau bezalako buruzagiak, beren kargu hura ez galdu nahiz, eta ahal badute oraino gorago igan ustez, zer nahiren egitera daudenak; ohore gosez. Jinkoa eta beren kontzientzia merke, merke sal litzazketen eta zenbeitek aspaldi ja salduak ere baitituzte: hoik eta holakoak, orroit balire hiltzeaz!

Gogoratzen balakiote, hemengo bizi labur, amets huntako kargu, irabazi, xingola eta zer guziak oro deusetako ez dituztela izanen han, azken oren hartan! Eta oren hura noiz nahi badatorkela orroit balite! Nor da orroit?

Orroit ala ez orroit, jiten ordean hura, goiz edo berant. Uste baino goizago beti. Lehengo guziak hartarik iraganak eskuin edo ezker; oraiko-

ak ere iragan beharko, nahi bezenbat furfurua eta zalaparta erabilirikan ere.

Gaizkienik bizi direnentzat, hiltzea lazgarrienik, non ez deien Jinkoak emaiten urrikitzeko epea.

Zorigaitz, handi ala ttipi, epe hura gabe gaizkian heriotzeak hatze-maiten duenari! Agian ukan du hunek epe hura! Ukan ez badu, non da orai?

Azken berri

Ondotik jakin dugu jaun prefeta hil denean, ja mintzaturia zitzeiela, eta oraino mintzo errientei, aldixartzerakoan. Bet-betan belzturik bezala jarri omen da. Hiritik kanpo ziren, bazkari handi batera bilduak errien-tak, prefeta buruzagi. Hil-hurran edo hola hirirat ereman dutela dugu azken berria, suprefetaren etxerat.

Hura mintzo entzun ondoan hiltzen ikusi duten errienteitarik zen-beitek bederen ez ote dituzte, arratsari buruz, etxeratekoan egin bi gogo-eta?

Gutiagoz egiten da bat baino gehiago. Marseillen egun hautarik batez hola hola mintzatzekoa baita gure prefet guzien buruzagia, Combes delako arnegatu fraide hura, halaber hil-gogor eror baladi han berean, ez dakit, ez hango, ez hemengo, aditzaleak beren baitan sar litaz-kenetz; ikus lezaketenez hor Jinkoaren hatza, ez dakit.

Hain dire gor eta itsu bilakatuak.

Eskualduna, 1903-08-07



BERDOLY

Otoi barka, egun *Eskualdun Onaren* hastean lehen hitz, larri-larria ontsa agerian ezartzen badugu gizon galdu higuigarri baten izena. Merezi du. Zor diogu aspaldian ere, bainan behinere baino gehiago aste huntan ohore berezi hau gure Eskualdun zenator *ohoragarriari*. Eskualduna ez da: ba ordean Eskualdunek izendatua.

Ohoragarria ere ez, alafede, berenaz den gutienik, zahagi zahar batek baino sentimendu gehiago ez duen gizona. Bizkitartean ez da hor harat hunatik Ohorez hantua daukagu ja aspaldixkoan Berdoly hori, orok dakigun bezalakoa, *guk Eskualdunek*, Xuberoko eta Baxenabarreko boz-emailek igorria da Pariserat Berdoly zenator. Ez dugu zeren uka. Gurea da; gure izenean emaiten du boza beti lege tzar guzien alde, guk manatua balitz bezala.

Zuzen da beraz Eskual-herri guziak jakin dezan gure Berdolyren azken egitate, orainoko guziez handiagokoa.

* * *

Iragan astean, zenatorren bilkuran bozak eman dituzte serora eta frera eskola emaile guzien kontra. Guziak, batzu bertzen ondotik, lehenbailehen beharko direla kendu. Barreiatu beharko direla, desegin, ezeztatut osoki eskolatzaille frera eta serora guziak, ja hor harat joanak diren kaputxin, Franzizkano eta Beneditanoak bezala. Oro ken. Gristino eskola bihi bat nehon ez utz hoiien eskuetan.

Fraide eta serora hoiak dituzketen ontasunak, lurra, etxeak, puskak: oro ebats; orotaz jabe gobernamentua, oraitik harat nahi duenean; berari iduri zaionean; bihar, etzi, geroxeago, edo egun berean bardin. Bakarrik luzamen izpi bat utziko diote, han hemenka, eskola Jinko gaberi oraino aski handirik ez den tokietan, haur guzien kokatzeko. Bainan hortaz berak juje, berak nausi.

Ez dute nehoi urrikariz emaiten luzamen hori; nahiago lituzkete oro batean ito, urkatu. Bainan sobera lan aldi ez nahiz hartu, batzu bertzen ondotik dituzte holetan kendu gogo.

Deputatuen bilkuran ja pasatu zen lege hori. Huna non den pasatu zenatorren aitzinean ere. Deus ez du orai eskas jaun de Loubet Frantziako framazonen mutil obedientaren sinatura baizik. Den bezala-

ko gizon funtsgabe, ez-deusak sinatuko du, bertze guziak bezala, lege izigarri hau ere. Zer ez du ja sinaturik? Eta zer ez lezake oraino sina?

Gizon etzi, on bat dela berenaz Loubet erranen daukute gero. Eta guk bardin sinetsiko. Zenbat Eskualdunek ez dute sinetsi, edo alegia sine-tsiarena egin, Berdoly gaizoak xede bat tzarra ukanikan ere, bihotz ona duela. Ongi asko egiten ere? Eta holako.

Obretarik da ezagun gizona zer den. Berdolyren obrak engoitik, debrua izanik ere, ezagutuak ahal dire. Beti tzarrenaren alde duela boza eman erraitea aski da. Bainan orotako handiena egin du, iragan astean, askena.

Zenatorrek boza eman dute serora eta fraide eskola-emaile ondarrak, orai arte gobernamentuaren baimena zutenak eta oro arront kendu behar direla. Batzu frera eta serora gaixoen alde, bertzeak kontra. Kontrako alde da nausitu. Alde baino 60 boz gehiago joan dire kontra.

Pabeko Cassou eta Haulon Baionakoa, nahiz deus hanbat onik ez diren, eta nahiz edozoin zeretari gobernamentu tzar izigarri huni indar emaile diren, oraikoan orroitu dire beren anitzen haurrak seroren eta freren eskuan iraganak zituztela Orroitu dire Haulon eta Cassou, zenbat ere baitire bertzenaz orotara jarriak, ez-axolatuak, sorraiotuak, zoin ontsa ikusiak diren gutartean frerak eta serorak; zoin diren atxikiak Eskualdun eta Biarnes girixtino burrasoak beren haurren girixtinoki altxatzeari.

Eta Conbes beltzak, nahi badu, egin dezotela beltzuri... Hanbat gaixtoago, gertatzen dena gerta, beren gogoetak ontsa eginik, biek boza eman dute freren eta seroren alde.

Gure Berdoly behar zen bakarrik, bere boza, den gutieneko barneko kilikadurarik gabe, tzarrenenarekin bat emanen zuena.

Mauleko, Baionako, Miarritzeko, Donapaleuko, Hazparneko, Canboko, Uztarritzeko frera guziak oro ken ditzaten eman du boza Berdolyk. Zenbeit hilabeteren, edo menturaz bizpahiru urteren luzamena utziko badeie ere, bihardanik ezarri ditu bere bozaz Berdolyk frera guziak oro Conbes tzarraren eskuko.

Angeluko eta Uztarritzeko serora guziak bardin; zoin beren herrietarik oro fuera kanpo. Ez haizu nehon eskola emaiterik; ez eta beren komentuetan elgarrekin bizitzerat ere. Fuera, barreia, haiza, Frantziako lurretarik urrun igor oro.

Horra zerentzat eman duen boza Berdolyk. Berdoly dela Berdoly, zer diote Berdolyren boz-emailek? Hura den bezalakoa beren bozaz jaun deputatu behin, eta gero jaun zenatur handi izendatu dutenek, zer diote beren gizonaz?



Hango edo hemengo eliza zaharraren berritzeko zenbeit diru pozi ardietsi badu ere bere kidekoenganik, begietarat errauts emaiteko, nork ez du ikusten haurren arimetari erlisionea, baitezpada gal-arazi nahi duten gaixtaginik handinetarik dela gure Berdoly?

Noiz atzartuko dire Berdolyren boz-emaile burraso Eskualdunak? Noiz dire guziak altxatuko beren haurren arimez griña dutenak, Berdoly edozoin eskualdun bilkuretan agertzen delarik, oihu egiteko: «Fuera Berdoly! Kuku framazonen esku-makila!»

Oloronen hor gure auzoan, Barthou minixtro ohi gaztea gure Berdoly tokoloaz bertzerik dena... nahiz bardin tzarra, bederen bi zangoek goiz arrats beti xutik daukatena, fueraka, oihuka hiriko kontselutik kendurik, orai kontseilu jeneraletik eta sarrixago deputatugoatik kentze-ra baiteramate... hek baino gutiago izanen ote gira gu?

Guk baino erlisione gehiago behar ote dute erakutsi Biarnesek? pullitak ginintazke ordutik!...

Gerokoak gero; ez dugu zeren orok segurik espantu handirik egin: Eskualduna hau, Eskualduna hura.

Behinik behin, bertzeak bertze, Berdolyren boz-emailek burua apaltzen ahal dute, non ez diren haren iduriko bilakatuak.

Jinkoak eta *Eskualdun Onaren* irakurtzaleek barka dezagutela, izen horren aldean eman badugu egun hilen kurutzea.

Ez da hilik; eta agian bizi den baino hobeki hilen da Berdoly! Eta gure izena bera, gure eskualduntasuna belzten du itsuski.

Gure ohorearen dolumin zinezkoa deremotela herritar irakurtzale guziciei *Eskualdun Onak*.

Eskualdun Ona, 1904-12-15

ARBELBIDE APEZA

Hazparneko misionesten buruzagi ohia, misionesten obra on hori eta holako bertze, berari zitzaion bezala, hedatu eta azkartu nahiz, Ameriketako Buenos-Ayresen, Erroman eta gaindi, asko harat-hunat erabilirik, bospasei urte huntan Baionan bizi zena kalonje, hil da iragan astean.

Hiruetan hogoi-ta lau urte zituen; zen baino gazte eta azkarrago emaiten zuen. Oro utzi ondoan, deus ari gabe bizi zitakelarik, zahartze-ari buruz, egunadaino bezenbat edo gehiago lan bazeraman Baionako katedralean anitz kofesatzen zuen, hor zenean. Bainan ardura hortik ere, han edo hemen, nonbeit zen; eta beti kasik lanean; oraino hetsiak ez diren komentu bakarretan erretreta predikatzen; eta komentu hetsietarik fraide apez predikariak kenduz geroz, heien ordain, asko herritan bardin. Hemen bederatzi-urrun bat, han lehen komunione bat.

Eskual-herrian baino araz behar gehiago ikusiz, edo galde gehiago zuelakotz, noiz nahi Landesetako zoko batzuetaraino bazoan predikatze-rat. Beti prest, eta urrun joaitari ez lotsa. Bordaleraino eta urrunago deitzen zuten, bereziki Serora komentuetako aitzindariak.

Betidanik bazuen komentuentzat gaitzeko atxikimendua. Uztaritze, Angelu, Maule, Donibane, Betarrame, Bastida, eta bertze komentu, hemen hurbileko ala han-hara nonbeitoko fraide eta serora etxe zombatekin ez zaukan?

Berak bere gain hartuz, edo adiskide zenbeiten laguntzarekin, bazituen han hemenka komentu batzu ezarriak; ttipi eta handi, ahul eta azkar, predikari, eskola-emaile, lur lanean erakasle, haur umezurtz eta eri xaharren aterbe, ospitale; apez xahar ezindu, deus gabentzat sokorrizko etxe. Zonbat holako ez du egin, edo hasirik utzi, ezin bururatuz, edo ez haizuz?

Hortan zen ala beti haren gogoa; ekarririk beroena holako lan batzuei buruz zuen.

Ez doakigu guri hemen erraitea, ez ote zoan batzutan urrunxegi, xede bati buruz oldarra behin hartuz geroz; ala xede onak zituelakotz uste zuen beti zuzenean zela?

Bego hori Jainkoaren gain. Guk haren lan guziak bezenbat eta gehiago daukagu, hein hortako gizon eta apez batentzat, bere auzi eta nahigabe guzien ondotik, bizi baitzen hor, Baionan kokatuz geroz, bere



xokoan, egundaino deus izan ez balitz bezala, nehorentzat hoztasunik gabe, ez eta lanari den gutiena uko egin gabe.

Nahi bezen barne eta inguru handia izanik ere, ez da dudarik haren gogoak ukan duela denbora batez zer jasan. Orenen gainera orai ondarean honbertze komentu hetsirik ikustea, bertzeak oro hestera joaki; honbertze fraide eta serora barreiatuak, ahal duten bezala bizi; anhitz Espainiarat edo ahal duten lekurat doazila; urrikari zituen. Laguntzen ere ba frango beren behar-orduetan. Hoik orok ez diokete onik egin haren osasunari. Odolak eiki burua jo. Hamar, dotzena bat egun iraun du eri, loeria batek bezala, emeki-emeki hartu du gaitzak, geroago azkarkiago. Hastetik medikuak beldurtu, deus onik ez zuela; bainan deus ezin egin.

Eyheralarre-Zaron sortua zen. Hasparneko misionestetan sartu baino lehen, herri berean egona zen bikari. Eta ordutik, bere bizi guzian bezala, bazaukan komentuekin. Herriko populuan, ezbertze batek bezenbat bitarteko jendearekin; ardurago handiekin, eta gero pobre herresta apalenekin, batez bertzea ontzen zuela.

Gaineratikoan orok ere, bizi gireno, badugu dituzkegun itzalen hatzemaile frango. Hilan orroitzapena hain duzu laburra, non heien etsenplu onez baizik ez baikinuke ahalaz mintzatu behar biziiek elgarrekin.

Bertzalde hunek, bere itzulika guzien ondoan, ez aitzinean, behin ere ez du apeztasuna eta erlisionea ohoratu baizik; hura baita orenen buruan beharrena.

Luzegi loakiguke Arbelbide zenaren eskuarazko liburuez mintzaztea, eta eskuararentzat zuen atxikimenduaz. Geroago ere ordu ditake hortako.

Egun bakarrik hitz bat, ondarrean gogoratzen zaukuna. Zer den gutaz mundu huntan! Eta zer erran ditaken gertaturen denaz... ez denaz!

Arbelbide zenak ez balu Hazparneko misionestegia *komentu* ezarri nahiz ukan zuen auzia galdu, ja egungotz etxe hortaz framazon ohoinak jabetuak litazke. Eta oraike misionestek gobernamentu tzar hunekilako auzia galdua zuketen segur. Bazuen beraz hor misionest buruzagi ohiak ohiko minaren sendagailua.

Eskualdun Ona, 1905-03-03

SAINT MARTIN HARRIAGUE

Gizon on bat galdu du Eskual-herriak, eta bereziki Hazparneko herriak buruzagi on bat.

St. Martin Harriague, Morrotxkoteiko semea, bere sor-herriko auza-pez, kantonamenduko kontseilari jeneral, eta Baionako arrondizamenduko bi deputatuatarik bat zena, hil izan da, egun zortzi, Parisen; gizonaren adinik hoberenean, haren eta halakoen beharrik handiena Eskual-herriak eta Frantziak zuketen orenean.

Gogoak emaiten daukun bezala mintzo gira hemen beti, lañoki, orotaz; huntaz ere halaber mintzatuko.

Atsegin dugu, herritar ongi-egile handi baten gorestea, bere merezimenduen arabera; ba eta bihotzmin herriarentzat, ingurune herrirentzat, eta oraino urrunago, gorago behatuz, hil hunek deputatuen ganbaran ja zenbeit urte huntan hain gizonki, geroago eta gizonkiago zaukan tokia bet-betan hoin goiz, hoin uste-gabea horrela hutsik ikustea.

Zer eskasa ez du egin behar hunek, bere xede onekin, bere gogo zuzen, zail eta azkarrarekin hanbat ederki eskuetan zauzkan gider guziei buruz?

Zer zilo ezin betezkoa, edo nekez beteko dena ontsa!

Dugun aitor egia; ez ginuen usteko bertze orduz, duela hamabortz, hamasei urte, egun batez hemen berean, *Eskualdun Ona* huntan, guhaurek laudatu behar izanen ginuela, guk eta orok orduan, hastapen hartan, gure etsaiekin bat, eskuz-esku zoala, ikusi gizona.

Ez, ez ginuen segurki holakorik erranen orduan, ez guk, ez nehork; bertzelakoak baitziren orduko itxurak. Bainan geroztik hunat, urak bide egin du; gizonak ere ba.

Gu gure hatzetik higitu gabe, ikusi ditugu lehenago xuxen zoazine-atarik asko makurrerat lerratzen; bertze batzu —bakarrak ba, bainan hanbatenaz merezimendu gehiago dutenak— makurrerako bidea utzirik, onerat egiten, eta egunetik egunera finkatzen on hartan, gero-ta barnago, haize kontra; ohiko adixkide minenatarik anitzekin samurtzerainokoan.

Hetarik bat hau, hunekin lehengo deputatu gorri eztiatarik zenbeit; gizon zuzenak beren hartan, eta zuzenak direlakotz, ohiko ala oraike eta betiko gorri gaixtoek, tzarrek, lehen xuriak bezen edo gehiago begietan baitituzte orai.



Ageri zen aspaldian huntara ginoazila; gorri eztiak, zuzenek, ez zutela ihardokiko ahal gaixtoen oldarrari. Ez zen profeta izan behar, orai-ko makur izigarriak urrundatik heldu zirela ikusteko. Jin dire, guk eta gurekin anitzek aitzinetik erran bezala.

Bainan erranen ez ginuena da gertatu: hainbertze gizon makur edo ahulen artetik zenbeit agertu baitire, hau bezala (eta hau bezen bat nehor guti), *zinezko-gizon*. Ez berehala; haste hartan eta geroxago ere behaztopa frango eginik daude, orai onerateko eskualdea daukatenetarik batzu. Bainan goiz ez bada berant, beren ahalaz onerat itzuli baitire, apur bat bederen eta hau bezalako zenbeit kasik osoki itzuli edo batetara doana, agertu kanpoz betidanik barnez ziren bezala, biba hek, eta oroz gainetik biba hau. Hunek, bereziki azken lau, bortz urte huntan, kasik beti gure gogorat eman du bere boza Parisen: zuzenaren alde, gure erlisionearen kontrako lege tzar guzien kontra; bazter nahastea, gerla eta gaixtakeria baizik gogoan ez dutenen kontra.

Hortakotz gorriek, eta guziz *framazonek* eta *zozializtaket* direlako makur bilatzaleek begietan hartzen ari zuten; ja hartua ere hainbertzetaraino non, heldu den maiatzean jazarri gogo baitzazkon, hura kendurik ahal bazuten, haren ordain ezartzeko bertze bat, edo berenaz tzarra, edo ahula, sudurretik nola nahi erabiltzekoa.

Beren ustez hau ere bertze orduz hala berezia zuten; aberatsa zelakotz, errepublikanoa eta sortze apaletikakoa, beren eskuko xoxoa zaukaten. Bainan uste baino gizona beren buruaren jabeago dute hatzeman.

Ez hemen hemengo kargudun kixki oro zangoen azpian ezarri nahi zituztenek, ez nehun deputatu lagun gorriagoek, ez prefet, ez eta ministro, ez bertze nehork ezin kordokatu dute hura bere hartarik.

Ote zakien hastetik, zer putikoekilakoari lotzera zoan, ala ondoan ditu ezagutu, ikusi? Dakiguna da, behin ezagutuz geroz, merke uzten zituela bazterrerat xede gaixtoko gizonak, ttipi ala handi, bere karguari zoazkon eginbidetan.

Gaineratiko eletan ez gira sartzen: «hau edo hura ein balu: ba etsai ba adixkide, orori buruz holakoa izan balitz, eta ez halakoa». Xehetasunetara gabe, dugun erran bakarrik hau: ongaitz guziak oro hartuz, bana bertze, badela, egungo egunean, gizon makurragorik hogoi-ta bortz.

Batek alabainan ororekilakoa ezin egin.

Gizon publikoaz bezainbatean abiadurako itxurak, ba eta lehen urratsak orok dazkitenak izan baditu ere, azken urte hautan oro ahantzarazi dauzku.

Alta nehork ez zuen bildu, ez baitzen bertzek erabiltzekoa. Bera da ohartu non zen eta noekin: eta zer egin behar zuen; eta behin bide xuxenari lotuz geroz, nork kordoka hura?

Badago azken huntarat bere lagun herritar deputatu ezti direlakoak ere utzirik, zoazila nahi zutena erran eta egin, badago hura bakarrik bera gelditzen bozaren emaile, goraki, erlisionearen alde.

Atsegin dugu, erran gabe doa, jakitea, elizako azken laguntzak harturik hil dela; bainan den bihurriena ere norapeit biribilkatzen da hiltzerakoan. Jainkoak denbora uzten badio, bere baitan sartzeko.

Hau ez da egon azken orenaren beha: lehenago du bere baitan senditu eta erakutsi bere burrasoen, adixkide zinezkoen, herritar girixtinoen, bere bi andere ixil eta on, bat hila, bertzea bizi utzi duenaren erlisioneari gero-ta gehiago zaukan atxikimendua. Haren eginbidetarik handiena zen hori, eta zeren duen hori azken urte hautan ikusi dugun bezala, bete, zor ginion gure ezagutza.

Dezala luzaz atxik, Eskual-herriak galdu duen gizon onaren orroitzapena!...

Eskualdun Ona, 1905-08-25



LOUIS ETXEBERRI

Egun zortziko berantegi jakinik, laburzki baizik ezin eman dugu Louis Etxeberri, Donazarreko seme, auzapez eta ongi-egile handi zenaren hil berria.

Alta ez ginintazken azkenak izan nahi guk, hemen, *Eskualdun* gazeta huntan, haren laudatzaile, hura zen Eskualdun egiazkoari doakon bezala.

Bere bizi guzia, on zeno eta haizu izan deno, Eskual-herriaren onetan ereman baitu, eritasun bera garraituz anitz urtez; ba eta zenbeit aldiz eritasuna baino jasan-gaitzagoko nahigabe asko Ez badu beti bardin osoki laño eta ezti erakutsi bere burua, bazuen batzutan zertaz errangura.

Bihotz ona duen gizonari deus etzaio hain gaitzi nola eskergabeke-ria. Eta Jainkoak daki, egungo egunean, hura zen bezalakoek zenbat biotz-min duten iresteko.

Beren sor-herria itsutuki maite; haren onetan zerbeit egin nahi. Nahi zuketean guzia ez eginik ere, ahal guzia bederen egin eta gero... daki-juena.

Ahalgegarri diren gizon, gizontasun izpirik gabeko batzuei behar leku egin!

Ongia egin, eta hoztasun zenbeit barka dazkioke hari, non ez den jazartzen hobendun ez denari. Eta zertako ez, orduan ere, uste gabearen gain eman hutsik handiena?

Aspaldiko urtetan hainbertze bidegabe egiten daukun politika madarikatu horren tzarkerietarik bat izan da eta ez ttipiena, adixkiderik hoberenak berak nahastea...

Gaixo Etxeberri! Hemezortzi urte ditu, haren ezagutza eginik, lana-ri lotu ginela, hura buruzagi, *Eskualdun* gazetan.

Ezen ordu da erran dezagun, *Eskualdun* gazeta bat balin bada Eskual-herrian, hari esker dela lehen-lehenik.

Hari zitzaion hau gogoratu; harek zuen hasi, adixkide zenbeiten laguntzarekin, bainan lehenbizian gehienik bere lanez eta bere diruz.

Bi urte zituen hasia zela, gu sartzean, geroztik anitz urtez elgarrekin lan berean aritzen gira.

Goraki erran dezakegu beraz, gure izan dela luzaz Louis Etxeberri, eta gu harenak. Ez dezakegu hori ahantz eta ez dugu nahi ahantzi.

Eta zuzen da gazeta hunen irakurtzale guziek jakin dezaten hamasei urte iraun duen *Eskualdun* gazetak bere aita Louis Etxebarri zuela. Doala bakotxari berea. Iduri zauku, hil dena bizi balitz, atsegin zukela, hau hemen irakurtzea.

Hain zen atxikia bere *Eskualdunari* non, orai duela lau urte, utzi zue- nean lan hau, gazetaren izena beretzat beiratu nahi ukan baitzuen, zer gerta ere.

Geroztik hunat izenez eta buruzagiz aldatu-rik, langile berek lan bera deramagu.

Eskualdun Ona bere eskuko ez izanagatik, begi onez ikusten zuen beti, hedatuz eta azkartuz joaki, gure buruzagi ohiak.

Dakigunaz mintzo gira. Hala ez balitz, ez ginezake aipa; bainan atse- gin dugu hori hala denaren erraitea.

Hortarik ageri da, zenbat ere baitzen Louis Etxeberri berak bere gogoan zuen hari atxikia, orenen buruan eta oroz gainetik. *Eskual-berria- ren* ona zuela nahi.

Gazetaz bertzerik egin du, bai hartan ari zelarik eta bai hura utziz geroz. Eskual-herria, Eskualdun etxea, eta guziz laborari etxea nahiz ikusi azkar eta iraunkor, zenbeit lerro izkribaturik dago gazetak baino gorago- danik mintzo diren batzuetan, nola baita «Réforme sociale» deitu bat, erakusten duena zoin den erlisionea gauza ona, gauza beharra, mundu huntako bereko; bertzekoa bertzalde.

Zenbeit urrats erabili ere du Garaziko laborarien dretxoak ez nahiz galtzerat utzi. Etxetik kanpo egin duen azken urratsa, ja eri zelarik, eta zoin zen eri zakielarik, egin du, ez nahiz Donibaneko konkurra huts egin.

Jainkoak saristatu du bere borondate onaz; eman dio hiltzerakoan bere eginbidearen betetzeko denbora, eta ezagutza osoa.

Bere konfesora deitarazi du; eta jin denean, oharturik ez ziotela nahi zuen bezen laster igaranazten goiti, galdatu du, zeren goait zauden; bere- hala nahi zuela konfesatu, biharamun arte iguriki gabe. Ikusgarri omen zen haren kuraia eta fede bizia.

Jainkoak duela haren arima. Eta guk Eskual-herrian, bereziki *Eskualdun* On huntan, hunek eta guk dirauguno, haren orroitzapena.

Eskualdun Ona, 1907-10-23



ADEMA APEZA

Eskualdun bat hil da. Balin bazen eta izan bada egundaino egiazko eskualdunik, hura zen.

Eztut erran nahi eskualdunaren ongaitz guziak oro bazituela; bainan haren gogoa, bihotza, lana, hots, haren izaite guzia, solas eta urrats, Eskual-herriari, eskualduntasunari zatxikizkola, ba.

Eskuararen eta eskualdunen aipamena, zoin eder, zoin handi, zoin zahar, leihorrez leihor, menderen mende, hel ahala urrun oro zauzkala, loria zen haren aditzea.

Etzitzaioken beti jarraik, ez baitzuen gizagaixoak hasiz geroz bararik.

Bainan hain zen solas-egile maitagarria, haur hona: bere zaharreen ere haur bat bere aita amez ezpantuka bezala mintzo beti Eskual-herriaz, eskuaraz, Eskualdunetz, non onerat baizik ez baitzitazken har haren ateraldiak.

Koplaria zen lehenetarik; bainan egun zortzi mintzatuko gira hemen Adema zenaren kopla ederrez.

Egun bakarrik Eskualdunaz gira mintzo, eta apezaz.

Apeztasuna eta Eskualduntasuna, biak elgarrekin, zerbeit badira. Hitz dautzuet bazakola zerbeit Adema zenari.

Eliza gizona zen: predikaria, kantaria; gostu handia zuen elizaren apaintzen, ba eta hortako jakitatea ere. Egon den herrietan bada harek eginikako asko lan; bera langile.

Bikari egon zen sei urte Hazparnen; erretor Bidarrin hamar urte; gero Atarratzen hemezortzi. Azkenik Baionan kalonje. Han hil da eta Senperen ehortzi, elizako ohoreak Baionako katedralean izanik.

Ehortze horrek orroit-arazten gitu Hazparnen bikari zelarik, 1858-an izan baitzen izigarriko eritasun bat, sukar ustela, etxe bakarretik hiru, lau jendetarino ereman zituena (ez kolera denboran; hura lau urtez lehenago zen); orroitzen gira entzunik batzuen eta bertzen ahotik, eriz eri zabilalarik, kuraia handia erakutsi zuela.

Omen zion: sekulan egitekotz, orduan zitakela behar pilota partida eder bat egin, jenden gogoaren arintzeko. Hura behar zen izan, uraren ginean pilotarietako beha egonen zena, uste izaiteko Kaskoina deitu pilotari handiaren eta haren lagunen pilotan ari ikusteak haizatuko zuela gaitza.

Omen zion eritasunak baino jende gehiago zeremala beldurrak, izialdurak, edo bederen askori eritasuna izialdurak lot-arazten ziotela.

Hain xuxen, bertze anitz bezala, orduan hil zen, sukarra bildurik, Kaskoin pilotari famatu hura.

Nolazpeit beti pilota partida handi bat segurik egin zen. Ezen hiltzerako bezperan, Kaskoinak ohera ekararazten omen zituen, berak galdaturik, partidaren berriak, ponduz pondu, ari zirelarik pilotariak plazan.

Ordu berean sukar usteletik hil zen Hazparnen Hazketan neskato gazte bat; izialdurarekin oro ihes; hilketarietako ere ez nahi kutxan sartu hila, Adema apeza hilaren beha han.

Ikusiz auzoen beldur-ikara, bi hitz erran zazkoten ez behin ahanztekoak; hartu berak hila besoetan eta sartu kutxan.

Orroitzapen lazgarri hortaz bertzerik izanen dugu aipatzeko, Eskualdun apezaren ondotik mintzatuko girelarik egun zortzi koplariaz.

Adema Senperat kalonje zena, orai duela berrogoi-ta hamar bat urte, Hazparnerat bikari joan berria zen. Beti ere guti edo aski, bainan guziz denbora hetan, baziren Hazparnen koplari eta ditzolari, gizon bitxi jostakin anitz; batzu jaun, bertzeak deus gabe, bainan omore onez eta irri egin-arazteko ateraldiz oro bardin aberats.

Adema zenak lehen ezkontza benedikatu zuelarik Hazparneko herrian, jaun *Gose*, eta andere *Egarri* zituen elgarretaratu.

Hainbertzenarekin eliza aitzinean gaindi zoan, jaun-anderen berri zakien gizon bat, nahiz eztuen batek ez bertzeak egundaino nehor hil Hazparnen. Moltsa bezen arin zuen gogoa erran den gizonak. Izena, Mañex Tturla. Eskuak sakelan eleketa zauden batzuek hor galdatzen diote: zer den berri. «Orizue, zera: bikari berri bat dugula gaitza predikaria. —Ba ote? —Ba, ba; leher egin dezadala baietz. —Eta nondik dakizu hori, zuk Mañex? —Eztuta nihaurek aditu? —Noiz? Non? —Oxtian, elizan. Ala eztakizue nor zen espos egun? —To, eta halere!... Eta zer erran deie? —Etsorta bat eman zeiek, gizona, itsuski ederra. —Baia, Mañex? —Ba, poxi bat ba! Labur nahi baduzue, bainan sarkor eta zinez! —Ikasi duka? —Zer bada? —Hitzez hitz. —Eta ikus? —Huna: "Jaun andere espos maiteak, egun hemen enekin duzue egitekoa. Bihar goizetik harat, ukanen duzue eiherazainarekin!"»

Batek irri, bertzeak irri. Ez gutienik Jaun bikarioak, jakin zuenean Mañexen ateraldia.

Hortarik has, holako zer nahi bazuen Hazparnen entzunik batzuetarik eta bertzetarik Adema zenak. Xahartu ondoan ere, pesta zitzaion hetaz orroitzea. Holako bitxi guziekilakoa bazaukan, are gehiago koplariekilakoa, bera ere ditzolaria baitzen. Artzen ziren koplan, batek bota, bertzeak errefera. Bazuen segurki nori ihardok bikarioak, Hazparnen.



Bainan handik lekora ere, beti orotan, Bidarrin, Atarratzen, Baionan, bere jitea jarraiki zaio Xoilki, hastean josteta, gero zinez, arta handirekin apainduz, legunduz, hunki eta hunki, bere koplak ederrak, ari izan da beti ontsa baino habeki nahiz eskubilaturik utzi gazte denboratik zahartzera-irako lanak: koplari lanak. Ez gire hemen mintzo apezarenez.

Kopla hetarik ezagutuenak dira: hemezortzi, ala eztakit hogoi *alegia*, fables! Bertzalde hogoi-ta hamar bat kopla andana, haur eta hura solas. Hoik ez erlisioneaz batere. Zer nahitaz. *Alegia* hetarik luzeena, ederrena da: *Abereak izurritearekin* (les animaux malades de la peste).

Alegiaz bertzalde direnetan, nork ez ditu ezagutzen *Txuriko*, *Pilotariak*, *Betirisants?* kopla hoik oro kasik pollitak dira biziki.

Erlisioneari doazkon koplak ez dira gutiago ederrak: Badire zazpi, katiximako irakaspeni datxikotela: *Jainkoa*, *Kreaizjonea*, *Inkarnazjonea*, *Aingeruak* eta holako.

Hamabortz, hogoi arte hori kopla andana, Andredena Mariaz eta bertze saildu batzuek mintzo.

Azken hauk ez dira oraino agertuak, bertze guziak ba. Orotako ederrak da: «*Ubalde baten pare*». Orroitzen niz Adema zena bera ikusirik nihaurek, eta entzunik, orai duela hogoi-ta zortzi edo bederatzirte, hantxet, Lurden, Eskualdun beilari andana batekin aldizkatuz emaiten kantika eder hori. Zoin gogotik eta zer karrarekin!...

Kantaria ere zen biziki gaztean. Zahartzeari, boza galduz geroz, ezin aditua zen, eta halere beti azken egunetaraino kantatzen zuen *giza-gaixoak...* alegia!

Aurtengo gure Almanakan irakurtu dituzketzuen koplaldietarik bat, ala ez ote biga, bat segurik ba, harena zen «*Okerrak okertzaleari!*»

Agertzen zituen koplak azpian ez zuen bere izena emaiten, bainan alegiazko izen bat, beti bera: Zaldubi. Ez baitago izen hori behin eta behin ahantzirik Eskual-herrian.

Eskualdun Ona, 1907-12-20

DE LABORDE-NOGUEZ

Gizon bat, Frantziaren eta Eskual-herriaren ongi-egile bat gutiago lur huntan; saildu bat gehiago zeruan.

Amedee de Laborde-Noguez, Uztaritzeko auzapez, kontseilari jenerala eta gure departamenduko deputatu ohia, hil da iragan astean Haitzeko jauregian, hiru egun baizik iraun ez dion eritasun batek eremanik.

Bazituen 86 urte beteak.

Beteak, nehorrentzat erraitekotz, hunentzat dezakegu erran; ezen orori beti ongi egiten ariz mundu huntan giristino fede oso, fede argitu bezen azkarreko batek emaiten ahal duen etsenplurik ederrena du eman hunek bere bizi guzian; gaztedanik zahartzera; gero eta ederrago azken urtetarat.

Erlisionearen ohorea da: haren itzalean, ez alfer, bainan gorderik eta ixil, haro den gutienekorik gabe bizi direnek, hil ondoan, ba eta lehena ere argi ezti, gozo batzuek bezala baitute distirutzen.

Berek uste, ahantziak direla, zeren urrats bat ez baitute nehorat egiten, beren buruen agertzeko.

Ez iduri, behatzale handirik badutela ere, guziz egungo egunean, begietarat errauts emaile deus ez, edo deus onik ez tirenek oro berengana itzuliak dauzkatelarik. Eta bizkitartean itzali dire ba? Begiak hetsi dituzte ba? Etxetik elizara, elizatik etxera, edo ezin utzizko joanjin bakar batzuetara baizik aspaldian etzituela nehork ikusten... iduri. Eta hil direnean, herri guzia eta auzo herriak oro hartuak holako gizon on baten galtzeaz.

Etsaiek berek laudoriorik baizik ez. Nola duketen ere holakoek etsairik! Hunek etzuen berak nehon nehor, gure Jainkoak dituen hek baizik. Eta eztugu egundaino entzun, den gaixtoenak ere huni egundaino itzal bat kausitu diola.

Hunek zuena, ez baitzen batere bere buruaz hartua; beharrez ahalaren egiterat ba beti prest, bainan izpirik ez ohore gose; nahiago bere familian bizi.

Etxeko hek, bere bi semetarik etxean bere ondoko zuenaren haur lerro ederra, herriko apezak, herriko pobreak, auzo hurbilenak eta zenbeit adixkide noizetik noizera ikusliar heldu zazkonak: aski ziren harentzat Gaineratiko denbora bere liburu maitekin zeraman eta otoitzean.



Gostu gaitza zuen liburu on eta ederretako; argitu zen ere biziki, oraiko gizonetarik nehor guti den bezala.

Egunean bi aldiz egiten zuen ahal zuen guziez elizako sar-jalgia, ba eta sar-jalgi baino luzeago. Goizean mezaren entzuteko; arratsaldean Sakramendu Sainduaren aitzinean egoiteko.

Herriz kanpo zenean ere, bazaukan hori. Maiz mahain sainduan zela erran gabe doa. Ele ona zuela ere ba ororekin; bertzek ere ba, nahi eta ez, harekin. Xeha zelarik eta mintza-errea, beti halako errespetu bat emaiten zauntzun.

Auzapez, kontseilari jeneral zelarik luzaz, deputatu izan den lau urteez, zuzenki eta gizonki egin ahalak oro egin ditu beti.

Etzen lotsa lanari, ez eta behar zenean, jalgitzeari. Harek egin eztuena egundaino, da: bere gizontasunaren eta giristinotasunaren apaltzea, zer-beiten ardiesteko, Frantziar orduko jabetuak ziren gizon galdu galgarrien aitzinean.

1885tik, 1889 arte izan zen deputatu. Zenbeit aldiz erranik dago: bazoala, eginbidea zuelakotz, deputatuen bilkurarat, bainan okaztatzen zutela han entzuten eta ikusten zituen itsuskeriek; atsegin hartu zuela *beretzat*, handik jalarik, jendeekin bizitzeko bere azken urteak.

Adixkide batek galdatu zion behin: zer ele egin zezaken hura zen bezalakoak orduko ministro eta heien kideko tzarrekin Ihardetsi zion, begietara behatuz: «Nik?... Hitz bat ez diotet egiten. *A ces gens-là!... jamais un mot*».

Gure jakinean haren ahotikako bizitasun bakarra hori da.

Erranen duzue: etzela beraz on deputatutzat. Ez naski! Bertzeak ez, ez baitziren on harekilako.

Holako gizonak, merezi zituen ehorts egunean ohorea eta otoitzak. Izan du egile.

Jaun Apezpikua, Diharce Jaun bikari jeneralarekin eta bertze kalonje lagun batzuekin. Hogoi-ta hamar bat apez. Auzo hiri eta herrietarik etorriak jaun eta andere anitz; jende xehe araberan hainbertze edo gehiago. Deputatu lagun ohi batzu; han ikustea gehienik hunkigarri zena: Labat Jaun Miarriztarra, hilaren adixkide berezia, anitz urtez Baionako auzapez eta Eskual-herriko deputatu izana; asko gisetara hil hunen eite duena; pixkorrik etorria 91 urtetan, bere adixkidearen lur saindurat segitzera.

Arrotz anitz, bainan oro baino hurbilago hilari, eta nonbre handitango herriko jendea. Zenbeitek zor baitzioten!

Ezagun zituen guzien ahokiari jarraikitzaile izana baitzen bera, den apalena berexi gabe.

Erran ditake bazela iragan larunbatean Uztaritzeko elizan etxe bezenbat doludun. Eta bizkitartean *minduru* nehor ez; ez eta etxeokak ere.

Zer da ederragorik, ehorts arratsaldean Jaun Apezpikua familiaren ikustera joan delarik, hilaren seme, Haitzeko nausiak erran diona baino:

—«Jaun Apezpikua, nehor eztuzu hemen ikusiko nigarrez Guk gure aita bezenbat gure haurrek maite zuten aitatto; bainan sobera ginaukan saindua, ez izaiteko segur, ja Jainkoarekin dela haren arima ederra».

Holako hilaren ondokoek, etxean ta herrian, badute nortaz orroit

Eskualduna, 1910-03-04



FLOKET-RENAUD

Hilabete hunen hamarrean, etzi zortzi, Donibane-Garazin pesta baten egitera doazi Eskual-herriko eta inguruetako framazonak.

Alegia Errepublikaren ohoretan dela pesta hori, framazoneriak du hor Eskualdunen libertatea eta erlisionea zangopean dauzkala erakutsi nahi.

Bi gizon hor aipu direnen ohoratzea estakuru bat da, bertzerik deus ez. Egiazko xedea, eskuko erriak iguzkitara bezen ageri dena da: gutaz Eskualduneh nahi dutenaren egiteko, nausi ditugula erakustea, framazon hoiek.

Hoik ditugula etsai, badakigu engoitik aspaldi; baina oraiko huntan bezen agerian ez dabilta beti.

Hemengo framazonek Frantziako framazon bilkura guziera galdegin zioten laguntza, pesta hortako.

Guti edo anitz, orok hitzeman bederen diote, Floket framazon zenaren ohoratzeko zerbeiten emaita.

Framazon bezala dute beraz ohoratu nahi Floket framazon zena, eta ez Eskualdun bezala.

Nehon guti du egundaino erakutsi bere burua Eskualdun bezala; guti baino gutiago: batere ez.

Donianen sortua zen, baina ez delarik hain aspaldi hila, nor ote da Donianen orroit hura ikusirik sor-herriari nor nahik ere daukon atxikimenduen erakusten?

Nor zer da Donianeko hirian hari esker eginik? Haurdanik urrundu sor-herriak, gazterik Paristartua, noizetik noizera heldu zen Eskual-herriat bere ahaide batzuen ikustera; hori ere bakan, zeren hemengo ahaide hurbilenak beraz bertzelakoak baitzuten.

Baina hauk ere ez Doniane Garazin. Aipatzen ere ez zuen Donianen sortua zelakorik, eta haren berri dakitenek diotenaz, ez omen zuen laket, bertzek aipa zezoten ere sor-herria.

Hots, arroztua zen osoki, eta goizdanik. Haren gogo ez zen hemen.

Sor-herriari, bihotzez edo buruz, nolazpeit, azkenean zangoz bederen atxikiak direnek badaukate beren herritarrekin.

Gizon publiko bilakatu nahi direnean sor-herriko deputatu edo zerbeit sartzerat lehiatzen dire. Hunek ez du hortaz behinere axolarik agertu.

Ahaidetasunezko atxikimenduak balin bazauzkan, ez ordean eskualdun-tasunezkoak.

Eskual-herriarentzat bereziki, ez eta bere sor-herriarentzat ez badu deus egin, Frantziaren ongi-egile izan ote da? Zer ongi du egin?

Hogoi-ta hamar urte huntan framazonek eta heiekilakoek gure erlisioneari kontra egin lege tzar eta gaineratiko jazarkunde dazkitzuenak oro *ongiak* balin badire, hainitz ongi egin du. Hala ez badire, gaizkirik baidir ez du egin.

Gizon batek bere buruaren altxatzea, ohoretarat heltzea, Deputatuen bilkurako president behin baino gehiagotan izaiterainokoa, buru puzka bat bazuelako marka da. Baina sor-herriko jendearen eskeren merezitzeko, behar da bertzerik.

Horra odol hotzean egia, eskualdun giristino arnegatu dohakabe zenarentzat gehiagoko janizarik, ez aiherkunderik gabe.

Hein huntaraino ere nahiago ginuken ezinbertzean ez aurkitu hemen huntaz mintzatzeko.

Floket framazon, erlisioneari etsaienatarik bat hil zenean, egin gaizkiaz urrikitu gabe; gero hortzi zutenean bere lagun framazonek, elizako sar-jalgi be, ez fritsik gabe; orroit gira, zer bihozmina izan zen hemengo eskualdun giristino, haren ahaide hurbilentzat, erlisionerik gabeko ahokia bati ezin jarraikiz, berak berex joan behar izan baitziren eliza batean otoitz eta nigar egiterat.

Orroitzapen samin horren erreberritzek oraino ere bihotza hautsi behar baleie bizi direnei, ez da gure falta; eskualdun arnegatu edo arrotz axola gabe, hemen gaindiko framazonen gain doala.

Mixel Renaud, bere itzalekin eskualdunago zen; Garaztarrago ere. Giristinoago? —Ba balin ba, batere izaitekotz. Izaitez, sinestea bazuela zion berak, eta daukagu zinezkoa.

Eskual-herriari ere atzikiagoa zen, bere heinean; baina erran behar da, ez zen gizon handia; ez handiaren aldekoa ere.

Gizon ona ba, edo bederen bihotzduna. Ezen bihotzdun eta *on*, biga dire, nahiz ongi doazin, elgarrekin direlarik.

Buru baino bihotz gehiago zuen. Enperadore zena nausitu zenean, Frantziako lurra gal-arazi zioten gizon zenbeiti; hetarik bat zen hau. Gero berritz utzi zuten sartzerat hobeki eginen baitzuten, ez kentzea.

Gauza hitsa baita beti, —nehondik ahal bada ez egitekoa— gizonari bere sor-herriaren gal-araztea.



Hiruetan hogoi-ta hamarreko gerlan, engeiatu zen soldado, ja 59 urte zituelarik. Hortakotz bereziki luke merezi Eskualdunen orroitzape-na. Hortakotz egia den bezala erran dezagun bururaino; geroztik zenator izan delarik, boza behin baino gehiagotan eman du erlisionearen etsaien alde.

Nola egin zuen hori galdatzen ziotenei, ihardesten zuen: Pariseraz geroz, hango lagunek beretzen zutela; han sartuz geroz ez zela bere buruaren jabe.

Gizon piru ahulekoaren ateraldia hori. Bainan egia zuen. Buru guti, eta hura beroa, barka zakioken bertze bati baino behaztopa gehiago.

Ororen buruan, daukagu, Mixel Renaud zena hemen estakuru bat dela, Eskualdun zenbeiten eta bereziki soldado ohi zahar andana baten biltzeko pesta hortarat.

Lehen eta azken xedea, xede nausia framazonen gogoan —bertzal-de berek errana, hau— framazoneria Eskual-herriaz jabetzea da; jabe direla, nausi direla, zangopean gauzkatela, sendi-araztea.

Horra zertako, igandean zortziko pestan aurkituko diren, hemen gaindiko framazon guziak; heien esklabo eta eskumakil, eskualdun giris-tinotasunaz ala jazko haizeaz bardintsu axola dutenak; gero edozoin pes-taren usainera laster egileak.

Bertzeak egonen dira etxean.

Eskualduna, 1910-07-08

CHARLES MINJONNET

Eskual-herriko seme hobeenetarik bat chortzi da Baigorriin joan den larunbatean.

Charles Minjonnet, Eskualdun gazeta hunen jabe buruzagietarik bat, Baigorriko kantonamenduko kontseilari jeneral zena aspaldiko urte-tan, hil da, zahartu gabe, bainan ez bera eta bertzeak ohartu gabe zerta-ra zotan.

Urte osoa baino gehiago bazuen zinez eritasunean sartzetik hunat, eta bozpasei hilabete huntan gero-ta gehiago beretuz zeraman gaitzak

Duela zonbeit hilabete, beldurturik burua har zezon paralesiak, nahi izan zituen, zer gerta ere, hiltzerako eginbideak bete. Zer mintzo zen, ihardetsi zioten etxekoek; etzela segurki oraino hartan. Hartan bazen eta ez bazen, on zeno nahi zituela bere urratsak egin, apeza etxerat deitu baino nahiagoz, bera joan zen karrosan erretoraenera eta hanxe kofesaturik, etxerat itzuli, ziolarik, atsegin zuela, Jainkoaren aitzinean agertzeko behar zuena eginik.

Izaitez handik laster halakatu zitzaion burua, non ez baitu geroztik bertze kofesio funtsezkorik egin.

Artetan, hobekixago zelarik, aditzekoak ziren haren ateraldi batzu. Erran dituen ele azkenetarik hau izan da: «Beti eurial! Hauk aro hitsa! Ene chortze eguneko bederen ater baladi, hemendik eta elizarako bide luzean, jende onak ez diton busti...»

Zertaz orroit, gizagaizoa! Harek erraitekoa da hori, zeren betidanik ez baitzuen deus hala gogoan, nola oro ahalaz ontsa ikustea.

Hil aitzineko egunetan, ba eta lehenago ere, galdatua zuen, azken orenetan eman zezotela otoi eskuetarat haren ama zenak azken hatsa emaitzarekin ahurrean atxiki kurutzefika maitea.

Erran bezala eman diote; ba eta hura bi eskuz lotu kurutzefikari; eta iduri zuelarik bertzenaz ezagutza osoki joana, ez utzi nehorri kentzerat orritzapen hura, ez estalgien xuxentzean ere, hil arte.

Amaren orroitzapen ona eta fede bizia semeak bihotzean zituela beti ageri da.

Beretzat bezala zen bertzentzat. Duela bizpahiru urte, adixkide bat eri gaizkiturik, bere atxikimendua hobeki ezin erakutsi zion, baizik ere, ikustera joan eta buruz-buru erranez, eskua tinkatzearekin, eztiki, bainan



gizonki: «Adixkidea, maite zitut, eta eztezaketzut froga hoberik eman, galdatzea baino etzinukenez nahi, zer gerta ere, kofesio on bat egin?...»

Nihaurrek igorriko dautzut apeza.

—Milesker, nahuzularik».

Erran bezala egin. Behartu ere zitzaion eriari adixkide onaren kontseilua.

Solas hori berak ondoko egunetan guhauri aipatzearekin, behinere ikusi ez ginion begitarte samur bizi bat hartu zuen, ziolarik: Gaizki egi-ten dut ba naski hola mintzatzea; bainan iduri zaut oraiko apezak hotzago edo nik dakita... uzkurrago direla, bertzeak bertze, behinik behin ere bati, eri etsitu edo lanjerean denari fedezko egiez eta hiltzerako eginbide handiez mintzatzeko, kar gehiago zutela daukat lehengoek.

Behar zenaren egiteari, lehen-bai-lehen, azkenerat utzi gabe etziren lotsa.

Fede zahar, azkarreko eskualdunaren ateraldia!

Gaizo Minjonnet! Ez baitzuen uste, ez eta nik, xehetasun auk emaiten ari ditudan toki huntan berean ginaudelarik solasean, hak erran eta nik adi, hiru urte gabe hil behar zela...

Gaineratikoez, gizon ezti, gozo, zuzenean ororekilakoaren egiterat ekarriagorik nehor guti ezagutu dugun. Izpirik ez zen ohore gosea, ez handikaria, nahiz ez zuten handiek, ez handi beharrek izitzen; jende xehearekin laketago zuen.

Elean hurri aire bat zuelakotz, baziren uste zuketanak ez zela zen bezen buru onekoa. Hurbiletik ontsa ezagutu dutenek dakite zoin zen zuhurra, eta funtsezko gauzetan argitua.

Begietarat errauts emaileak ez zituen maite, bera ez baitzen halakoa, den gutienik.

Handi dena gizon publiko batentzat, guziz egungo egunetan, eta berezikiago hura zen tokian, etsai bat behar-bada ez du utzi Baigorriko herrian, ez kantonamenduan, ez nehon.

Haren etsai bakarra, gerla zen. Baitezpada beharrez jasaitera zagon, bainan ez bilatzera. Egiatzki bakezko gizona zen, eta bake denboretan, oraiko hauk ez bezalakoetan, bizitzea laketuko zukena. Ongi gehiago eginen ere ba mende nahasi huntan baino bertzelako batean.

Haren hobiaren aitzinean mintzatu dire hiru jaun: Katalogne, zenatorra; Sala, kontseilari jeneral lagun ohia; Kanitrot, haurdanikako adixkidea.

Azken bi hoiek erran dituzten bihotzetikako egia onak, galdatu dugu otoi egungo Eskualdun huntan eman ahal ukaitea. Hor dire.

Eskualdunaren irakurtzalek ikus dezaten zuzen da, zer gizona dugun galdu.

Katalogne, jaun zenator gorria bertzeak bezalatsu mintzatu da hartaz. Gogoan zer bazuen ere, han erran dituenak ez dire gaizki.

Bakarrik altxatu duguna da: gure alde daukaten gizon guziak Minjonnet zena bezen gizon zuhurak, eztiak, onak balire, aspaldi bakea ginukela Frantzian.

Baditake hori; bainan orduan oraiko zenatorrez bertzerik ginuke nausi Katalogne barne.

Gerla bilatzaleak erraitea gure faltaz dugula gerla, trufatzea da.

Bertzenaz ba guk ere daukagu, Minjonnet bezalako anitz gizon baginitu Frantzian eta Eskual-herrian, hobeki ginoazkela.

Baigorriin berean, iragan egun hoitan agertu da haren eskasa. Hura zen bezalako puska onaren hitz bat bera, edo ez mintzaturik ere, han haren itzala, onez onean, askiko zen, ikusi dugunik ez ikusteko.

Agian ukanen du ondoko, sarrixago, eta behin etsenplu on bat iza-nen da herriarentzat haren orroitzapena.

Eskualduna, 1910-08-26



RENE CLEMENT

Behar dautzuet erran, zer entzunik nagon, eta nor eta zer ikusirik iragan ortzirale arratsaldean, uztailearen 19an.

Apez lagun batekin joanak ginen bertze apez adixkide batengana, Angelura.

Eletik elera, gure adixkideak erraiten dauku, badakiela oren erditsu bat bidetan gizon adineko bat min izigarri batetarik Lurdeko Ama Birjinak sendatua.

Ikustera joaitekotan dela egun hautarik batez, jakiteko, zer gizon den, zer dion berak eta zer sineste duketen merezi, haren sendatzeaz dabilzan solasek.

Bertze biek erraiten diogu, ez denez berehala joan nahi gurekin; hura bezen jakin-gura girela, zerika ote den gizon hura. Baiez, gogotik, ez balu auzoan eri bat, kofesatu gabe hil dakion beldurrez dagona. «Zoazi berehala, hoin hurbil duzunaz geroz, galdatzera zer hein duen zure eriak».

Gibelerat heldu zauku laster, eriazen zainek erranik ez dela gaizkia-
go eta, hain xuxen, orduan lo dagola.

Hala bazen eta ez bazen, gure apez adixkideak bere eginbidea bete-
rik, bagoazi sendatua dela diotenaren etxerat buruz.

Hurbiltzearekin, emazte bati eta bi gizoni aldizka egiten diotegu
galde bera: Non da hemen mirakuluz sendatua delako gizon hura?
Hiruek, den gutieneko estonamendurik erakutsi gabe gure galdeaz, era-
kusten daukute nora joan.

Huna non giren helduak. Angeluko elizatik auzo hurbil da, herriko-
etxetik oraino hurbilago, parrean, bide handia arte, *Chalet Rouge* erraiten
dioten etxe ttipitto bat.

Bortz urte du han dagola gure gizona.

«Agur, jaun andereak. —Bai, zueri ere, jaunak. —Hola eta hola
gabiltza, min batetarik sendatu jaun adineko bat ikusi nahiz. —Zuen zer-
bitzuko. —Zu zira bederen? —Bai, ni eta bera. —Eta zurekilako hori? —
Hau, ene alaba. Bainan, jaunak, jar zaizte, ongi etorri».

Jartzen gira eta jartzen da gure aitzinean aita; haren ondoan xutik
alaba, esku batez aitaren sorbaldari, bertzeaz burua perekatzen diola.

Huna zer daukuten erraiten biek, artetan guk galde bat edo bertze
egiten daizkotegularik:

Aita, Rene Clement, jandarme ohia, Chalons-sur-Marne hirian sor-
tua da: 79 urte ditu; zortzi haur aspaldi handituen aita; seme bat ja hura
ere jandarme erretretatua; alaba bat eta bertze ahaide hurbil bat, biak
serora. Bortz apez ere ba omen ahaide; hautarik bat luzaz egona seme-
nario batetako lehen buruzagi.

Bertzeak oro gidaturik, alargun gelditu bera, 40 urteko alaba hunekin.

Behin egon zen Parisen «dans la garde»; gero jandarme bi lekutan,
azkenik Blaien.

Gero Baionan, 1869tik 77 arte.

Erretreta hartu eta hamar bat urtez «lac Brindos» izena duen uraren
eta inguruko ontasun batzuen zain egonik, erretiratu zen Angelurat.

Bortz urte, oraiko etxean dagola holetan alabarekin.

Duela hogoi bat urte, ilar xehe baten heineko botoin gaixto bat
agertu zitzaion eskuneko begiaren azpiko aldean; handitu, gaixtatu emeki
emeki.

Deus onik etzela min hura beldurturik, badoa Moynac jaun medi-
kuarengana. Hunek, Baionako ospitalera joanazirik, lokartu gabe, bi gizo-
nek bi besoak gibelerat atxikiz, kentzen dio bere mina, eta zauria loturik
egun berean igortzen du etxerat karrosan, sendatzeko esperantzarekin.

Xoilki erraiten dio, erro gaixto zerbeit poxi gelditurik berriz heldu
zaiola mina ohart baladi, doala berriz laster harengana; lehenbailehen
hobe dela holakoetan deus egitekorik denez, joaitea medikura.

Beraz hamar bat urte du horrek; hiru urteren buruan berriz abiatu
zitzaion bere min gaixtoa.

Bainan orroitz lehen aldian zer sofritu zuen, medikurat gabe egon
da sei, zazpi urte.

Mina itsusiago, eta gizona lotsago Jainkoak bakarrik senda dezake-
la, nahi badu; gizonak, ez. Otoitzean du gizagaixoak bere sinestea.

Galdatzen diogu, jainkotiarra izan denez gaztedanik beti. «Mais oui;
pas *bigot*» dauku ihardesten, «mais croyant et pratiquant toujours».

Sekulan ez duela behinik behin, otoitza utzi, luze edo labur. —
Igantetako meza? —Erretretatuz geroz beti jarraiki dela meza horri, dio
berak; eta alabak bazterretik: bezperetarat ere bazoala gogotik noiztenka,
on zeno.

Pazkoak, urte guziez, xuxen.

—Min gaixto hura zinuelarik, sendatzea galdatu duzu?

—Ba, segurki, eta ardietsi azkenean. Luzaz otoitzu dugu alaba
hunek, urrungo bertzeak eta nihaurek Ama Birjina. Zenbat aldiz ez gira
izan, gu biak, aitalabak elgarrekin, eta ez joan alaba hau bera, ni hemen



oinazetan utzirik, hor herriko eliza-arkuazpian baita Lurdeko harpe sainduaren itxura ezarria, bere harroka eta guziekin, haren aitzinean belauniko, hiru *Agur Marien* erraitera?

«Nik sendatu nahi, eta hunek osoki buruari emana sendatuko nintzela.

»Gauaz lorik ezin egin eta zer nahi ikusten nere minarekin, "je ne faisais que souffrir et prier».

»Arrats batez oherat joan, behinere baino gaizkiago, ontsa lokartu eta biharamun goizean iratzartu, hementxe nuen koropilo beltz ikaragarria egundaino ukan ez banu bezen sendo.

»Erran behar da egia xuxen: bainuen haren aldean bigarren diti bat, anitzez ttipiagoa, hura hemen nuen gelditua oraino; eta horra nun ere osoki ezeztatzen zautan, bertzea bezala, ondoko gauan. Bigarren goizeko, jaikitzean, orai bezen garbi nuen hemengo larrua, beha zazu».

Erakusten daut; ageri du kanibet sista bat hetsia; lehenagoko operazionaren marka omen. Min gaixtoaren ondoriorik deus.

—Mirakuluz sendatua duzula hori daukazu zuhaurek. —Ba, jauna, den gutieneko dudarik gabe. —Gau hartan ez zinuen hor deusere senditu? —Ez jauna. —Eta biharamunean ere, mihise, burukita, atorra lepo edo deus ez zinuten hatzeman odolztaturik, materiaz guti edo aski bederen zikindurik?

—Ez, jauna; fritsik. Oro garbi ziren.

—Erori ez ote zauntzun mina?

—Norat eror zitaken? Sobera zituen erroak zail eta barna lotuak, azkarki. —Barnerat egin balautzu?

—Ez, eta ere. Gogorra zen eta handia. «Nik ez dut bertzerik sine-tsiko, Andre-dena Mariak sendatu nuela baizik.

»Xoilki, erran baitute Lurden izan nintzela, ez da egia. Ondoan ba, izan gira, eskerrak emaiten. Aitzinean, ez.

»Erran baitute, Lurdeko ura emaiten ginuela ene minaren gainean, ez da egia. Xortik ez dut, dakitalarik, ez eman minari, ez edan, ez eta ikusi. Bakarrik otoiztu Lurdeko Ama Birjina».

Hainbertzenarekin auzoko emazteki bat sartzen zauku barnerat: «Hor zirezte, jaunak, Clement, gaizoaren ikusterat etorriak? Nik ez nuen egundaino mirakulurik ikusi; bat ikusirik hilen naiz.

»Ikusi bazinute hunen min izigarria, nolakoa zen! Intzaur eder bat bezen handi eta itsusi; gorri, beltz, ubel, halako zain batzuek zaukatela matelari.

»Begia kukutua; ezpainaren erdian baino gehiago beltz-beltza azke-nerat. Alabak, nere etxeko alabak, nihauri erraiterainokoa: Ama, zertako zoazi hoin maiz gizon dohakabe horren ikustera? Nik ez dezoket beha. Kalte egin ez baitzira beldur! —Zer nahun, haurra? Urrikari dinat».

Emazte auzo berak erran dauku, noiz eta ere harek eta ikusten zuten guziek etsitua baitzuten, azken egunak zituela uste... orduan dela sendatu bet-betan, gaurretik biharrera.

«Milesker eta ikus artio», erranik, han utzi ditugu; eta jo elizara. Lurdeko harpearen itxura, han bazela ere nik segurik ez nakienaren aitzinean otoitz eginik, itzuli gira etxerat, zoin gure alde.

Ez ene bi apez lagunek, ez nik, deusetaz ez dugu on egiten ahal hemen, baizik ere zer entzun dugun, zer ikusi, eta nola egin Rene Clement jandarme ohi zaharraren ezagutzak.

Gu baino goragokoek ikus, erran daizkutenak egiak diren ala ez. Garbitasunik jakiten ahal badugu, emanen ditugu, jakin arau, eskualde bat ala bertze.

Anartean handi zaukuna da, gertakari hori hola balin bada, nola ez dugun orok jakin iragan *buruiletik*, uztail hau arte?

Ahazten dugu erraita, sendatu zenetik hamabortz bat egun lehenago, Moynac medikuak igorria zuela Baionako ospitaletik etxerat, deus onik egiteko berantegiz.

Eskualduna, 1912-07-26



IKUSI GABE IKASLE: ALBERT LEON

Hartze ona dutelakoez, bereziki burraso batzuek beren haurrez, erranen dautzute: *ikusiguziak ikasten dituztela*.

Egiaz baino ardurago entzuten dena baita, hori ere, bertze asko bezala, espantuz, aho beroz.

Bizkitartean balitz ere orotaz beti egia, *ikusiguzien ikastea* bezen handi da, ba eta handiago, ederrago, deus ez ikusten eta ilunpeka ikastea bertze askok bi begien laguntzarekin bezenbat eta gehiago.

Erran nahi baita: jakintsun bixtadunak baino merezimendu gehiago duela itsuak. Bainan ote da itsu jakintsunik? Segurki-ta halere, nehork uste baino gehiago.

Badire itsu lengileak, asko lan gaixtotan edozoin bezen trebe, esku-itzuliak behin hartuz geroz; badire gizon ikasiak, esku-lanetan baino are ikasiagoak buru-lanetan; ba eta buru eta esku, biak behar direnetan.

Hala nola soinulari, edozoin musika, xirribika, origina ala zer nahi-ren joile, nehoi zorrik etzutenak izan dire, ba eta badire oraino ere.

Halaber jakitate mota guzietako itsu, —erran gabe doana, itsu ez izanez, jakitatean lasterrago eta urrunago zoazkenak— badire, asko begiduni aitzindu baitzazkote ernearen ernez, jarraikiaren jarraikiz.

Urrunago joan gabe, bada hemen, Baionan *lycée* deitu eskoletzeko buruzagi hoberenatarik bat, sei urtetan itsutua, doi-doia baita orroit haurren kolore *xuria*, *horia* eta *ferdea* ikusirik.

Bordalesa da sortzez, burraso juduetarik; bera katolikoa, gure erlisionerat gonbertitua, ez bakarrik izenez, bainan izaitez, urrats eta sendimendu on guziez.

Hala nola mahain sailduko bidea badaki, zuen artean asko gizon elizatiarrek bezen ongi; garaitikoak oro araberan.

Ezkondua da, bizpahiru haurren aita, hein bat artarekin altxatzen baititu.

Nola den erraiteko baizik ez da; horrengatik itsu jakintsu dela jaun hori aipatzeko litake bardin, ez gonbertitua izanikan ere.

Da bakarrik atsegin, hala dela jakitea, eta bertze lan guziekin erlisionearen ikasteak eta oro aitzinean eremanik dagola, deusek lokar arazi, ez eta lotsatu gabe.

Hau erran beharrez dugu hemen solas hau hasi: jaun hori, holetan haur hotza zelarrik, sei urtetan itsutua, gazterik halere, deus ukan ez balu bezala, lotu zela eskolarik handienetarat heltzeko lanari.

Frantses eta latin eta greka, eta bertze nik dakita ohiko eta oraiko mintzai, hil eta bizi, zonbat lerrotan aldizka zerematzala edo guziak, beti, eskolatu zen gazterik handizki.

Bachelier eta *licencié*, *agrégé* eta grado guziak iganik, horra non den, ja urteak dituela, bera eskolatu ondoan, bertzen eskolatzaile.

Itsuek ez dutela argirik gidatzen, huna hau itsu eta bizkitartean bertzen argitzale.

Gorputzeko begiak baititu eskas, eta ez izpiritukoak; hek ilun bezen argi baititu hauk, eta xorrotx.

Zoin duen hartze ona, zer nahiren ikasteko, eta zer gosea, deusek ez dezake hobeki erakuts, baizik ere jaun horrek, bertze lan guzien artetik *eskuara* baiterama errotik ikasterat.

Ja Eskualdun anitzek ez dazkigun xehetasun asko badauzka, liburuatarik bilduak, edo berak bere baitarik hatzemanak: eskual-mintzaian hau hola, hura hala, hau hemen xuxen, hura makur; nor non mintzo gutartean hobekienik, nor zertan huts-egile...

Ohartzalea da biziki, eta behin buruan hartuz geroz, atxikitzailea. Beharrik! Ezen urrikaltzeko litake, ahanzkor balitz, bere itsuaren gainera.

Eleketa ez da oraino sobera trebe. Zuk ele eman eta, ihardesten dautzu irriño batekin: «Mintzatzeko ez *dizut* oraino hanbat usaia. —Ikasiko duzu, Jauna. —Nahi nuke».

Itsasoaren ongi ezagutzeko ezta baitezpada igerika jakin behar. Halaber mintzai baten aldean bertze bat badakikezu, solas egiteko *usaia-rik* ez ukanikan ere.

Mintzatzzen ez du egundaino nehork ikasi, *mintzatzu* baizik.

Mintzatzzea bat da; irakurtzea, *bertze bat*.

Dena den, gure gizona daukagu ez lezakela nor nahik errexki sal eskuaraz, bera ohartu gabe. Guk bezala solas egiteko guti duela eskas, ageri da.

Anartean loriatzen da gure eskuara huntaz adixkidekin eleketa.

Eleketa laketago liburutan baino, eta errexkiago ari. Berak ez ikusten, eta andereak ezin lagun, eskuara hitzik eztakielakotz.

Horrek du gehienik eskuararen ikastea gibelatzen: bakan baitu laguntzale onik hel-menean.

Halere segur ezta uko egitekotan.



Bertzeak bertze, zer ohorea guretzat, hein hortako jakintsun batzu, eskuararen ikasteaz bertze lanik luketenak, behin huni ohartuz geroz, bertan berotzen baititu, eta ez baitakite aski nola erran: zoin den ederra eskuara!

Itsu baten gogoaz hoinbertzetaraino jabetzeko, badaukala eskuarak zerbeit onik aitortzeko litake, ja ez baginaki lehenago ere.

Leon du jaun horrek izena. *Eskualdun*-aren irakurtzalek haren berri hemen aurkitzea atsegin zuketela gogoraturik, etxera joan gitzazkonean, huts-egiter dugu, bi hilabeteren bakantzetarat baitzoan, biharamun goizean goizik.

Non ere baitabila geroztik, ez bide zaio itsusi izanen *Eskualduna* hartaz mintzo ikustea. ... Eta mintzaira bat.

Eskualduna, 1912-08-30

...ETA MINTZAIRA BAT



DUGUN ATXIK ESKUARA

Galtzekotan ote da eskuara? Zer dute ala begietan amentx, poxolu, egungo egunean ohiko gauza onetarik gutiz gehienak bezala, eta ez ote guziak? Hori bederen ezin utz nonbeit!

Bertze bat nehon ez bezalako mintzaia, eskuara; gizon argituenean diotenaz, holako bakarra; egiazko ontasun bat hor guk eskuetan duguna; hainbertzetarainokoa non arrotzak elgarri baitaude: nola ezkiren guhaur huntaz hartuago, huni atxikiago eta jarraikiago.

Eskuara errotik aski ontsa ezin ikasiz ari jakintsun batzu bazter guzietan, hurbil eta urrun; gu Eskualdunak huni esker betidanik elgarren herritar, odol bereko haurride bagine bezala; hau gure lokarri, ez jakin nola gauzkana Eskual-herriari estekatuak oro bihotzez, menderen mende —ez bakarrik hunek, bainan ez hunek gutienik. —Guk behar hau galdu?

Eskuara, Eskual-herria, Eskualdunak, ez ote litake bada ederrago eta hobe Frantziarentzat, ahalaz lehengoan iduriko begira balitza orai eta gero, beti bardin?

Ontuz ba, geramatzatela, nahuten bezenbat, bainan eskualduntasuna ken, zertako? Eta zer zuzenez? Bertzalde, nola berex elgarretarik herri, mintzai eta gizon, elgarri hoin josiak, hoin elgarrentzat eginak?

Ahantzia naski, gure arbasoak beren baitarik eta berek nahiz frantses bilakatu zirenetik hunat, eskualdunari, ba eta eskuarari asko zor badiola Frantziak? Zenbat ere baitzen hau ja ordukotzat ederra, edertu baizik ezteela eta ontu, azkartu, itxuraz ala izaitzez, gu beretzearrekin... ahantzia.

Orobat erran dezakezu Espaniaz, edo are gehiago.

Ahal da ere bertzerik oraino bazterretan, berenganat har ginitzaz-kenetik bi besoak zablduz, eskuara hau dugun baino itzal handiagorik ez ukaitzekotan; hitz dautzuet.

* * *

Zertako nahi ginituzkete eskuaraz gabetu? Dugun erran berehala, egungo ez-eta-ba zurruburruez puska gorago doala hemen gure galdea; ezpaita egia bezalakorik, batzuetan ala bertzetan badirela eskuararen aldekoak eta etsaiak.

Duela zenbeit aste, Baionako karrika batean uste gabetarik buruz-buru egin dute hiriko bi apezek Frantzia beheretar jaun eskualtzale batekin. Ezta gizona guretarik; gure arak, eta gutiago gure sinistea, ezte harenak; gogoko baino begietanago ditu hemengo zerak. Halere, itzuli bat eginik gure bazterren ikusten, bihozmin: ikusirik eskuara eskuetarik joaki eta tokitan kasik joana. —Alegiazko mina ote? —Zertako ez bardin egiazkoa? Bertzeak bertze, badaki eskuarak holako jaun batzuen berri, xoratuak daudela, zein den ederra! —Biziko ote den? —Delakoak berriz bere burua gizonago baizik etzuen egin, hanxe aitortuz eskuararen alde-bera ate atxikimendua.

Ezta gutiago egia, jaun harek eta hura idurikoek —leherra baitire, azkarki gogoa eskuara huntaz hartua dutenak— badutela dakizuen gazte batzuen eite, zuen barkamenduarekin, samurrean zer ari ziren jakin gabe, edo gaixtakeriaz, edo jostatzeke, su eman berek edo utzi lagunak emaiterat, auzo edo beren etxe ezkina bati, eta gero... garra gainez gain doaia... izituak, harrituak, oro suntsitu behar ote diren!

Dena den, aspaldiko herstura gaixtoenatarik bat berritan garraturik balin badago eskuara, egungo gizonkilakoa daukaten *eskualtzalen* ganikako laguntzarengatik, behartu zaio bartzerik: haize ona eta gaixtoa, biak; bere zailtasuna; eskualdunen eta oroz gainetik laborarien atxikimendua.

Nahuzuea xehetasun bat? Doakola bakotxari berea. Gaizo eskualdun laborariak, nor izanen da zuetaz bertzerik, eskualdun ohidura on guzien eta bereziki mintzaiaren begiratzale? Zueri dago eskuara.

Egun hitsen artean hitsagoak badire; ezin ahantzizko amets gaixto baten orroitzapena bezala utzirik joanak diren halako egun batzuz, zer nahitako aiher dazkigun gizon hoitarik aski erroak izan zirenean, aski atrebituak, gure elizetarik fuera kanporat eskuararen manatzeko, han gertaturik *Eskualdun* kazeta ttipia, orok bezala itsuskeria hortaz bere hitza erran zuen; bertzek baino goraxago eta bizixago behar-bada, bainan gehiagorik ez. Bazen aski. *Eskualdunak* hel-hel oihu egin orduko, trumilka badoazko Eskualdun irakurtzaleak; harekin direla oro eskuararen alde.

Egitea gaitzitu orori: zer zuten tzarkeria hori bertzen gainera? Etziren lurrerat erori kazetañoaren hitzak.

Aro gaixtoaren oldarrak inarrosirik landarea lotzen zaio ausikian lurrari; ordu arte ja bizikor eta pixkor, bainan hein batean koxkor gelditua egonik urteak, hartzen dautzu bet-betan hedadura bat, goiti eta behiti eta bezterretarat, zabalduz doala eta azkartuz, nola! Egun batetik ber-



tzera doblaturik, erredoblaturik jartzerainokoa. Oro elgarri beha, etsai, adixkide, langile: «Hauxe da handitzea!»

Orizue, ezpalinbadu gure arbolak sarrixago, Jainkoaren laguntzarekin, bere ostoa zabalez itzaltzen Eskual-herri guzia; hunen fruituak ezpa-deramatzate harrapaka Eskualdunek, ezta zeren nehork behinik behin lurraren gain eman. Ona da lurra.

Bota lehenago alferren gain, uzten badute lur hori, lo, harrotu gabe; edo laparrak hartzerat, garbitu beharra, aitzurtzea beti neke delakotz, eta nekeago aro gaixtoarekin.

Goazin mintza xuxen, eta itzul gure solaserat, nahiz ezkiren hanbat urrundu. Orroitzeko da beti: jende xeheak eztuela bihotzez ala buruz nehoi zorrik; nondik lot adixkideak, behar-ordu batez, baduela lokia... ba eta zeri berma ere balukela ostiko bat begitartera kask eman lezoken etsairik azkarrenari eginarazteko buruzkain itzulipurdi.

* * *

Bainan gu bezalakoak eztaki askotan zer egin; behar du bidari, eta artetan atzarrarazle. Eztakien harek berak, zer egin eskuararen zaintzeko, begiratzeko? Deus guti; asik ez beti kanpoko ala barneko etsaici ihardukitzeko.

Kanpotik —beti berak—, ezpaitute bertze lanik, ez eta bertze sukarrrik, gau eta egun, baizik ere nondik zer ele nahasi duten jalgi ahaldo: guk maite ditugun guziak baitezpada beltzu beharrez lehenik, eta gero purtzupilaturik ezarri zangoen azpian, mintzaiak eta oro.

Ele gutiz hor bakotxari berea.

Barnetik —lazakeria, ezazolkeria, eta beldurra; bertzalde, Jainkoak dakiela zenbat burutan sarturik eta sartu badire sartu— han kokaturik dauden kakolakeriak.

Hala nola, zenbatak eztautzute begi ukaldi batez neurtuko berehala... phhh! ... zertsu ahal den eskuara! eskualdun itzain ixtazabal, zangoa herrestan bere idi eta orgen aitzinean —edo gibeletik— tuku-tuku, doanaren mintzotik, urratsetik, soinekoetarik?

Iduri eta itzaingoa eztela bertze edo zoin bezen gizipide, zeren den asko baino nekeago!

Gizagaizo itzain higatu hura xutago bailitake naski eta gurbilago, norapeit ikasiago, eskuaraz mintzatzeko orde zuek eta ni bezala, haren matrail hezurak ari balire talo bero jaten *obernesez*, edo areagoko frantses tutulu tuntun idiek ezin jasanezkoz.

Ezta ez gero aski erraitea: hau eskuara, hori frantsesa. Batean bezen ongi bertzean ere badire itzainak. Behar ere ba; orotan orotarik. Itzainen trufariak nahi nituzke ikusi heien laguntzaz gabetuak sei hilabete... ea nola bizi litazken?

Eta gero, zer uste lukete hoberik, baserritarrak hiritar bilaka balite, mendiak ordoki, oro bardin, legun-leguna? Ezkinuke deusen beharragorik!

Balakite gure berri hobekixago hiritarrek! Eztirela gutartean *eskualdunenak* ere, hiritik *urrunekoak*, batere bertze batzu baino tontoago beren hartan, balakite, bertze begiz beha lezagukete.

Zer nahi izan dadin, gure eskualdun begientzat ezta halako pestarik, nola hiriko karriketan bonetun, xamardun zenbeiten ikustea Beti bere hek bakotxari eder.

Ororen buruan, guk ere ordainez nahi baginitu hiritarren itzalak altxatu, aski ginuke begiak idekitzea... lehen ikusiari lot. Ezta lokia eskas, Jainkoari esker.

Hain dute hastio askok eskuara non, izenak berak okastatzen dituela iduri baitute. *Basque...* hitz hori kasik ezin erran, goitikeskaini bat gabe. Eta oraino hori ederrena.

Deus ez litake, beldurtzeko ezpalitz, haurren beharriak, ahalge diten azkenean beren sor-mintzaiaz eskualdun umeak, bereziki Nor giragueneko Jauna denean mintzo; ez ahalge, zer nahi izan, hura bezenbat badi-renez trufatzeko. Hari behar lakiok eman eskuara ikas dezan. Baluke behingo!

Heintsu bera dute gure mintzaiari beltzuriz daudenen erraiteko guziek. Alta bada zenbeit!

* * *

Eskuararen etsai guziak eztire bardin ageri; gordeak gaixtoenik.

Gorde ala ageri, etsai ditu, gobernamentuko eskolak beren buruzagiekin. Alde balitu bederen gure eskukoak? Ez ditu hek ere lehengoak beti hala ukan. Orai gelditzen zauzkun bakarrak, eztakit; agian ba. Bainan huntaz bertze sabeleko minik azpaginu; gure Fraide eta Serora ohi eskolatzaile onez orroitzeak berak ezpalauku bihotza hausten, baginuke hitz bat hemen erraiteko; zeren gu bertze orduz altxatu gituztene-tarik zenbeit, esker gaixto onik erakutsirik baitaude gaizo eskuarari, Eskual-herri betean Hazterria ukan balu, etzuten urrunago atxikiko eskoltxearen inguruetarik.



Nahi dut haurrak frantsesari lotzeko, bereziki hastapenean, behar direla eskuaratik behin biguindu, ttipiangoan amaren bularretik bezala. Bada ordean orotan izari bat; handik goiti, soberak sobera.

Frantses hutsean emazu haurra; eskuara hitz bat ez haizu, goizetik arrats. Mihia lerratzen bazaio uste gabetarik, larderia zazu eztaikit zer egin balu bezala; ez barka buruan hartu arte, deus eztuela ikastekoetan ikustekorik eskuarak... Azkenekotz, nahi eta ez, hitz bat geldituko zaio ariman bizi guziko: hola denaz geroz, deusetako nehoentzat eztela on eskuara, tokilo zenbeitendako baizik; ez on, eskualdun herritar bati, ez eta ere haurride bati bi hitzen izkribuz igortzeko ere.

Hoik oro hola, bizia zail behar du ba mintzai batek, ihardukitzeko. Emozkitzue oraino bertzalde nehork ezin ixilarazizko kalakari batzuen erasiak; zoko guzietan baitire, deus ez jakin eta orotaz mintzo: eztela orai-ko mintzaietarik eskuara; gibelatuegi dela. Eta zoin gaixtoa ikasteko! Diotenaz, debruak egundaino ezin ikasi duela. Egia balitz! Baginuke aski hori bera, gure onetan ez uzteko galtzerat eskuara.

Zer ezterasate oraino? Hain dela bihurria eskuara non Eskualdunek berek ezpaitakite ontsa; nehondik eztela bertzen urratsari jarraiki ahalko; ja puskaz aitzinduak dituela oro alde orotaratz; berekin gu ere leherra zerez gibeletuak dauzkala. —Deus ez ele.

* * *

Huna elez bertzerik, nahiz elen ondorioak. Burraso Eskualdun batzu, axolarik ez dutenak beren haurrei eskuara harrarazteaz. Eta zenbat Eskualdun seme-alaba, astomakiletarik ez hanbat aitzinatuago, eskuaraz baino nahiago baitute frantsesez izkribatu elgarri, hitz bezenbat huts eginen badute ere. Alde bera daukaten bi kazeta, ongi ala gaizki eginetarik, itsura, utz bazterrerat eskuarazkoa. Etxeetan, bidaietan, Eskualdunak Eskualdunekin ezin mintza eskuaraz. Holako Eskualdunen haurrek, handik edo hemendik, ebaska, bildu hitz bakarrak laster ahantziak.

Eta lehen kominioneko liburuño hura, amixiren orroitzapena, *eskuaraz?* ba zera! Elizako liburu eskuarak badirelarik, hein bat begikoak barnez eta estalgiz; erosteko eginak, eta ez naski saltzalea baitan egoiteko bipien hazkurri; frantsesa behar baitezpada, bertzek ere hala dutelako estakuruan, haur gaixoak ezpadu ere meza non den hatzeman ahalko, are gutiago irakur, begien aitzinean bederen idekirik atxikitzeko, egun hartan.

Eta hilen mezak? Ehorztegunetan bil arau izkribuz emanak frantsesez, elizan irakurtzeko eskuaraz —frantsesetik!— Irakurtzale eta aditzale, ororentzat pastikagarri, bederen hartu arte, oro hartzen diren bezala.

Eta hil-hobien gaineko hitzak... bitziz irri ala nigarringarri? Hanhemenka ikusi zenbeitetek ezpaitezakete batere gaizki eman sail huni datzikola, ezpaltz hilen eta bizien zauri berritzea Ez izanen zenbeit apez bederen gehiago, bertzei erakusle, herritik joanen izenei darraizkoten azken hitzak eman ditzatela herriko mintzaiaz! Zenbait otoiitz gehiago balukete emazte jaunkotiar urrukalmendutsuetarik; ba eta gure tokietan oraino hilen orroitzapenari hain atxikiak diren gizonetarik.

Hilerrietan direnentzat bederen ez erran; frantsesa behar zeieela *ikasarazi*... Hobeki loake han eskuara poxi bat; gaixo mintzai arrotzuak nonbeit bederen hatzeman ditzan eta ezagut bereak; heiek ere ba hura, —elgarrekin doazila errauts.

* * *

Zenbat etsai gure mintzaiak, argi eta itsu! Orok ahantzia daukatela eta utzia bazterrerat, saldua merke... ezpaitezaket bertzela erran eskuaraz.

Nondik nahuzue dihardukan dohakabeak, batzu ostikoka bertzeak ihesi doazkolarik? Ez oro beharrik, bainan biziki sobera eta beti gehi-ago. Hola joanez, nehondik eztirauke, gero-ta handiagoko mirakulu batez baizik.

Apez eta Eskualdun aitzinatuak, zer egin dugu hoinbertze aldetarik holako hersturan den eskuararentzat? Behako bat hor bakotzak bere buruari.

Ez erran, frantsesa dugula poxolu gure lurretan. Hauk ateraldia orai berriz hau: frantsesa poxolu guk? Gu frantsesaren etsai? Nehor eztaukagu Frantzian gu Eskualdunak baino Frantses hoberik Gure lurrean gira Frantzian bertze edo zoin bezen ongi —Frantses mintzaia gurea da—. Ez dute zeren guri lepotik lot iduri-ta nahi eztugulakoa iretsarazi beharrez.

Ahal dugun bezala mintzo gira frantsesez; halere, uko gaudela dera-satenak bezen gogotik eta xuxen.

Bainan gure eskuara ere laket dugu. Noiztanik ote da ez haizu bi mintzai ukaitea eta biak maite, izanik ere lehenari, hurbilenari, bereago hari estekatuxago?



Ba, poxolu ditugu, begietan ditugu, etsai ditugu frantsesaren itzalean eskuara ito nahi luketenak. Eskuararen atxikitzea gure zuzena da eta egin-bidea, adixkide maiteak. Huna zertako.

* * *

Zertako atxik eskuara gure mintzaia? —Lehenik, gure mintzaia delakotz. Sorgin ez izanikan ere, hatzemanen zinuen hori laguntzarik gabe. Hori nehorat irets eztezaketenen burua dut nik ezin irets.

Bigarrenekorik, gehiago dena, kendu nahi daukutelakotz eskuara. Bakotxak bereari datxikon estekamendua iratzartzen da, etsaia hurbiltzearekin.

Ohartzen bazira zure sakelan, sast edo sist, sartzera doakizula esku arrotz bat, etzira luzaz egoiten zure baitan gogoeta: «Zer ote da hau?» Ez; bainan krak berehala zuk ere zure eskua hara berera. Hori zauku gertatu guri Eskualdunei, arrotzak baino areagoko frantses herritar batzuk nahi ukan dauketenean kendu ahotik eskuara, eta guharen sakelan sarturik, han atxiki gordea, preso, alfer: Hori bera, aski, luze-luzea eta zalu ateratzeko, dena kanporat.

Ogi huts ala zaharo, guziak baino zailago eta gogorrago Eskualdun kaskoetan tema.

Hirugarrenekorik, eskuara kenduz geroz, kentzen ahal laukukete eskual izena ere. Zertako ginuke?

Eskuarari esker gira Eskualdun.

Jakintsun eta bazter-ikusle arrotzak ohartuago dire guhauri baino gure mintzaiari. Alde orotarik, eta batzu biziki urrundarik, datozkigu, begi beharriak zabal eta erne, ikustera, entzutera: nola mintzo ote giren eskuaraz Eskualdunak?

Nor erran, zenbat Angles, Aleman, Holandez, Rusiano, Beljikano, Frantsesez bertzalde, —zenbat diren ibili hemen hemengo botigetan, ostatuetan, deus ikustekorik den guzietan sar-jalgi eginez; orori galdeka, jitean eta joaitean, Eskual-herri eta bereziki eskuara hain handizki aipu direlako hautaz?

Frantsesean gehienik trebe diren jaun argituetarik baita Rene Bazin, hunek dio bere liburu ederretarik batean behialako batez treina hartu zuela Parisen, edo urrunago, biziki urrun; ikusi nahiz eta ikasi, hemen tokiaren ganean, bi, hiru, lau hitzetarik hitz bakarria egiten dutelakotz «dangues agglutinantes» deitu mintzaietarik denez eskuara?...

Bati galda, bertzeari galda, ez mutil ez nausi, nehok ezin eman zion garbitasunik. Baiona guzian, berak dionaz, eskualtzale zinezko baten hatzemaitea, solas egiteko, lanik aski Eta oraino badut beldurra, jin bidez joan behar izan zen gibelerat, egundaino bezen itsu.

Ezta erraiteko baizik, holako gizon argituek hoin gogoan duten mintzaiak baduela nonbeit zerbeit onik.

Jakintsunek baino are gogoanago dute gure mintzaia koblariek. Nago, ez ote diren ere frantses koblari guziak oro guti edo aski Eskualdun, Frantses direnaz geroz? Gu, Frantziako Eskualdunak, lehenik Eskualdun girelakotz gero Frantses giren bezala bardin. Ezta hau ele ahula; da xuxena. Koblariez bezen xuxena eta egia heien iduriko arima eta bihotz jabe diren guziez, hek bezen gora ez heldurik ere.

Ez nauke hemen aipatu gabe gure adixkide handienetarik bat —ez ahal baitakite orok hau ere gurea ginuela—, François Coppée zen koblari maitagarri, gizon ona. Ez bide baitzen hau jakingura, zertarik nola ditugun egiten eskuarazko hitzak; hitz hautarik bakotxa zenbat piruz den iruna ikustetik xehe-xehea zer behar zuen harek? Goiti, goiti koblariaren arima; gure lurretan zangoa eman orduko igan, jauzi, lehen hegal ukaldiz... irrintzinaraino.

Irrintzina... *salbai garrasia* delako hura? Hura eta bera. Ba naskil Salbaiak oro salbaikeria. Nori nola zaion. Baditake hor beharria xuxen eta burua oso dituenak bertzerik erran lezaken. Coppée berme.

Agorri-buruil gau izarretara, Getariko ur-hegian jaun hura zagon etxeko seme haur on batek aski zuen harek hitz bat erraitea, harantxetara joan eta irrintzina egiteko, itsasoak ihardesten ziola; hunen orro burrunba eta mendietan hegoa bezalakorik ezpaita gauaz irrintzinaren lagun.

Coppée Paristar izanagatik, ja ordukotzat haren arima girixtino bezala, eskualduna zen, eskuara musikan hain laket zitzaionaren beharria.

Jauts giten lurrerat.

Hiritarrek menditarrak ez ditutzue hastio, ba ordean heien mintzaia higuin; aitor azue zuen hobena. Eskuara ezta dioten bezen itsusi ez izigarri. Denarentzat ezagutzen bazinute, laguntza onik egin lezakezue, zuen sheien eskuratzeke, bidatzeko, zaitzeko baizik ezpalitz ere.

Eta nork daki zuen hurrek eztuketenez geroxago eskuara zihaurek baino laketago eta beharrago? Sarri zuen alabak erraiten balautzue, doiño bat gorrituz, beharri xilora: Aita, ama, bada ha-han, holako herrian, jaun gazte bat nehor guti bezalakoa; burraso ditazken ohoragarrienak, nahiz eskualdun; gaizo mutikoa; josia, itzatua bere tokiari; han sortua, edo han



ari lanean; han baizik ez laket. Zer egin? —Orizue, aitzinerat, zer gerta ere, atorra mihisen artean sar *eskuara* poxiño bat. Nork daki nor zeri dagon?

Zuen semea izan ditake mediku edo notari Eskual-herrian. Ezpadaki eskuara, urrikari dut, behingo bederen. Galda zenbeiti.

Hirirat ere gogotikago doazi Eskualduna eskuara dakien mediku, bankier, abokatarengana. Ba eta «*Eskuara mintzatzen da*» beren etxe-sartzean emanen duten saltzaletara Artetik erran dezadan, ahal den eskuara baita hor den hori. Bada oraino hitsagorik.

Eztuzue irakurtu sar-jalgi handiko hiri-etxe zenbeiten aitzinean emana frantsesez: *Entrée libre*, eta haren parrean eskuaraz: «Xartztea libre»? Zer? Gaixtatzea ote? Ala adixartztea, hil hurrantzea?... Milesker, goazin aitzina, barne hortarat, *sartu* gabe, hor xar ditakeno.

Ah! zoin gogotik esku eman ginezoketen eskuararen galtzeko baizik ezüren perrekeria hoik oro lehenbailehen garbitu nahi lituzketenei; eta gero elgarrekin orok bat eginik, gerla gerlari, eskuararen etsaietarik bat ahantzi gabe, burutik buru!

Bertzeak eskuararen galtzeari bezala, gu begiratzeari.

Hel hunat, guti bada guti, nor nahi izan ditene, eskuara garbi atxikitzen laguntzera lagozkenak.

Diote, buru hauste gutiagoko ginukela, utziz eskuara hitzerat; eta bizi-tzeari tematzen bada, kenduz. —Eskuara ken, zer zuzenez? Eta gero azkenean, kenduz, ez ote ginezake irabaz baino gehiago gal?

Zer uste lukete, ala Eskualdun tzarretarik frantses onak egin? Ba, giristino galduetarik dazkitzuen gizonak egiten eta ja eginak dauzkuten bezala.

Geroaz griña duenak badu hor gogoari zer eman.

Jainkoaz otoi, zertako honbertze ele? Mintzai guziek bezala, baditu eskuarak ere zenbeit itzal; bertzek baino handiago ere dituzkela batzu, emagun. Bainan hatsa zail duela bederen erakutsi du engoitik. Hain da zahartua, aitasotua, ezpalu ere bertzerik alde, iraun duen mende lerroa baizik —ez jakin zenbat— adinean hain da urrun joana non gaztetuz gibelerat baizik ezpaitezake hemendik harat egin. Hiltzekotz, hila litake aspaldi ja. Mundua mundu deno irauteko eginga izan behar da eskuara.

Eskuararen ez ikastea, gure auzo gurekin hainbertze egiteko duke-tenentzat, beren buruen asko errextasunez gabetzea da, ikasteak berak eman lezoketen atseginaz bertzalde.

Bainan Eskualdunek berek beren mintzaiaren ahanztea, uztea, huts bat handia eta kalte bat ez ttipia guretzat; agertzeko on den irabazirik hor

deusek ez nehork. Ja ezta gaitz ikustea, hein huntaratzek ezkituela ontu; beheiti goazila, ez goiti, nahutena erranik ere.

Ez, ez dute zeren erran eskuarari kendua frantsesari eman dela. Hala balitz ere, ez litake zuzen, ez eta zuhur; are gutiago egungo egunean... ez jakin bardin zeri gauden, ez norat geramatzatzen, ez eta frantses izenetik eta mintzaitik zer geldituko den ere sail hunen buruan.

Eskuara, zinez mintzai eskalopoin zahar okitu batentzat daukatenek balakite zoin diren ederrak eskual hizkuntza berezi batzu, kasik oro; bihotz, edo adin, edo nausitasun arau, bakotxari doako atxikimendua eta ikustatea zoin gozoki, zer itzuli bertzek ez bezalakoarekin derabiltzan eskuarak, balakite, zahartzeak ez deusek ez dituela higatzen ez eta histen ere den gutiena!

Eskuara? Non da eskuara bezala dagonik bere hartan bere gain; aberats ez izana gatik, berez bere bizi, edo ahal bezen zor guti eginez?

Auzo jaun handiek beren ontasunak haizeari burrustan besainka; egun ba eta bihar ez. Eskuara bakarrik bere hatsean tente, deusek ezin kordokatua.

Bertzek bertze, *to* eta *no*, baten orde hor biga dituelarik eskuarak; ehun urte baino gehiago huntan frantsesak utzia *zu* burraso-haurren artean; eskuarak zu baitauka beti, zerbait bada hori bera. Haurridek bakarrik *to* eta *no*; heiek ere ez beti.

Senar-emazteak sekulan eskuaraz, non ez duten ahoa frantsesean hortara jarria... orduan, ez aldatzeko? Bainan hain da itsusi eta dorpe non Jaun-Andere batzu baitazkit elgarri *tu-toi* erraiten dutenek frantsesez, eta eskuaraz beti *zu*.

Okaztagarri dena eskuaraz, haurrek aitari erraitea *to*, amari *no*; joitea bezalatsu.

Burraoek haur handituei *to* eta *no*; ttipiño direlarik, ez; orduan *zu* edo *xu*.

Holako artak dituen mintzai bat, etxeraino bi hitzetarik bat *zu* duena, ez haizuko iguzkiarenpean bere doi tokiren jabe?

Itzal bedi, itzal eskuara Eskual-herritik; izanen da eskuaraz bertzerik oraino gutartean eskuarak baino gehiago argituko ez tuenik.

Erlisioeak ere azkarki estekaturik gauzkala eskuarari, ageri dena da. Nork eztu ikusten?

Mintzai guziek hartzen dute erlisioea; batzuek hobeki; hautarik da gurea. Aspaldi du elgarrekin dabilzala, batek bertzeari beretik ema-eta har, menderen mende Eliza katolikoaren mintzai den latinari mailegaturik dauzka eskuarak erlisioezko hitz gehienak, heieri esker da den bezen



laket eta errex, eskuaraz katiximaren egitea eta predikatzea; ba eta gure kantika eder ahotik ezin utzizkoen emaita elizetan. Orok baino gehiago gauzkate josiak eskuarari erlisioneazko solasek eta orroitzapenek; hauierri aldiz eskuarak.

Eskuaraz ikasirik arbasoek erlisionea, utzi daukute eskuaraz. Mintzai eta sineste, nahi ditugu atxiki elgarrekin lehen bezala orai eta gero. Gure lehia da, gure zuzena eta gure xedea, zer nahi gerta.

Eskuarazko liburuak oro kasik erlisioneazkoak dire; hek aurdikirik bertze batzu ezar ordain! Zertako? Ezta zeren. Hobeki erraiteko, badugu zeren guk, apez eta fededun Eskualdunek, elgarrekilakoa beti eskuaraz atxik; eskuara baita betidanik eskualdun elizetako mintzai; gure Eskualdun amek lehen hitzak, lehen otoitzak eskuaraz erakatsi baitauz-kute. Horra guk egia garbiki. Zer dute ihardestekorik erlisionearen eta eskuararen etsaiek? Argi betean agertzeko on eztiren ilunkeria zenbeit. Ez ele, are gutiago, xede zuzenik ez hor.

Kopetarik aski ez, diren bezalakoek, eskuarari berari jazartzeko age-rian; itzul guri apezzi buruz, orotaz gu hobendun; *beti gu*.

Guk daukagula itsu mintzai hori, Eskualdunak horri esker buruz beheiti atxikitzeke. Egiazko egia dena da, gezur hori derasatenek lukete-la nahi eskuara izilka, gordeka urkatu, alegia deus nez, gero Eskualdunak errexxiagi bereturik, beren hats gaixtoaz kotsaturik, lehertzeko.

Guri, eskuararen atxikitzea eta zaintzea etsai guzietarik, ahal oroz; elez eta egintzaz. Erlisioneak eskuarari, eskuarak erlisioneari esku eta laguntza. Dogozila elgarri loturik beti.

* * *

Nola atxik eskuara?

Lehen-lehenik eskuararen atxikitzea bertzen gain ez utziz; ez eta ere gobernamentuaren gain. Nago, nola diren oraino eskuararen ona, bertze askorekin, hortik igurikitzen dutenak.

Gero noizpeit, bertze buruzagi batzuek, edo hauiek berek, onera-tzearekin, idekitzen dazkotenean herrietako eskolak eskuarari! Ba eta ordu arte amets horren gainean egon lo, lan zotzik hunkitu gabel...

Eztugu zeren deus hanbat igurik eskualtzale jakintsun arrotzetarik ere. Hoberenek aitorturen dautzute, deus eztezaketela, edo deus kasik ez, gure laguntzeko eskuararen begiratzen; deus baino gutiago, beren gain utz baginezote.

Auzoek eta adixkidek, egin dezoketena, lanaren errextea. —Nola? —Behinik behin, eskuararen alde mintzatuz ahal bezenbat. Egiaz egia, behingo solas. Bizkitartean hortako behar da zerbeit jakin. Eztakiena dagola bederen gaizki mintzatu gabe ahalgez, kopeta eskasez kalakari-feratzeko. Ixilik egoitea bederen ez ahal da gaitz; zozo ez izaite aski. Noiztenka bihur; ez egon ikaran beti koropilo.

Frantses ala arrotz, jakintsunak hitz bereko dire: bekatu litakela eskuara gal ladin. Eta zer? Gure lehen auzoei, gurekin ardura, kasik egun guziez kurutzatzen direnei sobera litzaiketela heien aldean bizi dadin eskuara, hats handia hartuz! Mintzaiaren hatsa, bizia, mintzoa da.

Utz beraz hortik auzoek Eskualdunak eskuaraz mintzatzerat, bederen Eskual-herrian eta zertako ez, gabiltzan toki guzietan?

Urrats bat ezpaitezakegu egin, eskuarari beti mutur dauden koskari batzu oldartu gabe; larruaren barnean estauzkela, beharrietara doakote-*nean bason* itsusi hori.

Hori baino bi tantoz itsusiago berak.

Kuku Eskualdun uzkurak; eskualduntasunaz ahalgeturik, beren herriari eta mintzaiari gibebez edo sahetsez itzuliak; zaharrek utzi on guziekin eskuararen ehortzeari esku eman lezoketenak.

Batzu etsai, bertzeak uko, goazin gu goraki alde. Ongi etorri eta milesker gurekin diren guziei.

Ele on bat zor diotegu hemen bereziki *Eskualtzale* biltzarretan barne direnei; deus hanbat ez eginik ere, noiztenka elgarretara biltzea baino zerbait gehiago ari diren batzuekin. Darraikotela lagun; egiazko, zinezko lagun laguntzaile, hitz bateko gizon Eskualdun, egin dezaten lan, jarraikiz.

Diren bezala, ere, Bilkura hoiek Frantzian, Espainian, Ameriketean, ja orok zerbeit egiten dute. Dena dela beti egina egin.

Bertzalde, zuzen da erraitea: eskual iraultzale hoiek ezpaderamate beren ildo urrunago eta barnago, eztirela hor eskual buruzagiak hobendun, bainan ba diragazkagun urte hitsak Hobendun ere urteak baino are hitsagoko jaidura errogarri den bat, Frantziaren eta Eskual-herriaren gal-garri: holako edozoin xede oni buruz lan bat edo urrats bat egin behar denean; hari edo huni lerro bat igorri, edo hitz bat erran; gizonak elgarretara bil ala hurbil, beti eta beti dohakabe bakar batzuen bizkarrera baitago egiteko den guzia, non ezten behar nonbeit apaindurik agertu «huna gu», edo mahainean jarri, bazkaiteko.

Hortakotz ote daude, eskual-egun handietan, hurbildu gabe eskual-langile gehientsuak! Bakotxak bere aldi, ez higitzea? Bego; ez altxa hori.



Zer nahi izan dadin, eztu eskuarak, egungo egunean, halako errorik, ez halako bermatzakirik luzaz irauteko, nola eskual etxera, *la famille basque*. Ezta halako biltzar ez bilkurarik, eskuararen aterbe azkarragorik, ez eta behingo etsaiez axola guti duenik; zahar-gazte, burraso eta haur; eskual-ginarri, hemen lodixago, han mehexaso den hura orotan bardin zail eta gogor.

Behereko zolan mamitsuago eskuara, damurik itsuago; ez ohartua, zenbat etsai dituen aiherrak; ez aipatu ere behar, gal ditakelakorik.

Gorago igan argirat, eta begiak idekiago; berek —zauria den baino handiago eginez oraino zenbeitak— eskuara frantsesak ausikika deramala, oraiakotik azken hatsetaritzen ari dela gure mintzaia.

Ez balinba!

Bitxi dena duzu eta laketa eztena: zoin axola gutirekin, hasperen bat ez begilundura bat gabe dautzuten erraiten Eskualdunaren izena merezi ez luketen batzuk; eskuararenak ez dukela luzamen, laburrik barne.

Guti dire hola mintzo; gaizkiago dena da, mintzatu gabe, ohartu ere gabe, bizitzea eskuararik ezpaltz bezala.

Izaitez ezta ere, bazterrerat utzia dutenentzat.

Alta eskuararen begiratzeko ez litake halakorik, nola orroitzea: Eskualdun sortu eta Eskual-herrian bizi zarela, eta Eskualdunen mintzaia dela eskuara.

Deus balin bada lur hunen gainean zuzenik, hori da; eta bizkitartean zer dugu ikusten han-hemenka? Eskual-herri betean, asko etxetarik hazitua eskuara; utzia, edo utzixea, kasik ohartu gabe, edo bederen axolarik gabe; atxikitzeak ere, sehientzat; bainan jaun-alabak burrasoekin, gazte lagunekin eskuaraz ele... beaizue! Lehenago frantsesa jakin gabe murrizka, murtzuka, dakitenen irringarri.

Beren buruak diren baino gehiago eginik edo ezin eginez dabilzan batzuen da hori; bainan emagun auzotik auzora doala, batek bertzea kotsatuz: ondorioak ageriko zenbeit urte gora behera.

Beharrik eztoazi oro bardin makur. Dakizue da: Eskual-herriko jauregi, etxe aberatsenetan, ikasienetan beti danik eta, Jainkoari esker, oraino ere badaukatela, ederraren ederrez, beren haurrak bularretik lekora, lotaraztea, lehen hitz... frantsesari ote?

Frantsesaren aldia jinen da; bakotxa bere tenorean.

Zertako ez erran hemen gure atsegin uste gobekoa, hirian ere hori hola kausitzeaz; eztelarik ere burraso bat baizik, aita edo ama, eskuaraz mintzo? parada ona bertzearentzat, ikasteko —eta zoin lagun goxo, gixakoekin!— josteta, burua hautsi gabe nondik has ezin hatzemanek.

Galdatzen daukute ardura, gure mintzai hauni lotzeko eskualderik hoberena. Horra bat hauta; bizkitartean bide erdi ez gelditzekotan; xutik joan-eta lehen apainduratzat haurrari eman eskuara leinuru maitaño hura ez uztekoan goizegi, ez behin ere galtzerat, hitsagoko batzuek ahalge-arazirik.

Ezen erran behar da dena; behin baino gehiagotan haizeak derama ttipian ikasi guzia. Zenbatek eztautzute erranen: bortsu urtetarik zortzi artean eskuaraz mintzo zirela huts bat egin gabe; hamabi urtetako, arrotz; hemezortzitan, arrunt ahantzia.

Artetik sartu hor eskola eta bertze asko zer; oro... salbu hastean hain eskualdun eta iduriz beti hala izaiteko egin buru hetan jarrikatasun gehixago, haurrak haurrean hartu ona eztezan handitzearekin gal.

Nola utz ahotik solas hau, hoin laketa, hoin berogarria eskual-ari-madun batentzat? Geldi ordu da bizkitartean. Hauk oro batetara doazi; Eskualdunak, nahuzue begiratu zuen eskuara? Begira zozue zuen egoitzetan, etxekoan artean, borda ttipi ala jauregi handi, orotan, bere zuzena: lehen alxia.

Hain da eder, jende behar bezalakoetan, bizitzen ikasietan ikustea: erdi-erdian dagola jarriarik amaxo, etxeko-andere zaharra!

Onik baizik ez dakarke horrek deusetako.

Eskuaraz mintza, eta bertzalde ikas eskuara. Ikas, erran gabe doa, toki arau, ahal arau, arte arau. Bainan garbiki, behar du gizonak itsu izan, egundaino pitsik ikusi ez ikasi es dutenak bezen gibela izan behar du, ez onhartzeko eta ez ohartzeko ere, mintzai bat *ikasi* eztauenak eztaikiela! Zertako loazke bertzenaz eskolarat frantsesaren ikasterat etxean frantse-sa baizik aditzen ez duten frantses umeak?

Ondikotz, ezta urrun joaitearen beharrik, ez hanbat eskuara entzutearen, ez irakurtzearen, eskuz hunkitzeko egunean hamar aldi, eta joiteko buruz, *ikaste eskasaren* ondorioak; nor nahi har dezagun: ez jaun ala ba jaun.

Etzautzue bada iduri edozoin mintzaik bezenbat eta gehiago gure hunek pizten duela ikasteko gutizia, delakotz ere bertzeak ez bezalakoa?

Eskoletan erakasten ezteno, beharrago baizik ez bakotxak bereaz egin, ahal duen ber; hitzak bederen apur bat jakin doi, eta hitzen banazkako ala elgarrekilako harat-hunatak.

Hoik oro eskas, ikasi ez dituenak, *ikasi bere mintzaia* ere; guziz hura. Hortaz duda!

Ezpaitu eskuarak bertze mintzaiek bezenbat errextasun eta ontasun ageriko; gogo baizik ala etzeien asko eta asko zeren izenak berekin ezin



eginez lanak emaiten baitauzku; delakotz eskuara, —ez otoi erran: ezin heldua, bainan xuhurra; gutiz bizi; dituen hek atxik tinki eta gorderik; indarka edo itzulika, hurriki baizik ezin edek. Lan bat hor, bere baitarik eztoana, uste nuke!

Egia hauk eztituzte ukatuko, arrotz eta frantses jakintsun, gure liburu zahar herdoil eta errauts dariotenenetan sartuak ari direnek, ikas eta ikas. Hor daude guri so aski segurik derasatela zenbaitek, zoin giren ezazol, arbasoen mintzai azkar ederrari buruz.

Saminagorik erraiten ezpadatuzte oraino!

Jakintsun guziak ezture bardin larri; badazkigu aski xeheak, begi onez behatzeko gu bezalakoaren lanari; halako zonbaitek atsegin dukete guk ere ordainez hemen hitz bat erraitea heien alde. Beraz gutartean asti eta ahal dutenak eztzagozila orai arte bezen hotz eta motz eskual-argitzale direlakoan alderat.

Eskuara hunen ohiko goiti-beheiti, xoko-moko guziak ezagutu nahiz dabiltzanei bertze laguntza handirik egin ezpadezoketegu, erakuts bederen esker on gehixago. Zuzen litake; ba eta eskuararen onetan ere, guti bada guti.

Apez eskualdunei azken hitza; bereziki gaztei. Agian sarri, lehen bai lehen agian, eskuararen begiratzeko, hedatzeko lanari lotuko, jarraikiko direnen artean apezek atxikiko dute zuzenez eta eginbidez doakoten lerroa; lehen-lehena.

Gu baino dohatsuago izanen dire balin ba gure ondotik heldu direnak Ikusteko ederrik badagoke hoiენტzat. Ezpaldin-badaukate behin ikusirik Eskual-herriko eskoletan eskuara frantsesarekin ikasten zoin gehiagoka, batek bertzea poxolatze orde lagunduz, izanen dire berak, apezak, elgarren ikusgarri; frantses eta eskuara, beren bi herrietako bi mintzaie-tan bardin trebe, sortzetikakorat lerrakorxagoño; bertzeari zuzenki doazken guziak utziz, emanez, den gutieneko zimurkeriarik gabe.

Har gauzak oro behar diren bezala; gizonki, gozoki, goradanik.

Eskual-ildoan zango bat barna sartuko duenak eztu nahiko bertze zangoa frantses-ildoan axal gelditu. Eztu hor lan batek bertzea osatuko eta sustatuko baizik.

Hau aspaldiko ametsa, erranen ote dut? agian ikusiko dituztela, ditugula Semenari handian Eskualdun apez-gaiak eskuara hunen zinez ikas-teari lotuak. Elitake goizegi. Zer izanen bada eta ez, hemen dut buruan, horrek urte gutiz berea eman dezakela, eta ez bakarrik eskuararentzat.

Eztirea ja hor gaindi zenbeit iratzartzen hasiak? Iduri berantetsiak; noiz izanen den heien aldi, lerroan jartzeko? Zoin gogotik diotegun errai-

ten: ongi-etorri!... Zahartzera goazinei darraikigula gazteria. Deusek eztiotzka langile akituari hala arintzen begia eta bihotza, nola ikusteak, emeki bada emeki, ondotik heldu goiti gazteak, behin laguntzale eta geroko ordain.

Etor; ez izan lanaren beldur; gure bizia, lana da.

Iraunen ote du eskuarak luzaz oraino, ala hilen da, eta noiz? Eztakigu; bainan eztugu zeren lokar, behariz burukitari: geroak ekarri behar duena dekarla. Geroak emanen du guk edekiko dioguna, eta ez bertzerik.

Ba naski, eskuararen bizia, osasuna, iraupena, frantsesaren eta bertze askorenak bezala, Jainkoaren eskuetan dire, ba eta gure eskuetan ere; ez geroko bakarrik; orai beretik.

Bada lan. Ea badenetz langile.